

# Goienkaria

2008ko irailaren 26a > Egubakoitza > VIII. urtea > 346. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

Zabalotegi,  
Txotxongilo  
Mostra > 43-44

ANTZUOLA  
Zabalik dago zentro berria, gizarte  
etxeko lehen zerbitzua > 15

ESKORIATZA  
Debagoieneko Industrialdeak  
kudeatuko du herriko ere > 34

"Merkataritzagune handiak  
herri barruan integratu  
beharko lituzkete"

Jose Allende  
Hirigintzan  
aditua > 09

KIROLA  
BTLS eta Bergara KE taldeen  
derbia, Ipintza inauguratzeko > 28



EKONOMIA > BERGARA

## Danobat taldeak 100 lanpostu sortuko ditu

**BERGARA** Danobat taldea lantegi berria dabil eraikitzen Bergaran; trenbide arloan lan egiten duten enpresendako jardungo du han

**IBARREKOAK** Arduradunen hitzetan, "100 lanpostuok goi mailako kualifikazioa duten bertako langileek beteko dituzte" > 25

EKONOMIA > MONDRAGON

## Aurretiko erretiroa, 55 urtera

Hautsa astindu duten bi ponentzia onartu zituen Mondragon Taldeak kongresuan: tartean, aurretiko erretiroa 55 urtera jaistea proposatzen duena, langileak birkokatzea ezinezkoa denean. > 04

INGURUMENA > KONPOSTA

## Konpostaje kanpaina, bikain

Mankomunitateak 170 konpostagailu ditu, eta 110 lagunek eskatu dute bana dagoeneko > 05



ALKATEAK Agurne Barruso, Ino Galparsoro eta Pedro Lasagabaster, Bergara, Arrasate eta Eskoriatzako alkateak.

MIRIAN BITERI

EAE, LEGEZ KANPO > ELKARRIZKETA IBARREKO HIRU ALKATERI

## "Herriarekin dugun konpromisoari eutsiko diogu"

> 02-03

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

**Skoda Roomster berria**

**Aurkitu ezazu zure espazioa**

**Udalaitz**

Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**iKER SUKALDEAK:**

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Zatoz eta ikus itzazu!

**FAGOR**

Ino Galparsoro, Agurne Barruso, Pedro Lasagabaster

Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako alkateak

# "Ezkertiar eta abertzalea den jendeak bere bidea egiten jarraituko du"

**IDATZITAKO GIDOIA** Azken asteotako legez kanporatzeek aspalditik idatzitako gidoia erantzuten diotela nabarmendu dute hiru alkatek

**BORONDATEA** Hiru alkateon arabera, udalen desegiteak ekarriko luke herri horrek adierazitako borondatea ez dela beteko

**KRITIKAK** Madrilgo Gobernuaz gain, Jaurlaritzako indar nagusia den EAJk ere ezker abertzalea agertoki politikotik kendu nahi duela salatu dute

MIRIAN BITERI > ARRASATE  
Joan den martxozenean, irailaren 16an, EAE-ANV legez kanporatu zuten. Zelan joan da astea?

**Agurne Barruso:** Ezin uku tu aste gogorra izan zela Euskal Herrian orokorrean. Baina guretako, hautetsi eta alkate moduan, astea joan da otsailek honako asteak joan diren moduan. Orain Auzitegi Gorenak EAE-ANV legez kanpo laga baldin badu ere, alderdi horren jarduera otsaila ezkerro dago etenda. Handik honako ondorioak ezagutzen ditugu, Ino kartzelan izan da horregatik.

**Legez kanporatze asko egon dira egun gutxiren epean: EAE, Amnistiaaren Aldeko Batzordeak, EHAK...**

**A.B.:** Ez dira lehenengoak; aurrelik ere beste erakunde batzuk legez kanpo utzi dituzte. Ezker abertzalea panorama politikotik kendu nahi dute. Egin duten apustua izan da bere lan instituzionala oztopatzea EHAK eta EAE legez kanpo utziz. Aspalditik idatzitako gidoiarene emaitza da.

**Iazko udal hauteskundeetan, Espainiako Gobernua (PSOE) legez kanporatzearen aurka zegoen. Zer gertatu da hori aldatzeko?**

**A.B.:** Ez gaude guztiz ados horrekin. Hauteskunde haietan legez kanporatzeak egon ziren eta herri batzuetan bi talde utzi zituzten legez kanpo. Oñatin eta Aretxabaletan ezker abertzaleak ezin izan zituen bere hautagaiaak aurrera eroan eta Aretxabaletan zerrenda bozkatuena izan bazeen ere, Udala borondate hori kontuan hartu barik eratu zen. Ez dugu uste, hortaz, jarrera alda-keta hori gertatu denik. Pasatzen dena da momentu politikoen eta hauteskundeei begirako kalkuluen arabera erabaki batzuk edo beste hartzen direla, baina gidoia idatzita dago.

**"Aurretik ere beste erakunde batzuk legez kanpo utzi dituzte. Ezker abertzalea panorama politikotik kendu nahi dute. Egin duten apustua izan da bere lan instituzionala oztopatzea EHAK eta EAE legez kanpo utziz. Aspalditik idatzitako gidoiarene emaitza da"**

**Pedro Lasagabaster:** Amnesia kolektiboa barruan gau dela ematen du. Askotan entzuten dugu lehen PSOE alde zegoela eta orain aurka dagoela. Baina Aretxabaletako hor dago.

**Ino Galparsoro:** Hauteskundeen emaitzen arabera jokatzen dute. Bartzar Nagusietaroko hauteskundeetan aurkezten ez zigutzen utzi, ordezkaritzta importantea egongo zelako eta gehiengoa baldintzatuko zuela ziotelako. Orain ere zerikusia izango du egiten duten balorazio politiko batekin.

**EAEren ondasun guztiak Espainiako Estatuaren esku geratzen dira. Zenbat da hori dirutan eta zuen jarduerako zer suposatzen du horrek?**

**I.G.:** Kontua ez da zenbat diru den. Larriena da 78 urte iraun

duen alderdi politikoa agertoki-  
tik kanpo atera nahi izan dutela.  
Bestetik, nabarmendu behar da  
historia errepikatu egin dela,  
Francok horixe egin zuen arra-  
zoi beragatik.

**P.L.:** Boteretsuenak saiatu  
izan dira beti kontrako ahotsak  
isiltzen eta historiatik nolabait  
ezabatzen.

**A.B.:** Jardueran eragina du.  
Alderdia legez kanpo utzen duzu-  
nean bere jarduna legez kanpo  
utzten duzu, eta, hortaz, erabakiak  
eragina du alor guztietan. Mate-  
rialia da gutxienezkoak.

**Horren harira, zinegotzi eta  
alkate soldatza kobratzen jarrai-  
tzen duzue?**

**I.G.:** Alkateok kobratzen  
dugu, liberatuta dagoen jendeak  
soldatza jasotzen du. Baina beste  
zinegotziek ez dute soldatarik;  
asko jota euren lanetan galtzen  
dutzen dirua kobratuko dute. Baina  
dirua behar da gure jarduera  
politikoa aurrera eramateko.

**Ebazpenera berriro itzuliz,  
hamasei epaileek aho batez  
onartu zuten erabakia, eta  
egun bakar batean. Zer pentsa-  
razten dizue horrek?**

**A.B.:** Garbi geratu da erabakia  
hartuta zegoela. Beste kontu  
bat da erabaki politikoa hartuta  
izatea eta hilaren 16an jantzi judi-  
zialia ematen saiatu direla. Ez  
dute astirik eduki defentsak aur-  
keztutako alegazioak irakurtze-  
ko. Inork gutxik ukatuko du legez  
kanporatze politikoa izan dela.

**P.L.:** Gero eta garbiago ikus-  
ten da Estatu, Autonomia eta  
Nafarroa mailan botere banake-  
ta ez dela erreala, eta hori da  
demokraziaren oinarria.

**Orain, Auzitegi Gorenak eska  
dezake udal taldeak desegin  
daitezela. Horrek arduratzan  
zaituzte?**

**A.B.:** Bai. Baina arduratzan  
gaitu batez ere udal hauteskun-  
deetara aurkeztu ginenean eta

gure karguaren jabe egin gine-  
nean konpromisoa hartu genue-  
lako nork bere herriarekin.  
Zelanbait, udal hori desegiteak  
ekarriko duelako herri horrek  
adierazitako borondatea ez dela  
beteko.

**EAE Batasunarekin lotzeko,  
AHTren aurkako kanpaina  
edota Demokrazia zero kan-  
paina erabili dute. Zer diozue?**

**A.B.:** Galderak berak eran-  
tzuten dio horri.

**I.G.:** Gauza da ideiak legez  
kanpo uztea, eta hori da adibide  
nabarmen bat. Jendea ezin da  
AHTren kontra azaldu.

**P.L.:** Europako demokrazia  
zaharretan horrelakoak ez dira  
gertatzen; proiektu baten kontra  
doan jende guztia zaku baten  
sartzea. Batzuk, gainera, beldur-  
tuta daude AHTren kontrako  
manifestazioetara joateko; esa-  
terako, Ezker Batukoak. Zer  
demokrazia klase da hau? Eta  
horretan guztian, bertakoek ere  
zeresan handia dute, ez bakarrik  
Estatuak.



Ezkerrek hasita, Agurne Barruso, Bergarako alkatea;

**EPAIA dakar EAren jardue-  
ra hiru urtez etetea. Egoera  
honi bueltarik ikusten diozue  
hemendik hiru urteratik?**

**A.B.:** Horretan bi epai dau-  
de: jarduerak eten zirenean hiru  
urterako, eta orain, alderdia  
legez kanpo utzi denean. Legez  
kanpo dagoen alderdi baten jard-  
uera ezin da hiru urte barru  
legeztatu. Legez kanporatze  
horren kontrako epaia iritsi  
behar da horretarako. Egoera  
hobetuko da Euskal Herrian  
benetan irtenbide demokratikoa  
gertatzen denean.

EPAIA

**"Ez dute astirik eduki defentsak  
aurkeztutako alegazioak irakurtze-  
ko"**

Agurne Barruso

UDALEN GAUR EGUNO EGOERA

**"Udalen egoera kafkiana da; ez dakigu  
funtzionatzeko zer egin behar dugun"**

Pedro Lasagabaster

AURRERA EGITEKO

**"Gatazkari buelta eman ahal izateko denok  
behar dugu jarrera aldaketa"**

Ino Galparsoro



Europako hizkuntza eta herri zaharrena gara eta hor mantendu gara. Horri begiratuta positiboak izan behar dugu.

**Legebiltzarrerako hauteskundeetan zer gertatuko da?**

**A.B.:** Gaurtik begiratuta, badirudi ezker abertzaleak ez duela aukerarik edukiko. Herri hau, eroan dituzten prozesuen ondorioz, bidegurutze batean dago orain. Bi bide ditu: azken 30 urteetan egon garen moduan, orain arteko moduan, segi, Espainiako eta Frantziako estatuekin mendekotasunean. Edo Euskal Herrira demokrazia ekartzeko aukera politikoa abian jartzear aldeko apustua egitea. Horren aldeko hautua egin dugu eta horregatik ahuldu nahi gaituzte. Ez bakarrik PSOEko Gobernuak, Jaurlaritzako indar nagusia den EAJk ere apustu hori egiten du.

**P.L.:** Batzuek, agian, esango dute egoera demokraziaren aurakoa dela, baina, gero, hauteskundeetara joango dira normal, eta nahi dutena lortuko dute; eta gu panoramatik desagertzen bagara, askoz hobeto. Baina hori ez da sekula gertatuko.

**Jaso duzue babesik beste euskal alderdiengandik?**

**A.B.:** Bi maila daude. Batek alderdien lerro ofizialen adierazpenak daude. Bateren baten borondadea ikusten bada ere, besteetan garbi dago esanak eta eginak ez dato zela bat. Bereiztuko nuke, bestetik, herri mailan alderdi horretako oinarrak diren herritarrengandik jasotako elkartasuna.

**I.G.:** Ados nago horrekin. Salbuespena egingo nuke: ni hemen egon ez naizenean zinegotziren batek izandako jarrera pertsonalarekin. Bereiztu egingo nuke alderdian dagoen jarrera eta hainbat zinegotzi eta herritarrengandik jasotzen dugun babesea.

**Azken egunotan, ETAk hainbat atentatu egin ditu. Zelan baloratzentzituzue?**

**A.B.:** Azken asteak egoeraren gordintasuna erakutsi digu, alde guztietatik. Herri honek aldaketa eskatzen du, adierazgarri guztiek desager daitezen.

**Baduzue, azkenik, beste mezurik Debagoieneko zuen ia 9.400 boto emaileendako?**

**A.B.:** Udalak eratu zirenean lan egiteko konpromisoa hartu genuen eta horri eusten diogu. Botoek emandako zilegitasun osoz gabiltza lanean, eta, gure aldetik, horretan jarraituko dugu.

**I.G.:** Horrekin batera, bailara honetako jendeari bidali behar diogu mezu: aurre egiteko denok behar dugu jarrera aldaketa; modu aktiboa gatazkari buelta eman ahal izateko. Kontuan izanda soluzioidea etorriko dela herri honek autodeterminazio eskubidea lortzen badu.

**P.L.:** Ados nago aurretik esandakoarekin. Konpromisoa mantentzen dugu, ez gure alde bozka egin dutenei begira, baizik eta herriaren aurrean. Hortxe jarraituko dugu.



Alkateak GOITBn, Goiatz Arana aurkezlearekin.

IKER BARANDIARAN

**Arrasaten, adibidez, EAEko zinegotziak talde mistora pasatu dira. Hori izan daiteke zuendako lan egiteko bide bat? Beste udaletan zein izango da funtzionatzeko modua?**

**I.G.:** Arrasaten hartu genuen erabaki hori pentsatuz, nire atxiloketaren ondoren, Garzonek argitaratutako autoaren arabera izan zitekeela bide bat funtziona tu ahal izateko. Hala ere, ezin da ahaztu PSOEk alegazioak aurkeztu zituela eta errekurritzeko asmoa agertu duela. Hortik aurreera ez dakit zer etorriko den. Arrasaten, momentuz, horrela funtzionatzentzat ari gara.

**A.B.:** Bada bide bat hautesziok lan instituzionala garatu ahal izateko.

**P.L.:** Egoera kafkiana da. Ez dakigu funtzionatzeko zer egin behar dugun eta denbora luzea galtzen dugu horretan. Egoera oso arraroa da.

**PSEk esan du zentsura mozioak aurkeztuko dituela orain alkateen aurka...**

**I.G.:** Saiakera berria izango da hori.

**A.B.:** Horrek garbi erakusten du zein den ildoa. Alde batetik, arrazoi judizialez jantzi nahi dute gu instituzioetatik botatzea eta gero, badezpada, bide politikoa ere erabiltzen dute. Horrek ere badu bere aurrekaria, saiatu ziren-eta dimisio mozioen bidez hori lortzen. Dena da poltsa bat. Kontua da herri honetan nora jo

behar dugun ikusteko atzera begiratzea importantea dela; horrek erakusten du-eta neurri horiek ez dutela ezertarako balio. Horrek ekarriko duena da herrietan giroa gaiztotuko dela eta gatazkan sakondu egingo dela.

**P.L.:** Herriarrek galtzen dute, gainera. Herriak aukeratu gaitu herriak kudeatzeko. Herri guztietan aldaketa igerri dira eta egoera honetan gure funtzionamendua ez da normala. Esan beharra dago, baina, aukerak ditugula eta gauza gehiago egingo ditugula.

**Ezker Abertzaleak badauka Estrasburgon helegitea udal hauteskundeetako zerrenden legez kanporatzearen aurka. Hortik fruiturik espero duzue?**

**I.G.:** Handik datorren erantzuna ez da hauteslea. Hori esanda, beste edozein erantzun soberan dago, Espainiak erabiliko duelako nahi duen moduan. Bestetik, importantea da Europatik etor daitekeen erantzuna, baina herri honen gatazka hemen konpondu behar dugu. Hortaz, ezin gara zain ibili pentsatzen handik etorriko dela erantzuna eta, bitartean, hemen ez dagoela zereginik.

**Epaitegi aldetik, ekingo diozue beste bideren bat?**

**I.G.:** Nik dakidala bukatuta dago; behintzat, legez kanporatzeari dagokionez.

**Arnaldo Otegiak joan den asteko Barren aldizkariari eman-**



Mondragon Taldeak eguztenean egindako kongresuko une bat.

MONDRAGON TALDEA

EKONOMIA &gt; KONGRESUKIDEEN BATZARRA

## Aurretiko erretiroa 55 urterako aurreratuko du Mondragonek

Krisian dauden enpresetako langileek hartu ahalko dute aurretiko erretiroa adin horrekin

Kooperatiba filialen gainezko ponentzia ere gehiengoz adostu zuten kongresuko kideek

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Hauts asko astindu dituen bi ponentzia izan ziren protagonista Mondragon Taldeak eguztenean egin zuen kongresuan. Hain zuen ere, *Kooperatibak eta kooperatiba filialak. Antolamenduen kokatzea eta Egiturazko langabezia. Behin-betiko birkokapenak. Aurretiko erretiroa* dira gehiengoz onartutako ponentziak.

Bestalde, Lagun Aroko presidente Juan Mari Otaegi azkeneko aldi izan zen kongresuko presidente, erretiroa hartu behar du-eta.

*Egiturazko langabezia* dela-ko ponentziarekin, salbuespeneko izaera duten eta elkartasun

egoera bereziak eskatzen dituzten egoera zailei irtenbidea eman gura diente, funtsezko neurrieta-ko bat langileak birkokatzea da-eta. Behin betiko birkokapenek hainbat arazo sortu dituzte zen-bait kooperatibatan, birkokatu-tako langileen adinarengatik edo postuak eskatzen zuen lanbide-prestakuntza ez betetzeagatik.

Arazo horiei aurre egiteko, hainbat proposamen onartu zituzten eguztenean; besteak beste, kooperatiba eskatzailea egiturazko langabeziaren dagoen ala ez zehazteko bete beharreko baldintzak finkatu zituzten. Dena den, Lagun Aroko Jarraipen batzordeak birkokapena eskatu

duen enpresa egiturazko langabeziaren dagoela aldarrikatu behar-ko du, eskatutako baldintzak betetzen dituela aztertu ondo-ren. Birkokatzeko langileak esleitzeko irizpideei dagokienez, batzarrak onartu du behin betiko birkokapen kopurua ez dela langileriarenean %2 baino handia-go izango.

Bestalde, birkokapena bide-raezina dela ikusiz gero, aurretiko erretiroa 55 urterekin hartzeko proposamena onartu zuten, gehienez ere sei urteko iraupe-

DATUA

6  
URTE

Aurretiko erretiroa 55 urterekin hartzen dutenek gehienez ere sei urteko iraupea izango dute. 61 urterekin hartuko dute erretiroa.

narekin. Baino garbi utzi zuten erreferentzia 65 urterekin erre-iratzea dela.

Dena den, egiturazko langabeziari buruzko behin betiko era-bakia martxoan hartuko dute, Lagun Aroko egingo duen batzar orokorrean.

### KOOPERATIBA FILIALAK

Eguzteneko kongresuan onar-tutako bigarren ponentzian kooperatiba filialen garrantziaz egin zuten berba. Helburu nagusia enplegu kooperatiboa sustatzea da, sortutako enpresa berriak hasieratik kooperatibak izan daitezen. Hala, filial horiek korporazioko kideen izaera izango dute, irudi korporatiboa erabili-ko dute, Lagun Arori atxiki dakizkioke eta fondo korporati-boetan eta emaitzen birmoldaketan parte har dezakete. Baino ezingo dira izan kongresuko eta dibisioetako batzar orokorreta-ko kide, horrek ordezkaritza bikoiztuko luke-eta.

Kuga gama, kontsumoa: 6,3-6,4 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 165-169 g/km.

Semaforo batek zergatik  
izan behar du semaforo antzik?  
Pentsa ezazu izara zuri bat duzula.

Ford Kuga

MUGARRI AUTOAK  
Araba etorbidea, z/g  
ARRASATE-MONDRAKON

kugarevolution.com  
Feel the difference

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

**JUAN ZELAIA**  
VIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritziz lanak zabaldutu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko:  
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltzate, G kalea-31013 IRUNEA.

Irailen 30a arte.  
Tel: 948 326535  
soltzate@pamiela.org  
Arauak: www.pamiela.org

2008

> JAIALDIA  
**Gorren mundu mailako eguna ospatuko dute bihar Bergaran**

Domekan gorren mundu mai-lako eguna ospaten dela aprobetxatuz, jardunaldi berezia egingo dute zapataun Bergaran. Hain zuen ere, Gorren Elkargoaren eskubi-de eta beharrei buruzko infor-mazioa eman eta berezko eta ezberdina den gorren kulta-rua jendartean azalduko dute.

Ekintzak Bergarako San Martin Agirre plazan eta pilo-talekuaren egingo dituzte. Alde batetik, plazan, 10:00etatik 14:00etara arte, puzgarriak, keinu hizkuntzari buruzko tailerra, kontzentrazioa eta kale antzerkia egingo dituze-te. Beste alde batetik, pilo-lekuaren, 17:00etatik 19:00etara arte kirol ekintzak egingo dituzte.

> EKONOMIA  
**Euskadiko Kutxan ez du eragingo Lehman Brothers-en egoerak**

Lehman Brothers bankuaren egoerak ez die inolako kalte-rik eragingo Euskadiko Kutxako bezeroei. Horixe azaldu dute Euskadiko Kutxa-ko arduradunek prentsa ohar bidez. Diote 2004an erositako bonuak "epe luzerako interes-tasen murrizketak estaltzeko" zirela, eta "ez finantza-inber-tsio gisa" erabiltzeko.

Euskadiko Kutxak 40,7 milioi euro ipini ditu badeaz-padakoei aurre egiteko, jakin gabe bonuetako dirutik zen-bat berreskuratuko duten. Dena den, Euskadiko Kutxa-ko Komunikazio zuzendarri Juan Cidek dio diru horretatik zati bat berreskuratu egi-go dutela, eta gaineratu du Euskadiko Kutxaren egoera "sendoa" dela.

> EKITALDIA  
**Ibarretik autobusak joango dira domekan Alderdi Egunera**

Oñatitik eta Bergarakit irten-go dira autobusak Forondan (Araba) EAJk domekan ospatu-ko duen 31. Alderdi Egu-nean parte hartzeko. Bergarako autobusa 09:00etan irten-go da autobus geltokitik eta Oñatitik 09:30ean postetxeko geltokitik. Bestalde, Arrasateko EAJk ez du autobusik antolatu. Era berean, lagun asko joango da autoetan.

Bestalde, Bergarako EAJ urteroko txosna jarriko du *Baietz!* lelopean egingo duten Alderdi Egunean. Besteak beste, edariak, pintxoak eta salda salduko dituzte; eta 120 lagunendako bazkaria eman-go dute. Era berean, tostoi eta erreileenak jarriko dituzte salgai txosnan.

INGURUMENA &gt; ZABORRAREN ARAZOA

# Ia bete da konpostagailua jasotzeko izenemate zerrenda

Eguenean, 110 lagunek emanda zuten izena; denetara, 170 konpostagailu daude

Aurreko urteetan banatutakoekin, 600 konpostagailu inguru egongo dira ibarrean

M. ARREGI/L.KORTABARRIA > ARRASATE  
Etxean konposta egiteko kanpaina ezin zitekeen hobeto hasi: joan den egubakoitzean ireki zen izenematea epea, eta dagoeneko 110 familiak eman dute izena konpostagailua etxeen izateko –170 konpostagailu banatuko ditu Mankomunitateak guztira.

Kristina Iraolagoitia Ingurumeneko arduradunak esan ziguenez, egunean jaso zuen 110. izenematea: "Erantzuna oso ona izan da; lehenengo egunean, lau bat orduan, 45 apuntatu ziren". Ez hori bakarrik; lehendik ere



Iturbe, Igartua, Lasagabaster, Antxia eta teknikari bi, konpostagailua erakusten. M.A.

bazeuden konpostagailuak bailarako etxe askotan, eta batzuek bigarren bat eskatu dute, "baina, goazen martxan, ez dut uste horretarako aukerarik egongo denik; ez dut uste konpostagailurik soberan geratuko denik", esan du Iraolagoitiak. Eskatzialeak bailarako herri guztiakak dira, batez ere auzoetakoak.

Mankomunitateko ordezkariek joan zen astelehenean egin zuten kanpainaren aurkezpena. Konposta norberak etxeen egiteko kanpaineik arrakasta izan dute lehendik ere ibarrean. Honakoarekin, dagoeneko 600 etxetan izango dira konpostagailuak. Denak doan banatzen dira. Orain arteko 400 konpostagailuek 25 tona kompost egiten dute urtean.

**ARETXABALETAKO ESPERIENTZIA**  
Aretxabaletan ere, komposta egiteko esperientzia pilotu bat dute abian. Kasu horretan, kalean ipini dituzte edukiontzia, izena eman dutenek hara bota dezaten etxeen batzen duten materia organikoa.

Bada, ematen du esperientzia hori ere erantzun ona izaten dabilela. Joandegi egubakoitzean egin zuten edukiontzion lehen bilketa. 2.000 familia ingurutik, 502k eman dute izena egitasmoan, eta horien %60 hasi dira birziklatzen. Udalean baikor daude: "Jendeak kontzientzia du, eta hortik jarraitu behar dugu", esan zuen Jose Anjel Antxiak, Aretxabaletako Ingurumen zinegotziak.

INGURUMENA

## Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua eratu da

MIREN ARREGI > BERGARA  
Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua eratu zuten astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundian; bizikletaren gaineko mugikortasun kontuen aholkularitza organo gorena izango da. Kontseiluaren zereginaz izango da, beste batzuen artean, bizikletaren mugikortasunarekin lotura duten arautegi, aurreproiektu zein proiektuen gaineko proposamenak egitea; hezkuntza neurriak ere proposatuko ditu kontseiluak, bizikletaren erabilera balioaz eta sentsibilizazioaz herri-tarrak kontzientziatzeko.

**ERAKUNDEAK ORDEZKATUTA**  
Garapen Iraunkorreko diputatu Karlos Ormazabal izango da kontseiluko lehendakaria. 30 kide izango ditu eta hainbat erakunde egongo dira ordezkatuta: Jaurlaritza, Batzar Nagusia, Diputazioa, Gipuzkoako eskualdeak, sindikatuak, bizikletaren eta oinezkoen mugikortasunarekin zerikusia duten elkartek, EHU eta abar.



Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak  
LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatea)



### Ikastaroak

#### FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila)

**Modulua: Fabrikazio mekanikoko makinen prestaketa eta programazioa (275 ordu)**

CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa

**Modulua: Txirbil-harroketako bidezko mekanizazioa (300 ordu)**

CNC fresatzeko makinako mekanizazioa

**Modulua: Automatismo elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu)**

Automatismo elektriko kableatuak

Automatismo programagarriak

**Modulua: Fabrikazio mekanikoko sistema osagarriak (110 h)**

Roboten programazioa

#### GALDAKETA- FUNDIZIOA (3. maila)

**Modulua: Galdaketa eta pulbimetallurgia prozesuen definizioa (210 ordu)**

Grabitatezko galdaketa prozesuak

Presiozko galdaketa prozesuak

**Modulua: Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren materialak (90 ordu)**

Burdinazko metalak

Metal arinak

#### METAL - ERAIKUNTZAK (2. maila)

**Modulua: Metal eraikuntzen garapen geometrikoak (145 ordu)**

Galdaragintza eta egituren planoak interpretatzea

**Modulua: Giro naturaleko soldadura (310 ordu)**

Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura

Elektrodo estali bidezko topekako soldadura

Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura

Soldadura oxiazetilenikoa / oxigas bidezkoa

**Modulua: Giro babestuko soldadura (215 ordu)**

Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura

Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura

Posizio horizontaleko TIG soldadura

Beste posizio batzuetako TIG soldadura

#### AUTOMOZOIA (2. maila)

2 aldiko motor termikoak, Wankel motorrak eta horien lubrifikazio eta hozte sistemak. Mantentzea, egiaztapena eta konponketak

#### TRESNERIA ELEKTRONIKOA (2. maila)

**Modulua: Oinarritzko instalazioak (110 ordu)**

Etxebizitzen eta merkatitzako lokalen barruko instalazioak

**Kualifikazio Sistematik Kanpo dauden Etengabeko Ikastaroak**

Elektrodo bidezko soldadura. Soplete oxiazetilenikoa.

Elektrodo bidezko soldadura. Soplete oxiazetilenikoa.

**Ikastaroak arratsaldeko 15:30 eta 21:00 artean emango dira • Informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI, Etxebarri auzoa, z/g Tfn.: 943-7979 00  
Webgunean: [www.iaretxabaleta.com](http://www.iaretxabaleta.com)**



ENPRESAK &gt; BERRIKUNTZA

# Mankomunitateak bat egin du Euskadi Innova ekimenarekin

Lehen aldiz, sustapen ekonomikoan diharduten agenteek bat egin dute ekimena bultzatzeko orduan

Debagoineneko Mankomunitatean informazio pertsonalizatua eman gura dute

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE**  
Euskadin berrikuntza soziala eta enpresariala sustatzeko euskal administrazio publikoaren ekimenarekin bat egin du Debagoineneko Mankomunitateak. Aurkezpen ekitaldia atzo goizean izan zen, Mankomunitateko egoitzan. Han izan ziren ekimeneko sustaizaile nagusiak.

**EUROPAKO AITZINDARI**  
Euskadi+innova ekimenak berrikuntzaren kultura lurrarde osoan zabaltzea du helburu. Horretarako, hainbat eskualdetan berrikuntza agenda aurkezten ibili dira egunotan. Debagoineneko izan da azken aurkezpenea. Edozelan ere, aurkezpenean argi utzi zuten eskualde bakoitzaren beharren arabera gestionatuko



Euskadiko agente eta erakundeetako ordezkariek eta alkateek manifestua sinatu zuten.

A.E.

dela ekimena. Lehen aldiz, sustapen ekonomikoan diharduten Euskadiko agente eta erakundeek bat egin dute eta ekimen bakar baten inguruan batu dira. Helburua da Euskadi berrikuntza arloan Europako aitzindari izatea.

Debagoineneko Mankomunitateak helburu hori bere egin du eta bere eremuan berrikuntza bultzatzeko hitza eman du. Pedro Lasagabaster Mankomunitateko lehendakariordeak berba egin

zuen Mankomunitatearen izean. "Mankomunitatearen helburua enpresei informazio pertsonalizatua ematea izango da", esan zuen aurkezpenean Lasagabasterrek.

**PERTSONEN GARRANTZIA**  
Mauri Lazcano SPRiko zuzendariak ekimenari buruz berba egin zuen. Esan zuen euren lana enpresei informazioa eman eta behin berrikuntza agenda martxan ipi-

nitakoan jarraipena egitea dela. Gaineratu zuen milatik gora enpresak eman dutela izena ekimenean eta dagoeneko 144 proiektu jarri dituztela martxan. Berrikuntza alorrean, pertsonak duten garrantzia azpimarratu zuen Lazkanok: "Pertsonak lehengaia dira berrikuntzan", esan zuen.

Debagoienean lau berrikuntza foro egingo dituzte datozen hilabeteotan; lehenengoa urriaren 9an izango da.

ISTRIPUA

## Lekukoak dio, bidea gurutzatzen arizela Arantzazun hildakoa

**IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI**  
Arantzazuko Santutegirako bidean gizonezko bat hil zen domekan, auto batek harrapatuta. Ertzaintzako iturrien arabera, Bartzelonako 67 urteko gizona zen hildakoa.

Gertakaria bere autotik ikusi zuen lekuko batek eman digu istripuaren berri: "10:50ean Errosarioko ermitaren pareko aparkalekutik irteten nembilen eta ikusi nuen aurreko bihurgunean gizonezko batek errepidea gurutzatu zuela korrika, baina ez ziola astirik eman bidearen beste aldera pasatzeko. Orduan, Arantzazun gora zihoa auto batek. bete-betean jo zuen gizona".

**MOMENTUAN EZ ZEN HIL**

Lekukoaren arabera, "kolpearen ondoren autoa mugitu genuen eta oraindik bizirik zegoen gizonezkoa. Bertaratu zen erizain batek ziurtatu zuen heriotza ertzainak heldu aurretik, baina ez zen autoak jutako unean hil, gero baizik".

GOIENKARIA adierazpenak egin dizkion lekuoak dioen arren berak bakarrik ikusi zuela gertaera, ertzainak lekuo gehiagoren bila dabilen, ikerketa osatzeko.



LEIRE KORTABARRIA

## Elkarretaratzeak, atentatuak gaitzesteko

Bergaran herritar talde bat batu zen asteluhenean, azken egunotan ETAk burututako atentatuak gaitzesteko. Oñatioko udaletxearen aurrean egin zuten kontzentrazioan, bestalde, Lourdes Idoiaga alkatea, hainbat alderditako zinegotziak eta herritar ugari elkartu ziren. Aretxabaletan ere Inaxio Garro alkatea eta hainbat zinegotzi elkartu ziren.

### Gizarte laguntzarako Prestakuntza



**kutxaZabal Deba**

#### INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED. Debako kutxaZabal.  
Tel.: 943 76 90 33  
Matrikula internet bidez egiteko:  
[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)

#### ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA

#### 2008KO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

zer nahi duzu bihar?

## Udazkeneko ikastaroak

### DEMENTZIAK ETA ALZHEIMERRA

Iraupena: 15 ordu.  
Datak: urriaren 7, 9, 10, 14, 16 eta 17.  
Ordutegiak: 18:00 – 20:30.  
Prezioa: 65 €  
Matrikula-epea: irailaren 1etik urriaren 1era arte.

### ARAZO FUNTZIONALAK ETA JOKABIDE NAHASTEAK DITUZTEN PAZIENTE PSIKOGERIATRIKOEKIN IZAN BEHARREKO ARRETA.

Iraupena: 12 ordu.  
Datak: urriaren 21, 22, 28 eta 29.  
Ordutegiak: 18:00 – 21:00.  
Prezioa: 57 €  
Matrikula-epea: irailaren 1etik urriaren 13ra arte.

### ANIMAZIO SOZIOKULTURALA ADINEKO PERTSONEKIN: ESKU HARTZEKO PROGRAMAK.

Iraupena: 12,5ordu.  
Datak: azaroaren 4, 5, 6, 11 eta 12.  
Ordutegiak: 18:00 – 20:30.  
Prezioa: 58 €  
Matrikula-epea: urriaren 1etik azaroaren 1era arte.

### ESTIMULAZIO KOGNITIBOA. J. CLIC PLATAFORMAREN BIDEZ JARDUERAK SORTU ETA GARATZEKO MODUA.

Iraupena: 20 ordu.  
Datak: azaroaren 18, 19, 20, 25, 26 eta 27 / azaroaren 21 eta 28an  
Ordutegiak: 18:00 – 21:00 / 18:00 – 20:30.  
Prezioa: 80 €  
Matrikula-epea: urriaren 1etik azaroaren 10era arte.

**kutxa**



Imanol Dominguez (17 urte) eta Aimar Agirre (19 urte) hamaika hilabete ibili dira itsasoan zehar.

JASONE ZABALA

Imanol Dominguez eta Aimar Agirre > Urdaneta itsasontzian ibili dira

## "Itsasoan bizi izandako esperientzia oso positiboa izan da gure bizitzarako"

JASONE ZABALA > BERGARA

Arazoak zituzten zazpi gaztek 11 hilabete eman dituzte itsasoan, Urdaneta itsasontzian. Ikailekin, marinalekin eta terapeutekin egon dira. Gainera, Angel Amigo zinema ekoizleak esperientzia hori dokumental batean jaso du: *Itsasotik datozen hitzak*. Imanol Dominguez arrasatera eta Aimar Agirre bergararra dira zazpi gazteetako bi.

Nola izan zenuten egitasmoaren berri?

**Imanol Dominguez:** Diputaziotik deitu zidaten esanez aukeera bat zegoela informatikako ikastaro bat itsasontzi batean egiteko. Niretzako aukera polita eta ego-kia zela ikusi nuen.

**Aimar Agirre:** Nik Udaletik jakin izan nuen. Amari komentatu zioten ea nahi nuen esperientzia horretan parte hartu, eta halaxe egin nuen.

Gustatzen zaizue itsasoa?

**I.D.:** Bai, niri asko. Niretzako lasaitasun iturri da itsasoa. Ura, paisaia eta abar ikusteak asko lasaitzen nau.

**A.A.:** Esperientzia horretan ez naiz murgildu itsasoagatik, informatikako titulua ateratzearen baizik, etorkizun bat topatu nahi nuelako bertan. Gainera, 11 hilabetean gainditu dut normalean bi urtean ateratzen den ikastaroa.

Zein zen zuen arazoa?

**I.D.:** Ez nuen ikasten jarraitu nahi. Klaseetara joaten nintzen, baina ez zitzaidan ikastea gustatzan.

**A.A.:** Arazoa nire lotsa da. Oso lotsatia naizela. Horrez gain, ikastea ere ez nuen gustuko, bai-

na esperientzia honetan gogoz ibili naiz.

Eta itsasontzian ez duzue beste erremediorik izan ikastea baino, ezta?

**I.D.:** Bai, baina hala eta guztiz ere, ikaskide batzuek ihes egiten zuten, ez ziren klaseetara joaten!

**A.A.:** Ez dugu beste biderik izan, ikasi besterik ez zegoen; baina gogoz aritu gara esperientzia berri honetan.

Zenbat neska-mutiko egon zarete ikasturte osoan zehar? Eta zer moduz haietan izandako elkarbizitza?

**I.D.:** Bertan hiru neska eta zortzi mutil egon gara, baina proiektua hiru mutilek eta neska bakarrak amaitu dugu. Ondo konpondu naiz guztiek. Arazorik ez dut izan!

**A.A.:** Imanolek dioen moduan, ez dugu gure artean inongo arazorik izan, ondo konpondu gara guztion artean 11 hilabete horietan zehar.

**"Gauza asko ikasi ditugu: jendearekin erlazionatzen, beste mundu batean sartzen..."**

Imanol Dominguez

**"Marinel kontuak ere erakutsi dizkigute, eta horrek izaera aldatzen lagundu dit"**

Aimar Agirre

Zer ikasi duzue itsasontzian?

**I.D.:** Gauza asko ikasi ditugu: jendearekin erlazionatzen, beste mundu baten sartzen... Baina gehien ikasi duguna informatika izan da.

**A.A.:** Marinel kontuak ere erakutsi dizkigute eta horrek izaera aldatzen lagundu dit. Orain formalagoa naiz, eta lotsa ere pixka bat galdu dut.

Zer izan da esperientzia horren alde on eta txarra?

**I.D.:** Alde ona, ezagutzen ez genituen kostaldeko herri ezberdinak ezagutzea. Alde txarra, berriz, hamaika hilabete kanpoan egotea eta gurasoak eta lagunak 15 egunetik bi egun bakarrak ikustea.

**A.A.:** Alde ona, titulu bat atetra dudala, lanera joango naizela, eta pertsona hobea naizela; ezin-go nuke alde txarrik aipatu, ez da egon-eta.

Ikasturtea amaitu da. Zer egingo duzue orain?

**I.D.:** Ikasitakoaren praktikak hasiko ditugu urrian.

**A.A.:** Urrian lanean hasiko naiz.

Faltan igartzen dituzue itsasontziko kideak?

**I.D.:** Bai, faltan igartzen ditut. Familia osatzen genuen guztiok.

**A.A.:** Lagunak izango dira betiko, inoiz ez ditut ahaztuko.

Gomendagarria da esperientzia, orduan?

**I.D.:** Edozeini gomendatzeko moduko esperientzia izan da.

**A.A.:** Gomendatzeko. Nire bizitzarako lagungarria izan da.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoia Iraileko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
20 euro abendura arte

CD-irratia-stereoia

**EROSKI**  
zurekin



KAMISETA+POLTSA

**skunkfunk**



AQUARIUM-EKO SARRERAK



**SARI NAGUSIA:**  
**ARBELAITZ JATETXEAN**  
**AFARI BAT**

**Arbelaitz.**  
ARBELAITZ • DONOSTIA

Arbelaitz jatetxea  
<http://www.arbelaitz.com>  
943 30 82 20

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatua baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, häiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**gure artekoak**

**CHEVROLET AVEO** > Aurten bertan atera du merkatura Chevrolet etxeak Aveo autoa. Giutoko Karlos Etxanizen ustetan, fidagarritasun handiko autoa da; eta, gainera, etxe handi baten -Giuto- babesu duela dio.

**Karlos Etxaniz** > Giuto etxeko salmenta sailekoa

## "Bost urteko bermea du Chevrolet Aveo auto berriak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
Aurten atera dute Chevrolet Aveo. "Diseinu polita duen autoa da", dio Etxanizek. "Gainera, tamaina txikia izan arren barnealdean nahiko toki dauka", gaineratu du Giutoko salmenta saileko Etxanizek.

Aipagarriena autoak duen bermea dela esan du Etxanizek. "Bost urteko bermea dauka Aveo autoak; bai mekanika eta baita eskulana ere sartzen da bermean", azaldu du. Fidagarritasun handiko autoa dela gaineratu du Etxanizek: "Esan behar da General Motors talde handiaren marka dela Chevrolet. Hortaz, horrelako talde baten babesu izatea garrantzitsua da". Giuto taldearen babesu izatea ere aipagarria dela gaineratu du Etxanizek.

Azkenik, kalitate eta prezioaren arteko erlazioa azpimarratu gura izan du Etxanizek.

**LASTER, DIESEL MOTORRA**

Orain arte Chevrolet etxeko autoek ez dute diesel motorrik izan; baina poliki-poliki merkaturatu dituzte batzuk. Aveo modeloak, esaterako, oraindik ez dauka diesel motorrik, "baina, epe motzean ateratzekoak dira", azaldu du Etxanizek.

Autoaren segurtasunari dago kionez, gaur egun merkatuan



Karlos Etxaniz, Aveo auto berriarekin, Giuto kontzesionarioan. A.E.

### Chevrolet Aveo 1.2 84 ZP

Prezioa	10.598 euro
Luzera	3,92 metro
Zabalera	1,68 metro
Maletategia	220 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	5,5 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	170 km/h <sup>(3)</sup>
CO2 isurketak	132 g/km

- (1) Gehienezko edukiera
- (2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepideko kontuan hartuta
- (3) Gehienezko abiadura

dauen ekipamenduekin hornituta dago autoa: aurreko eta aldeetako aire-poltsa, ABS... eta beste hainbat elementu.

**BIGARREN AUTO MODUAN**

Aveo autoa nori zuzenduta dagoen galdetuta, Etxanizek hauxe dio: "Bigarren auto moduan edozein etxetan ondo dator Aveo autoa". Bai gazteei eta baita nagusiei zuzenduta dagoela gogorazi du. "Gainera, nahiko altua da; hortaz, pertsona nagusiendako oso erosoa da autora sartu edo autotik irteteko orduan", adierazi du Etxanizek.

**etxeko leihotik**

Iban Arantzaibar > 'iarantzaibar@goiiena.com'

## Herri bizixa daukagu eta baitta ibar bizixa be

Etxeko leihotik ez, asfaltotik ikusi ahal izan dot zelako bizirik dagon herrixa. Ibarrian ez daukagu zineeskaintza haundirik, ez daukagu Guggenheimik, ez hondartzarik ezta Kontxako barandillarik, baiña Debagoiena bizirik dago, bizi-bizi. Aramaixon sagardua eta rallysprinta, Oñatin danborradia, dantza soltia Bergaran, erauskisetak, musika, kirola barra-barra...

Adibiderako milla laguneko herrixa: zapatu goizian herriko basarri-produktuekin ferixa txukun askua: herriku leka, intxaur, gaztai, ogi...

zer ez! Atsaldian sagardo kupeltxuak eta eguneko ekintzarik jendetxuena: tortilla lehiaketia. Bai, lehiaketiek xumia emoten dau, baiña ez ziran lau edo bost talde egon tortillak egitten, 31 ziran eta ekintza parte-hartzaille honetan 100 lagunetik gora zartaiñak zaintzen. Domeka goizeko 11:00etan umiak rugbyxa zer dan ikasten Elorrixoko rugby taldekuak, tartian munduko txapelketan jokatutako lagun bi. Eta egurdixan motor zaratia Vespa eta Lambrettekin. Herrittik pasau ziran Lehendakari Txapelketako txirrindulariak eta baitta Durangoko Harley Davidson kontzentraziñoko motorrak.

> **Udazkenian** pasua emongo dotse kaleko ekintzek barrukuei. Debagoieneko kontzertu aretuak, antzokixak, elizpiak, frontoiak... ia ekintzez beteta egotiaz gain parte-hartzalliekin lepo ikusten dittugun.

> **Turistendako** badago zer saldu Debagoienian, baiña inddarra egin biharko giñuke herri bizi bat gazela esaten. Kooperatibegaitik eta lanagaitik ezagutzia ondo dago, baiña badakigu bizitzen be, bizi bizitzen.

### "EZ DAUKAGU KONTXAKO BARANDILLARIK, BAIÑA HERRI BIZI- BIZIXAK BAI"

**begi-bistan**

**Argentinako matrikula  
(Arrasate)  
2008/09/18**

Argazkia: Arantzaibar.  
Testua: Arantzaibar.

Arrasateko AEK-ko bulegoetan dago matrikula. Argentinatik ekarritako da; autoak desegiteko leku batetik, hain zuzen. Matrikulak dituen bi berbak kuriosoaak dira benetan.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiiena.com

**izen propioak**

**Jose Antonio  
Azpiazu**  
HISTORIALARIA



**Aitor  
Mantxola**  
ZINEMA ZUZENDARIA



**Arkaitz  
Letamendi**  
KORRIKALARIA

Martitzent arratsaldean Jose Antonio Azpiazu historialariak euskal emakumeen gaineko hitzaldia egin zuen Zumarragan. *Euskal emakume enpresariak historian zehar* izenburupean, emakumeek negozioetan izan duten partaidetza azaldu zuen.

Aitor Mantxola oñatiarrak argazkilari lanak egin ditu *La casa de mi padre* filmean. Gorka Merchan donostiarra zuzendu du lana eta Carmelo Gomez eta Emma Suarez izan dira protagonistak. Filma Donostiako Zinemaldian estreinatu zen, eguztenean. Arkaitz Letamendi eta Asier Urdanpilleta korrikalaria Plazaolako maratoi erdiko irabazleak izan ziren domekan. Leitza eta Lekunberri artean jokatutako 20 kilometroko lasterketan eskutik helduta iritsi ziren h e l m u g a r a . 1:12:35eko denbora egin zuten.

Jose Allende Landa (Bilbo, 1943) Hirigintza Planifikaziorako Katedraduna eta Euskal Herriko Uni-

bertsitateko irakaslea da. Merkataritza-gune handiek herri txiki eta ertainetan eragiten

dituzten ondorioei buruz berbaldiak egiten ditu, eta hilaren 18an Arrasaten egon zen. Bere-

ziki, herriko saltokiak eta merkataritza tradizionala indartu behar direla azpimarratu zuen.

Jose Allende > Hirigintza planifikazioan katedraduna

# "Merkataritza-gune handiak herri barruan integratu beharko lituzkete"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Arrasateko Eroskik hipermerkatua handitzeko egindako eskaerak zalantza asko sortu zituen Arrasateko merkatarien artean. Joan zen astean, merkataritza-gune handiek dituzten desabantailei buruzko berbaldia antolatu zuen Ibai-Artek.

Berbaldian egondako Arrasateko merkatarien kezkak argitura geratu zirela uste duzu?

Dendariak kezkatuta daude etorkizunaz. Nik merkataritza-gune handiek herri txikietan izan dezaketen ondorioei buruz egin nien berba, Ibai-Arte dendarien elkartek gonbidatuta. Egia esan, gustura egon nintzen hitzaldira hurbildutako arrasatearrekin.

Ze ondorio izan ditzake merkataritza-gune handi batek Debagoienean dauden herri txikiendako?

Garbi dago merkataritza-guneek arazoak konpondu baino gehiago sortu egiten dituztela. Besteak beste, ekonomian eta kulturan eragin zuzena izango lukete. Debagoienean dauden herri txikietan, ondorio larriak ekarriko lituzkete. Epe motzera aukera erakargarria izan daiteke; baina, epe luzera oso txarra da, duda barik.

Merkataritza-gune handiek lanpostu berriak sor ditzaketa uste duzu?

Erantzuna ematea ez da erraza. Nire ustez, lanpostu egonkorra sortzen dituzte; baina, aurrelik zeuden beste batzuk galdu egiten dira. Horren harira, erdiguneko merkatarien ekonomiak behera egiten du. Jendartea uste du lanpostu berriak sortzen dituztela. Hasieran hala izan daiteke, baina epe luzera lanpostuak galdu egiten dituzte.

Zuk diozu merkataritza-gune handiek ekologian eragiten dutela. Zela?

Eragin zuzena dute; besteak beste, hiri-guneetan egiten dituzten merkataritza-guneetara joateko autoa erabili behar dugu. Bestalde, hiriaren sakabanatzeara dakar, eta horrek jasangarritza sunaren kontra egiten du. Gainera, herriko merkatarien saltzen dituzten eguneko produktuei kalte zuzena.

Merkataritza-gune handiak eraikitzeko, beste erabilera baterako izan daitezkeen lursailak erabiltzen dituzte; hala nola, lortegiak edo jolasparkeak egiteko.



Jose Allende Arrasateko denda baten aurrean, Kulturaten egindako berbaldia hasi aurretik.

MIREIA BIKUÑA

Merkataritza-gune handiek eragina izan dezakete herri txikien nortasunean?

Bai. 1996. urtean Europako Batasunak, Europako hiri jasan-garrien gainean egindako txostenean dio merkataritza-gune handien masifikazioengatik, inguruko herri eta hiriek nortasuna galtzen dutela. Herrietako merkatariekin dugun hartueman zuzena galtzen da merkataritza-gune handietan. Bestalde, lekuko nekazaritza eta herriak dituen kultur ezaugarriak galtzeko arriskua dute.

Merkataritza-gune handiak eraikitzeko baimen-estatea arautzen duen legeak, zer dio?

Euskal Autonomia Erkidegoan baimenak arautzeko legea tramitzen dihardute. Europan, geroz eta zorrotzagoak dira merkataritza-guneak egiteko baimenak ematerako orduan.

Beste adibide garbia Katalunian duten legea da. Hango Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

BIZIA

**"Herri txikiek irauteko behar duten bizia, herri merkataritzak ematen die"**

LEGEA

**"Europan oso zorrotzak dira merkataritza-guneak egiteko baimenak ematerako orduan"**

ETORKIZUNA

**"Beharrezkoa da denda txikiak mantentzea, eta merkataritza tradizionala hobetzea"**

2006ko urtarrilaren 1ean, eta dio merkataritza-gune handiak (salmentarako 800 metro koadro baino gehiago dutenak eta 10.000 biztanle baino gutxiago duten herriek), herriaren erdian eraiki behar direla. Hori izan daiteke irteera bat: merkataritza-guneak egitekotan herrien erdialdeetan integratu beharko lituzkete.

Ze abantaila ditu herriaren erdian integratutako merkataritza-gune batek, hirietan daudenekin alderatuta?

Duda darik, abantaila asko ditu. Hirietan dauden merkataritza-guneetara joateko autoa erabili behar dugu, eta horrek kalte egiten dio ingurumenari.

Bestalde, erdialdeko merkataritzak bizia ematen dio herriari eta, ondorioz, herriko produktuak erosiko ditu jendeak. Era berean, herriak bizia badu, segurtasuna bermatzen zaio. Argi izan behar dugu herri txiki eta ertainak lagunekin elkarrezko tokiak direla, eta bizia

behar dutela derrigor. Horren aldeko apustua egin beharko lukete udal gehienek. Egunero ogia edo barazkiak erosten ditugun dendako jabearekin dugun hartu-emana ez da merkataritza-gune handietako saltzailearekin dugun berbera. Gainera, gure herriko saltokietan erosten badugu, eguneko produktuak eros ditzakegu.

Ze etorkizun du herri txiki-tako merkataritzak?

Beharrezko da denda txiki eta ertainak mantentzea, eta merkataritza tradizionala hobetzea. Europako herri eta hiri askok egin dute azken horien aldeko apustua. Eusko Jaurlaritzak Gobernua osatzeko koalizioa onartu zuenean, herri txikieta-ko merkataritzaren aldeko apustua egitea ezinbestekoa zela adierazi zuen. Era berean, herri txiki-tako merkataritza garatzeko, eta, bide batez, saltoki txikiak bideragarritasuna bermatzeko konpromisoa hartu zuen.



zabalik

Manu Arregi

## Esploratzaleak

**L**au hilabete dira Iñaki Otxoa de Olzaren bizia Annapurnan itzali zenetik. Hitz on asko irakurri eta entzun ziren egun haitan berari buruz, mendizale aparta izateaz gain, oso tipo noblea zelako. Baino ederrenak, dudarik gabe, Carlos Barrabesi irratian entzundakoak izan ziren. Laguna zuen Barrabesek Iñaki eta oso hunkituta zegoen. Horrelako tipo apartek zergatik ipintzen duten arriskuan euren bizia galdetzen zion bere buruari. Gizar-tean nork bere misio du, konkluitzten zuen, eta Otxoa de Olza eta horrelakoena taldearen mugak ikertzea da, bide berriak zabal-tea. Ez da ez zaiela importa beraien biziak arriskuan jartzea. Misio bat dute eta ez dute beste ezer buruan, misioa betetzea baino.

Betidanik egon dira horrelakoak gure artean. Horrela gizaria, Afrikan sortu bazeen, handik irten eta Lurrean zehar zabaldu zen. Tipo kurioso batzuk horizontea baino arruntzeago zer zegoen ikustera joan zirelako, arriskuekiko beldurrak alde batera utziz. XVI. mendean, berriz, barkutan sartu eta munduan zehar nabigatza joaten ziren, bidaian zehar hiltzeko probabilitatea altua zegela jakin arren. Colonen bidaia da adibiderik garbiena, mendebalde-rantz itsasoratu zenean, joateko besterik ez zuelako janaririk. Lurrik aurkitu ezean, akabo. Baino bere misioa zen eta egin egin behar zuen.

Oso ugariak dira horrelakoak euskaldunon artean. Ikusi bes-tela zenbat nabigatzaile euskaldun izan ziren eta zenbat puntako himalayista dauzkagun. Egunen batean gizakia hurrengo urratsu emateko prest egongo da eta espazioan zehar zabaltzen saiatuko da. Eta hor egongo dira prest gure esploratzaleak, misio berri batean parte hartzeko, bueltarik gabeko bidaia izan daitekeela jakinda ere.

Gure Felix Iñurrategi bezala, gazteegi joan zara, Iñaki, baina zuet bezalakoei esker egiten du gizadiak aurrera.

### "Otxoa de Olza eta horrelakoen misioa taldearen mugak ikertza da"

### "Oso ugariak dira euskaldunon artean: ikusi zenbat nabigatzaile edo himalayista dugun"

SAN ANTONIOKO PASABIDEA NOIZ EGONGO DA GERTU?

**B**ergarako San Antonio auzoko bizilagun batzuk zuzendu dira guregana, auzoan daukaten "ego- era kezkagarria" dela eta. "Zume-laga parean hasten zen aparka-leku eta oinezkoendako bidea altxatu egin dute, eta pasabide bat egiten dabilta. Baino, orain-goz, oinezkoek ez dugu pasatze-ko lekurik, metalezko xafla batzuk izan ezik, eta horiek ez dira ego-kienak. Jende asko errepidetik pasatzen da, eta arriskutsua da. Hori laster konponduko dute, eta pasabidea noiz egongo da gertu?"

Bergarako alkate eta Hirigintza sailburu Agurne Barrusorengana zuzendu gara kezka horrekin. Ez da gauza berria; izan ere, alkatea egunotan izan da San Antonion, egoera bertatik berta-ra ezagutzeo. Obren arduradunekin hitz egin ondoren, Barrusok hauxe esan du: "Eurek agin-dua zeukan pasabide bat egiteko, eta eginda dago, baina obren eremuen barruan dago; hau da, ez da berezko pasabide bat". Obrek irauten duten arte-an, behin-behineko pasabide

horretatik "kontuz" ibiltzeko eskatzen dute arduradunek. Hala ere, alkatearen esanetan, "lanak nahiko aurreratuta daude; lurra falta zelako egon da geldiune bat, baina oraintxe adostu da hura erostea, eta epe motzean bukatuko dituzte lanok". Horien emaitza izango da pasealeku bat, Zumelaga jatetxe pare ingurutik Martoko auzoko lehen etxeetaraino; denetara, 200 bat metro luze izango da.

#### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduraturatua bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


SAN MIGELTAN IZANGO DA AURTEEN OMENDURIK?

**A**retxabaletarrek oraingo aste bukaeran ospatuko dituzte San Migel jaiak. Bada, herritar batek idatzi digu, honako galderarekin: "Lehen, Aretxabaletako pertsona bat omentzen zen jaietan (pilotariak entrenatzent ibilia urte askoan, dantza taldearen ardura izandakoa...). Azkena 2003an izan zen, Bixente Etxeandia UDAKO jokalari eta entrenatzaile ohia eta orduan presidente. Zergatik ez da jarraitu ohitura horrekin?

Udaleko Kultura Sailarekin harremanetan jarri gara gure irakurlearen galdera erantzuteko. Kultura arduradunen esanetan, aurten ez dago omenaldiak aurreikusita, eta arrazoia hauxe da: "Orain arteko omenaldiak antolatu dira une hartan aitzakia edo arrazoi jakin bat zegoelako horretarako, eta ekitaldi berezi moduan. Aurten, ez da horrelakorik antolatu ez delako halako arrazoi berezirik egon, eta ez dugu proposamenik jaso ere". Hortaz, beharbada herriko talde-ren batek proposatuz gero, egingo dute datorren urtean berriz.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Goienkaria

**Argiratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** Nagusia Iñaki Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Saietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Eredakzia** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritu Barruso, Jasone Zubala, Mireia Bikúña, Arantza Ezkibel, Irati Agirrezaolegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarriko diseinua** Gólo Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martín, Txoso Berezibar, Aintzane Muruamendiarraz **Testu-en zezenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza** eta banaketa Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarin, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 05  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

#### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com



**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

OID erakundeak  
ikuskaratutako astekaria

LAGUNTZALEAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiako  
UdalaAretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

## Galtzeimer (XII) Amaren urtebetetze eguna

Mikel Iturria  
eibar.org/blogak/iturri

**G**oizeko 7:20 dira. Laster azalduko da ama gelatik eta nire buruari galdegit diot zer kristo egin behar dudan bera ikusterakoan. Argi dago zoriondu behar dudala/dugula, baina nola hartuko du gaizuak agur hori?

Anaiak hots egin zidan atzo arratsaldean. Gaurko eguna dela-eta, zerbait oparitu behar diogula amari esateko deitu zuen. "Aunkesea lore sorta bat edo landare bat". Senarra dagoen egoeran alboan duela lore sorta eramatea ez zitzaidan ondo iruditzen niri. Gaur goizean landarea oparituko diogula geratu ginen, beraz. Bilobak entregatuko dio 206 gelan. 206 gela idatzita dut eta ondo dago idatzita. Atzo goizean koltzoi bereziko ohe batera ekarri zuten atta (...).

Ondo baino hobeto ezagu-tzen dut gela, aurreko gelan pasa ditugun lau asteetan

gutxienez bi lagun hil baitira bertan. Ulertuko duzue, beraz, gela hau gehiegi ez maitatzea. Are gehiago gogoratzen dudanean hona ekarri zutela atta lehen delirioa izan zuen egunean. Egia da ere gure auzotar bat hiru astez egin dela bertan eta lerro hauet idazterakoan etxeen dagoela jada. Ikuksiko dugu, baina dagoen bezala ez dut uste asko iraungo duenik.

Hau da amaren urtebetetze-egunean kontatu nahi nuena. 23an, astearte, 41 urte beteko dira gurasoak ezkondu ziren egunetik (...). Etxean nago ordenagailuaren

## blog

plazara

Errepideko garraioaren grebak Euskal Herria eta Estatua gelarazizituen joanden ekainean. Espainiako Gobernuarekin negoziatu

ondoren, greba bertan behera geratu zen, baina gauzak ez dira bere onera itzuli; izan ere, garraiolari autonomoen egoera okertu

egin da, Hiru sindikatuaren esanetan. Euren ustez, erakundeek esku hartu eta kalitatezko garraioa bermatzen lagundu behar dute.

Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute \*


## Errepideko garraioa krisiaren aurrean

B erriro ere greba hotsak. Dagoeneko Espainiako garraiolari autonomoen elkartek grebarako deia iragarri du, aurki izango dela esan dute eta 90 eguneko epea eman dio Espainiako Gobernuari haritu beharreko neurriak hartzeko. Larria da Espainiako garraiolari autonomoen egoera, baita Euskal Herriko garraiolariena ere. Urteko lehenbiziko bost hilabeteetan sektoreko 200dik gora enpresa itxi egin dira, iaz baino %40 gehiago.

Garraiolari autonomoaren ohiko arazoari krisi ekonomikoaren eragina gehitu zaio, eta, gauzak horrela, egoera jasanezina bilakatu da profesional ugarien zatikat. Izan ere, gure ohiko jarduera ekonomikoaren gastuak biderkatu egin dira, eta aldi berean, nabarmen jaitsi da lana.

Aukera ezin hobea dute orain garraioko kamikazeek prezioak suntsitzeko: bezero batzuek ez dute kezkarik izango garraiolari autonomoari kostuaren azpitik ordaintzeko, ardurarik gabeko garraiolari batzuek ez dute kezkarik izango gainerako lankideek negoziazio latzaren bidez lortutako prezioak botatzeko, eta garraio agentzia gehienek garraiolari autonomoaren lepotik aberasten jarraituko dute. Garraioaren kamikaze horien guztien pago-txa da krisia, eta era berean kalitateko garraioaren amaiera izan daiteke.

Horregatik ezinbesteko da gure instituzioen esku hartzea, kamikazeen garraio ereduaren aurrean kalitateko garraioa bermatzeko. Euskal Herriko



MIKEL ARROIABE

garraiolari autonomo asko aspaldi bultzaten ari gara kalitateko garraio eredu hori: behar den bezala gidatzen duen garraiolariarena, zirkulazio arauak errespetatzen dituen garraiolariarena, behar denean atseden harzen duen garraiolariarena, bere kamioia zaintzen duen garraiolariarena, bere enpresa txikia ondo kudeatzen eta berritzen duen garraiolariarena, beste lankideekin batera hobeto aritzeko elkartek eta kooperatibak sortzen dituen garraiolariarena, bezeroaren presio jasanezinari aurre egiten dion garraiolariarena eta gizarte osoari behar bezalako zerbitzua eskaintzen dion garraiolariaren eredua.

**"Euskal Herriko garraiolari autonomo asko aspaldi bultzaten ari gara kalitateko garraio eredu bat"**

**"Autonomo gehienentzat gauzak okerrago daude, eta garraioaren kalitatea bermatzeko ez da neurri bat ere hartu"**

Kalitateko garraioa. Prezio zuzena duen garraioa. Hori da gure benetako erronka, eta krisi egoera honetan, are gehiago. Hori guztia ahaztu egin zuten iragan ekainean garraiolariak grebara deitu zituzten elkartek. Hiru sindikatuak babestu ez zuen garraioaren grebaren ostean, Espainiako Gobernuak sektoreari laguntzeko hainbat neurri iragarri zituen. Horietatik gehienak garraio enpresa handien mesederako neurri fiskalak izan dira, eta sektore honeitan nagusi diren garraiolari autonomo txikiak (kamioi bat edo bi dituztenak) alde batera utzi dituzte. Gasolioaren igoerari aurre egiteko formularen ezarpena garraiolariaren eta bezeroaren arteko negoziazio pribatuaren esparruan geratu da, eta horrenbestez, bakoitzak duen indarraren arabera, toki batzuetan gasolioaren igoerak trasladatzea lortuko da, eta gehienean ez...

Alegia, garraiolari autonomo gehienentzat gauzak lehen zeuden bezala edo okerrago daude, eta krisiaren aurrean garraioaren kalitatea bermatzeko neurri bat bera ere ez da hartu. Grebara deitu zuten elkartek garraiolariei iruzur egin zieten, eta krisi egoera baten atarian, sektorearen desmobilizazioa bultzatu zuten. Erantzukizun handia dute hurrengo hilabeteetan aurreko ekainean baino gorriagoak ikusiko dituzten garraiolarien aurrean.

\*Hiru, Euskal Herriko Garraiolari Autonomoen Sindikatuko bozeramailea.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Joan zara  
Donostiako  
Zinemaldira?

BAI	%16,7
EZ	%83,3

> BARDEMEN BILA

Asteburuan izan berri naiz Zinemaldian. Aitortu behar dut famatuaren bila joaten naizela. Aurten lortu dut Javier Bardem ikustea, baina ezin izan dut argazkiriak atera berarekin. Izaskun

> AKTORE OSPETSUAK

Ez dut zinemaldia gehiegi jarraitzen. Aktore ospetsu bat etorriko balitz, Denzel Washington adibidez, joango nintzateke alfonbra gorriaren ondora.

Christian

> EUSKAL ZINEMA

Ez daukat joateko asmorik. Iruditzen zait kanpoko zinema promozionatzeko feria bat dela, eta euskal zinema baztertxo baten geratzen da.

Antxon

> AUKERARIK EZ

Ez naiz sekula joan, eta aurten ere ez dut aukerarik izan. Ea aukera dudan egunen bat Donostiako Zinemaldia ezagutzeko... Jokin

DATORREN ASTEKO:  
Jantzik zara doto  
Maritxu Kajoirako?

Eman zure iritzia  
**www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Manex Agirre

## Non dago Marlowe?

Irail honetan zer egin dudan gura nuke aipatzea: Raymond Chandlerren *Ez Adiorik nobela irakurtza*.

Irakurketa ona izan da helburua dut kunplitu: nobela beltza izanagatik gauzak argi uzten ditu.

Askotan gauzak gaizki atera edo okertzen zaizkigu eta gero konpontzen hasteak beldurra ematen digu.

Esaten dugu: "Guztia gaizki dago, beraz, bego hala eta nik egin nahi ez dudana denborak egin dezala".

Eleberriko protagonistak Philip Marlowe du izena arazoaren erraietara joaten artista dena.

Ikasgaietan sobran gabiltza, baina baten alde nago: arazo gutxiago behar da ta Philip Marlowe gehiago.

## Zinegramak: 'Tiro en la cabeza'

Edu Mendibil  
goiena.net/blogak/edu

**A**usardia, gutxienez, aitorru behar zaoi Jaime Rosalesi (...). *Tiro en la cabeza*-rekin marka guztiak hautsi ditu planteamenduari dagokionez. ETaren gaiari heldu dio gainera, eta onik atera da. Inoiz ikusi dudan filmik ausartenetako da, elkarrizketarik ez

dagoelako. Etxean, lanean, lagunartean ikusten ditugu protagonistak, baina ez dakigu zertaz hitzegiten duten. Zaratak, zurrumurruak, trafikoa entzuten dugu bakarrik. Eta hitz bakarra film osoan: "Txakurrak!". Polemika ekarriko du filmak eta ikusleak uxatuko ditu ziurrenik. Ni kieto egin nintzen eserlekuan (...).

PS. Durante muchos años, los etarras cometieron crímenes. Ahora cometen crímenes absurdos. Cada uno de sus asesinatos lleva, además del dolor de siempre, el desaliento de los actos estériles. (Olvido. Enric González. *El País*. Irailak 23, 2009).

aurrean. Ama sartu egin da goizean gelara eta bi muxu eman dizkiot. Atta ez da enteratu.

Bihar, irailak 21, Alzheimerren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Idatzia dut jada attak beste dementzia mota bat duela, baina gaitz honen lehengusua dela. Berria egunkarian iaz azaldutako informazioan irakurri berri dut Afagi Elkarteak emandako datua: "Alzheimer gaitzak 5.500 familiari eragiten die egun Gipuzkoan. Eta hamar urteren buruan 11.000 inguru izan daitezkeela aurreikusten da". Kontutan hartzeko kopurua da.

## Ez gaitezen ohitu

**Pilar Etxaniz Kortabarria eta Jose Mari Iturbe Lezeta**  
(Antzuola Zutik-Ezker Batua/Berdeak-Aralar-en izenean)  
Antzuola

Spainiako Auzitegi Gorenak, F. Jose Hernando buru delarik, EHAK eta EAE legez kanpo uzteko erabakia hartu du, aurrelik Gestora eta Askatasuna-rekin egin zuen bezala, Estatuko abokatu eta fiskalaren eskaerei kasu eginez. Batasunari laguntza eta sostengu politiko-instituzionala ematea eta talde honekiko lotura finantza-rio-ekonomikoa leporatzen diete.

Albiste txarra. Beste behin, Gobernuak botere judiziala erabili du ezker abertzalearen zati handi baten eskubide zibil eta politikoak zapuztu eta erakunde politikoetik kango uzteko; berriro ere, erakunde judizialak interes alderdikoen morroi izan dira beren independentziaren kontra.

Albiste txarra euskal gizartearentzat, gaur atzo baino demokrazia ahalagoa dugulako eta giza eskubideetan atzerakada bat izan dugulako. Legez kanporatzearen bidea txarra da. Ideia politikoak adierazpide barik uztea gehiegikeria larria da, Estatua baita giza eskubide eta askatasunak bermatu behar dituen lehena, bere erakunde eta boteretik eratorritako lege eta ekintzak herritarrendako sinesgarri eta betegarriak izango badira.

Horrelako neurriak elkarbizitza eta bakearen kontrakoak dira, herritarren arteko liskarrak eta elkar-ulertezina areagotzen dituztelako. Alderdieng Legea bertan behera gerarazi behar dugu.

Lerro hauek bukatzean, eta Ondarroa eta Gasteizko ekintza bortitzentz ondoren, Luis Conde brigadari bizia kendu dion Santoñako atentatuaren berri izan dugu. Legez kanporatzeek ez dute justifikatzen politikaren ordez mehatxua eta bortizkeria erabiltzea, eskubide urraketa bat ezin da beste urraketa batekin konpondu. Bizitzeko eskubidea beste eskubide guztien oinarria da, baloratu eta errespetatu ezean edozein ideia eta helburu politiko perbertitu egiten da. Ez dago, baina, argudiorik erailketa hau ontzat emateko, ezta isilik geratzeko edo beste alde batera begiratzeko ere.

Euskal gizartea ezin da ohitu bere buruaren kontra doazen jokaera jasangaitz, krudel eta demokraziaren aurkako hauek normaltzat hartzen. Ezin gara ohitu ETAK jarri digun tunel makabro honen iluntasunera. Herritarrok ezin dugu itxaropena galdu, ETA geldiaraztea lortu behar dugu.

### Rafael Zeziaga gogoan

**Pilar Etxaniz Kortabarria eta Jose Mari Iturbe Lezeta**  
(Antzuola Zutik-Ezker Batua/Berdeak-Aralar-en izenean)  
Antzuola

Ezinbesteko horietako bat da Rafael Zeziaga. Atzerrira joan zen 1949an, 14 urte zuela, Arrasatetik Argentinara, aita Ricardorekin, Tatxo Amilibia-ren auto gidaria eta laguna. Bere aita hil da gero, harekin hazi eta iritsi zen helduarora.

Ezagutu nuen lehen momentik konturatu nintzen Tatxoren gandik jaso zuen heziketak eragina izan zuela. Gure liburua

*-Arrasate 1936, Belaunaldi Etena- irakurri zuenean, esan zidan gure aita-amen belaunaldia ez zela geratu etenda, ideia berberekin jarraitzen zuela, eta alabek ere bai, eta ilobari uzten zizkiola egindako botiletako mezuak, aitajaunaren pentsaeraren berri izan dezan.*

Harekin berba egin eta ematen zuen entzuten nuela Euskal Herrian askatasunaren alde dena eman zuten pertsona haien belaunaldia, bizia ere eman zutenak askatasunaren, berdintasunaren eta justizia sozialaren alde, eraiki nahi zuten gizarte berriaren zurtoinak: haien borrokaren bidez, 1931n, historiaren zaborrontzira bota zuten monarkia, egia esan ez zuten errekuperatu behar, eta Errepublika sozialaren alde borrokatu zuten 1934ko urrian, armen bidez defendatu zuten errepiblikar legezkotasuna, lurjabeen, burgesen eta elizako hierarkiaren zerbitzupoko matxinoen kontra; gerra galdu zuten, eta borrokan jarraitu zuten.

Ricardok Zeziagak, Tatxo Amilibiak, Celestino Uriartek eta beste hainbatet moduan, Alderdi Sozialista utzi zuten gerra bete-betean zela. Arrazoi askoren artean, arrazoiak bat izan zen euskaldunak zirela eta ez zutela onartzent Alderdi Sozialista batua 1937an eratu eta gero, Spainiarra izatea. Euzkadi Alderdi Komunistan sartu ziren.

Rafael ere euskalduna zen, maite zuen Argentina, han hazi baitzen, baina alabei esaten zien moduan Buenos Aires-en: "Ni ez naz hemengoa, ni arrasateko naz".

Arrasateko zen, Euskal Herriko, Argentinako, internazionalista zen, haren aita Ricardo bezalaxe, mundu desberdin bat lortzeko borroka

den bezalaxe, Rafailek ondo jakin izan du erakusten hori guzti bere mezuen bidez, botiletan sartuta.

Gose taldeak *Amets Gorria* kantuan ondo baino hobeto jasotzen duen moduan: Rafailek ez zuen jarri burdin hesirik bere memorian, ez zuen besarkatu kapitalismoaren ertzik, ez zuen nahi izan lepoko berdina zuen erregerik, ez zuen jan etsaiaren eskutik, eta oraindik ere jarraitzen zuen amets gorriak izaten.

Elkartasuneko besarkada handia Mercedes, Alejandra, Ramiro eta Leoni.

Egia da iaz elkarrizketetan egon ginela eta egitarau ofizialarekin batera presoen omenaldiko egitaraua atxikitzea onartu genuela, baina aurten ez. Gainera, ez gara elkarrizketa horietara gonditatu izan. Gugatik egin diren adierazpenak irakurrita sentimendu garratz batekin geratzen gara. Izan ere, jaiak aldarrikapen kolektibo bezala ulertzen ditugu, beti ere herritarren gehiengoaren sostengua lortu nahian zerbaiten alde borrokatzeko apustuarekin, eta ez zerbait edo norbaiten aurka.

## Gauzak argitu nahian

**Simon Martinez de Arriabe, Anton Elorza eta Agustin Zugasti**  
(Mondragon Taldeko kideak)  
Arrasate

Ondorengo lerro hauek Oñati Txosna Batzordeak Oñati Ezkerretik-i buruz egin dituen adierazpenei erantzun bat emateko idazten ditugu. Egindako adierazpen horietan, 2008ko San Migeletako jaien egitarauan presoei egiten zaien omenaldia ez sartzeagatik, Txosnek egin duten lana ez errespetatzea leporatzen zaigu. Guk argi utzi nahi dugu ez dugula erabaki horretan parte hartu.

Aurten presoen omenaldia jaietako egitarauan sartzeari buruzko elkarrizketak izan zituzten Oñati Txosna Batzordeak eta Udal Gobernuak (EAJ-EA). Elkarrizketa hauetan Txosna Batzordeak aditzera eman zuen omenaldia egitarau ofizialean sartu ezean, txosnek antolatutako beste ekintzak ere ez zirela bertan sartuko.

## ZUZENKETAK

### Amuska elkartea

Joan zen asteko GOIENKARIAn, Eskoriatzari eskainitako tartean, 34.orrian, albiste bat ez zen guztiz zuen argitaratu. Albisteak zioen, Amuska elkarteak Zaragozan izan direla bidaian, Eroski bidaia agentziari esker. Baina bidaia Iberia bidaia agentziari esker izan zen. Barkamenak esku nahi dizkiegu antolatzaileei eta bidaia agentziei.

### Arantzazun hildakoa

Azken Asteleheneko Goienkaria-n (irailaren 22a, 203. zenbakia) albiste bat ez zen zuen argitaratu. Azalean eta 4. orrialdean, irakurriteen: "Oñati emakume bat hil da auto batek harrapatuta". Hori oker zegoen. Arantzazun izandako istripu bat buruz Ertzaintzak bidalitako ohar batean oinarrituta zegoen berria, eta oharra oker zegoenez, hala argitaratu zen. Ertzaintzak, baina, bigarren ohar bat kaleratu zuen, baina albisteak ez zen zuzendu Asteleheneko Goienkaria-n. Hildakoa gizonezko bartzelonarra zen, eta ez emakume oñatiarra. Barkamena eskatzen dizuegut irakurlooi.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidalzea. GOIENKARIK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefona:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiniana.com



DVDA eta CDA.  
Dnbaka Musika Lehiaketako 2. edizioko  
**20 taldeen abestiak eta ikus-entzunezkoa.**  
Estrak, argazkiak, bideoak... Hiru orduko iraupena.  
**13 euro**  
**ESKAINTZA BEREZIA:**  
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunendako **10 euro**.

### Hemen salgai:

**ARRASATE:** Otarola lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.  
**BERGARA:** Barrenkalea 33. 943 25 05 05.  
**ELGETA:** Espaloia kafe antzokia: Maala 2. 943 78 90 85

**DAGOENEKO**  
**SALGAI**

**DANBAKA)))))**



## KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK\* **BABESA ASEGURATUA.**

Zuretarrak beti ongi estalita egotea pentsatzen duzun baino errazagoa da **Kutxa Bitzia Aseguruarekin\***. Zure egoera pertsonal eta ekonomikoetara egokitzen da. Eta konponbiderik egokiena da orain geroko kezkarik gabe bizitzeko.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

**Biharko**  
Vida y Pensiones  
Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.

\*Kutxa Bitzia-Asegurua, Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatua. Kutxa da Biharko Vida y Pensiones aseguru-etxearen banku-aseguruen operadore esklusiboa; honek baimena ematen dio hari Biharko aseguru-etxearekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro administratibo berezian inskribatua dago C0654G20336251 zenbakirekin.

# ASKA ZAITEZ



Ingurumenak arnasa hartu behar du.  
Eta guztiok lagundi dezakegu horretan  
autoa zentzuz erabiliz, autobusa edo trena  
hartuz, bizikletan edo oinez ibiliz.  
Aska zaitez autoaren morrontzatik.  
Zure mesedetan izango da eta ingurumena  
zainduko duzu.

*Mugikortasun iraunkorraren Europako astea*



ingurumena.net  
Gure esku dago

EUSKO JAURLARITZA  
INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA  
GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



# Herriak

Arrasate > 18-19 Bergara > 24-25 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE  
Maritxu Kajoiren bederatziurrena ospatuko dute gaur, barikua > 18



> ARETXABAleta  
'Joxetxiki'-ren gerrako bizipenak liburu baten jaso dituzte > 32



> OÑATI  
Joxan Larrañagak parroko kargua hartuko du etzi, domeka > 33



> LEINTZ GATZAGA  
Dorletako Amaren 50. urteurrenen gainean batzarra dute gaur > 39

ANTZUOLA > EGUNeko ZENTROA

## Martitzena ezkerro, zabalik dago Torresoroako eguneko zentro berria

### ZERBITZUA

Batez ere, 60 urtetik gorako pertsona ezinduei dago zuzenduta zentroa

### GARRAOA

Zentrora joateko eta arratsaldean etxera bueltatzeko garraioa egongo da

### JASONE ZABALA > ANTZUOLA

Martitzenan zabaldu zuten Antzuolako Torresoroa gizarte etxeo eguneko zentroa. Gizarte etxeak eskainiko dituen zerbitzuetatik zabaldu duten lehenengoa da hori.

### NORENDAKO ZERBITZUA DA?

Zerbitzu hori 60 urtetik gorako pertsona ezinduei dago zuzendua batez ere. Antzuolan horrelako zentro bat jartzeko beharra hone-laxe azaldu du Karmele Korta Udaleko Gizarte langileak: "Due-la urte batzuk hasi ginenean aztertzen herrian zeuden beharrak eta zein zerbitzu geneuzkan. Ikusi genuen salto handia zegoela etxeko etxeo zerbitzutik zaharren egoitza batera. Horregatik, eguneko zentroa martxan ipintzeko lanetan hasi ginene". Kortak adierazi du eguneko zentroaren helburua herriaren beharrei erantzutea dela eta, batez ere, hara joaten diren pertsonei ahalik eta zerbitzurik oneña eskaintzea. Horretarako, zerbitzu ezberdinak dituzte: bazkaria, merienda, bainua eta askotariko ekintza fisikoak. Eskaintza horren ordutegia mal-gua izango da: 09:00etatik 18:00ak arte. Garraio zerbitzua – goizean zentrora joateko eta arratsaldean etxera itzultzeko– ere egongo da.

### KUDEAKETA

Zentroaren kudeaketa Eulen enpresaren esku egongo da. Ber-tako arduradun Bea Gelbenzu izango da. Hark azaldu digu ber-tan zenbat pertsonak egingo duten



Irudian, ezkerretik hasita, Ezozi Alberdi, osasun laguntzailea; Mamen Jauregi, Osasun eta Gizarte batzordeburua; Korta teknikaria eta Gelbenzu arduraduna. JASONE ZABALA

lan: "Hasiera batean bost profesional egongo dira: osasun-laguntzaile bat. Hark bertara joaten diren pertsonei laguntzen die baita garraio zerbitzuan joan-eten-ria egiten dutenei ere; baita

sukaldari eta garbitzaile lanak egingo dituen beste pertsona bat; fisioterapeuta bat ere egongo da, eta baita monitore soziokultural bat: goizean zehar ariketa ezberdinak egingo ditu bertakoekin.

Azkenik, nik, psikologo moduan, bertan dagoen pertsona bakoi-tzak ematen dituen aurrerapau-suak ebaluatuko ditut". Eguneko zentroak hainbat txoko ezberdin ditu: alde batetik, areto nagusi bat

dago: "Horrek jangela funtzioa egiten du, eta ekintzak egiteko mahai eta aulkia batzuk ere badaude", adierazi digu Kortak; baita atsedenerako txoko bat; horretaz gain, gela bat moldatu da han ekintza fisikoak egiteko; bainugela normalak eta geriatrikoak ere eskaintzen dira bertara joaten diren pertsonendako. Eguneko zentro horretan 12 pertsonarendako dago tokia momentuz, nahiz eta "etorkizunean eskaria egonez gero handi daiteke", adierazi digu Kortak. Momentuz, sei pertsona joaten dira zentro berrira.

Herritarrengandik jasotako erantzunaz, hau dio Kortak: "Pozik gaude hasierako harrera-rekin; edozein herritarrek izango du aukera zerbitzu norberaren beharretara egokitzen den edo ez ikusteko". Horretarako, herritarrek zerbitzuok ezagutu ahal izateko ateak zabalduko dituzte urriaren 10ean, 18:00etatik 20:00etara, eta urriaren 11n eta 12an, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

### Torresoroa egoitzari azken ukituak ematen ari dira

Lanak orain arte bezala baldin badoaz, urriaren 13an Torresoroa egoitzaren inaugurazio ekitaldia egingo dute. Egun horretan zabalduko dituzte babespeko etxebizitzak eta erretiratuen elkartearren egoitza ere. Osasun eta Gizarte Ongizateko batzordeburua Mamen Jauregiren arabera, "lanei azken ukitua falta zaie. Azken momentuetan beti gertatzen da aurreikusita ez zegoen zerbait, baina lanak ondo doaz eta inauguazio egunerako amaituko dira".



Torresoroa gizarte etxe berrian dago eguneko zentroa.

J.Z.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatua, 27	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 28	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Astelehenet, 29	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Martitzena, 30	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguaztena, 1	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 2	Azkoaga	Iturriozt, 17	943 79 79 99
Egubakoitz, 3	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26

**BERGARA**

Zapatua, 27	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 28	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehenet, 29	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 30	Urritikotxeta	Oxitondo, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 1	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 2	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitz, 3	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63

**ONATI**

Zapatua, 27	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 28	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehenet, 29	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 30	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 1	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 2	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitz, 3	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

**ARETXABAleta**

Zapatua, 27	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 28	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehenet, 29	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 30	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 1	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 2	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 3	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEza.

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak .....	943 78 28 00
Ertaizantza .....	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasteko ospitala .....	943 03 53 00
Antzuola .....	943 76 62 23
Aramai .....	945 44 53 40
Aretxabaleta .....	943 71 19 59
Bergara .....	943 03 54 00
Elgeta .....	943 03 54 00
Eskoriatza .....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Oñati .....	943 03 54 30
Udalzainoak .....	
Antzuola .....	943 76 62 46
Arrasate .....	943 79 14 39
Aretxabaleta .....	943 71 18 63
Bergara .....	943 77 91 06
Eskoriatza .....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Oñati .....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate .....	943 79 12 22
Aramai .....	945 44 50 33
Aretxabaleta .....	943 77 12 64
Bergara .....	943 79 12 22
Eskoriatza .....	943 71 40 59
Oñati .....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera .....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa .....	943 76 58 63
Hondakidegi alternatiboak	
Arrasate .....	943 77 11 43
Bergara .....	943 76 44 42
Oñati .....	943 78 36 67
Kiroldegiaik	
Aramai .....	945 44 53 35
Arrasate .....	943 76 16 77
Aretxabaleta .....	943 71 26 28
Bergara .....	943 76 56 41
Elgeta .....	943 76 82 84
Eskoriatza .....	943 71 53 28
Oñati .....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola .....	943 76 60 65
Aramai .....	945 44 53 74
Arrasate .....	943 77 01 05
Aretxabaleta .....	943 71 10 27
Bergara .....	943 77 91 58
Eskoriatza .....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Oñati .....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola .....	943 76 62 46
Aramai .....	945 44 50 16
Arrasate .....	943 79 09 00
Aretxabaleta .....	943 71 18 62
Bergara .....	943 77 91 00
Elgeta .....	943 76 80 22
Eskoriatza .....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Oñati .....	943 78 04 11

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguina B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legaria, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Onerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguina A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguina A eta Gorostiza.	

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguina A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguina A eta Gorostiza.	

**BERGARA**

San Lorentzo/San Juandik irteerak	





<tbl\_r cells

## kale inuesta

### Oñatiko jaietan zein da gustukoen duzun eguna?



Eider Fernandez  
Ikaslea  
Oñati



Paula Ugarte  
Ikaslea  
Oñati



Nagore Uribarri  
Ikaslea  
Oñati



Josune Puga  
Ikaslea  
Oñati



Irati Madina  
Ikaslea  
Oñati

Ondo pasatzen dut Oñatiko jaietan; baina bereziki Errosaixo Bixamon eguna gustatzen zait, mozorrotu egiten gara- eta. Aurten lagun guztiok batera mozorrotuta irtengo gara kalera.

Mozorro egunean ondo ibiltzen naiz. Ni gurasoekin eta euren lagunekin mozorrotuko naiz. Bestalde, barraketan ibiltzea gustatzen zait lagunekin, eta bidaia asko egiten ditu matxinsaltoan.

Herri Egunean baserritar janzten naiz, baina batez ere mozorro eguna gustatzen zait. Dena den, jai egitarauan dauden beste ekitaldi batzuetan parte hartzen dut. Barraketan ere ibiliko naiz.

Niri, gehien Errosaixo Bixamon eguna gustatzen zait. Jeneralean, gurasoekin eta koadrila osoarekin mozorrotzen gara. Bestalde, domekan, Txantxikuaren jaitsiera ikustera joango gara.

Egun guztiak dira politak, baina mozorro egunean pasatzen dut ondoren. Gurasoekin mozorrotuko naiz, baina kalean lagunekin ibiliko naiz. Barraketan, matxinsaltoan ibiliko naiz.

## txistuak



IMANOL SORIANO

### Zer egiten dute kartoiekurrean?



Bergarako irakurle batek bidali digu aste honetako kexa. Egunero ikusten du herriko kaleetan, birziklatzeko ontzien ondoan, lekuz kanpo dagoen kartoia pila bat. Batzuetan pilatzen den kartoia kopurua handia da, eta jendeak errazena egiten du, kartoia apurtu gabe ontzi ondoan utzi. Ea bakoitzak dagokion ontzian sartzen dituen kartoiaik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

32

Foru Aldundiak suhiltzaileendako 60 plaza ateratzen. Gaur egun Gipuzkoan 199 suhiltzaile daude. Asteon hasi diren probetara 1.425 pertsona aurkeztu dira, eta horietatik 32 emakumeak izan dira. 2007an Gipuzkoako suhiltzaileek 2.020 intzidentzia izan zituzten.

Hemendik aurrera antzerkia ikusteko edo kontzertuez gozatzeko aukera egongo da Zabalotegi. Kultura arduradunak eskaintza anitza ekartzen saiatu beharko dira orain eta herritarrek eserlekuak erosoak diren edo ez, behintzat, probatu beharko du.

Denborak esango du jendeak Zabalotegirako bidea egiten ikasten duen edo ez, baina ikuskizunendako aretoa egotea inoiz ez dago soberan, ezta kultura krisian egonda ere.

## 5 galdera...

### Espe Arriaran

Elkar liburu dendakoa Arrasate

#### 1. Zeintzuk dira ikasturte hasieran gehien eska- tzen dizkizueten liburuak?

Denetariko testu liburuak, argitaletxe guztietatik eta materia guztietatik: matematika, geografia, fisika... Hizkuntzetakoak –frantsesa eta ingelesa– ere bai. Baita ere saltzen dira hiztegiak, atlasak, ikasturteko agendak... Nahiz eta ikasturte hasieran gai horiek izan salmentan pisu handien dutenak, urtean zehar, narratiba, berrikuntzak eta beste ere saltzen jarraitzen dira.

#### 2. Zein ikasturteetik zein ikasturteetara bitarte- ko liburuak saltzen dituzue?

Eskolaurrekoetatik batxilergora bitartekoak, eta Lehen Hezkuntzakoak (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak (DBH) dira nabarmen gehien saltzen direnak. Testu unibertsitarioak enkarguz ekartzen ditugu, baina ez askorik.

#### 3. Urtetik urtera ikasleek behar dituzten liburuak gehiago dira?

Urte batetik bestera ez da aldaketa nabarmenik izan, antzeko liburu kopurua darabilte; berriagoak edo aldatuagoak, baina materia berdina. Ikasketa mailari dagokionez, normala denez, maila igotzean liburuak ere gehiago eta sendagoak dira. Curriculum berria sartzen bada, hori alda daiteke.

#### 4. Zein izaten da batez besteko prezioa ikasturteko liburuetan?

Eskolaurrean, 60 euro inguru; LHkoetan, batez beste, 145; DBHkoetan, 180; eta batxilergokoetan, 220 euro. Kopuru hau testuliburuena da; hiztegiak eta atlasak ez dira horren barnean sartzen.

#### 5. Jasotzen dituzuen eskaerak urtetik urte- ra gehiago izaten dira?

Aurtengo hau da gure bigarren ikasturtea; beraz, ibilbide luzeik ez dugu. Hala ere, aurten iaz baino eskaera gehiago



OSPAKIZUNAK &gt; MARITXU KAJOI 2008

# Gaurtik aurrera salgai daude eskapularioak

Maritxu Komisiñue buru-belarri dabil txikiteroen zaindariaren omenezko jai dotorea antolatzen; krisia krisi, aurten ere miraria izango dela ziurtatu dute

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Gaurko Nobenaixuko ekitaldiak iragartzen dute badatorrela Maritxu Kajoi 2008 edo *mkj 08*. Jaia antolatzen duen Komisiñuek dio "iaia gertu" dutela egun dotore horretarako egitarau osoa, abuztuaren bukaera-irailaren hasieratik dabilta-eta antolaketa lanetan. Jakina, lanik handiena, edo behintzat buruhausterik handiena txikiteroen zaindariak urtero egiten duen miraria lantzeak ematen diela kontatu dute; baina, krisia egon arren, Ama Birjinak aurten ere bere mirari partikularra egingo duela ziurtatu dute.

Osterantzean, "eskapularioa janztea" garrantzitsua dela gogora ekarri eta herritarrei eta kanpotarrei ondo pasatzeko mezua helarazi gura die Komisiñuek.

**ESKAPULARIOAK**

Eskapularioaren harira, gaurtik (egubakoitz) aurrera herriko tabernetan erosi ahal izango dira

(2 euro). Eta berandutzen zaionak, berriz, Maritxu egunean bertan izango du horretarako aukera: "Parrokan, Arbolapetan eta Monten salduko ditugu, eguerdi eta

**Egitaraua****26, egubakoitz**

18:30 Ardoa eta gazta banatuko dute, Maritxupean

20:00 Enbutu banaketa: dantza taldeen sortzaileei

**3, egubakoitz**

20:30 Urteko parrandak eskertu eta datorren urtien danok egon gaitzeen eskaketako, Maritxuri lore eskaintza

00:00 Dantzaldi paregabeie Herriko Plazan Jo ta Hanka taldien eskutik. Ordu berien eta txosnetan, Neguri Gorriak taldie


03:00 Rock konzertua  
Gesalibarren: Harrikada eta Bruce Zipritzik

arratsaldean. Bigarren urtea da eguerdian ere salduko duguna; iaz hasi ginen, ikusita jaia eguerdi-rra arte zabaldu dela. Emaitzarekin gustura geratu ginen eta aurten ere eguerdi zein iluntzean, bie- tan salduko ditugu".

Bestalde, aurtengo jaia iragartzen duen kartela ere gaur hasiko gara ikusten kale eta tabernatan. Maialen Egues arrasatear-rrak egindakoa da.

**DANTZA TALDEKO SORTZALEAK**

Egitarauarri dagokionez, gaurko egunari begiratuta, 18:30ean hasiko dira Nobenaixuko ekitaldiak: "Maritxu Kajoi azpian, umore onaren truke, musu-truk, Arabako errioxar ardoa eta gazta herri-tarren artean banatuko du Komisiñuek". Eta gero, 20:00etan Komisiñuen "inbutu preziatuak" entregatuko dituzte. Aurten hiru lagun omendu behar dituzte: Marga Merkader eta Itziar eta Xeli Arregi, Arrasateko euskal dantza



Maialen Egues arrasatearrak landu du aurtengo kartela.

GOIENKARIA

**LORE ESKAITZA ETA KONTZERTUA**

Maritxu Egunari berari dagokionez, berriz, besteak beste, 20:30ean lore eskaintza egingo diote Maritxu Kajoiri, Astondoaren su artifizialen indarrak lagunduta, eta 00:00etan, Neguri Gorriak musika taldeak kontzertua egingo du, Monterrongo txosnan.

## *Debagoieneko eskaintzarik zabalena*

### **NEURRI HANDIETAN ESPEZIALISTAK**

**48 eta 64 bitarteko  
neurriak aukeran**



*Udazken - Negua 2008*

*Elena*

Bizkaia Etorbidea 1

ARRASATE

Tel.: 943 77 14 24



Bestak beste,  
aurreikusi dute bost  
eraikin berri egin ahal  
izango direla gunean

Oinezkoendako  
pasealeku ere  
aurreikusi dute,  
errekaren albotik

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Intxausti gunea ordenatzeko plan  
berezia onartu du asteon Tokiko  
Gobernu Batzarra; BM super-  
merkatuaren ostetik Takolo edo  
Lanaren pabiloira artean dagoen  
inguru hura ordenatu gura  
dute, hain zuzen ere.

Hainbat esparru landu ditutte  
plan horretan: batetik, gaur  
egun dauden eraikinekin zer egingo  
dut; eta bestetik, eraikin  
berriak eraikitzeko baldintzak  
zeintzuk diren. Horrekin batera,  
aparkaleku eta bestelako azpiegiturak  
kontuan hartu dituzte, eta  
baita oinezkoendako sarbide,  
pasealeku eta bidegorriak ere.

**ERAIKINAK ZELA**  
Eraikinei dagokienez, dagoenean  
geratuko dira lehen Uribesalago  
izenetako zeukan lantegia, Lana

**OBRAK > INTXAUSTI GUNEA**

## Intxausti gunea ordenatzeko plan berezia onartu dute asteon



BM supermerkatuaren ostetik Takoloko biribilgunerainoko zatia hartzen du Intxausti izeneko guneak.

U.M.

lantegiaren pabiloia eta Urzu izeneko eraikina (Umezaintza parekoa). Azken hori hutsik dago, baina etorkizunean ondoko eskalakoek erabiltzeko izango da.

Hango etxea ere dagoeneta utzik dute. Horrekin batera, planean zehaztu dute bost eraikin berri egin ahal izango direla Intxausti gunean; eta eraikin


berrien baldintzak ere onartu dituzte. Haientzat, besteak beste, lau eraikin industria erabilerrako izan beharko dira eta bosgarrena zerbitzuetarako.

**GIZARTEA > HERIOTZA-OHARRA**

## Rafael Zeziaga astean hil da, erbestean, Buenos Airesen

**U.M. > ARRASATE**  
Martitzen gauean Rafael Zeziaga (Arrasate, 1935) –Ricardo Zeziagaren semea– hil zen erbestean. 14 urte zituena joan zen Arrasatetik Argentinara, aitarekin, exiliatuta. Izan ere, Ricardo Zeziagak 1934ko urriko iraultzan parte hartu zuen, Guillermo Lasagabaster *Malatxetxe*-rekin batera, Arrasate eta Eibarren artean lotura lanak eginez. Hala, 1936ko garaipen frantsista izan eta bost urteratik, Argentinara joan ziren.

Erbestean, Rafael Zeziagak beti izan zuen gogoan jaioterra; horren erakusle dira bere eskulanak: botiletan sartzen zituen Arrasateko eraikin esanguratsuen maketatxoak. Batzuk ikusi ahal



Rafael Zeziaga, 2006an.

GOIENKARIA

izan genituen Arrasaten, 2006an Intxorta Kultur Taldeak 34ko iraultza goraiapatzeko erakusketa partea hartu zuen-eta, eskulanekin.

**POLITIKA > PSE-EE ETA PP**

## Itziar Lamaraineak gezurtatu egin ditu PSEren salaketak

PSEk kritikatu du PPk  
onartu izana Udalak  
parte hartuko duela  
Talde Mistoaren auzian

**U.M. > ARRASATE**  
Gipuzkoako PSE-EEk gogor kritikatu du Arrasateko udalbatzarrak azken osokoan hartzuen erabakietako bat: Talde Mistoaren sorreraren harira Estatuko abokatuak ipinitako errektursoan parte hartzea. Bereziki, Itziar Lamarain popularraren jarrera kritikatu dute. Besteak beste, diote haren abstentzioarekin *mozio etikoak* aurrera ez egitea lortu zuela eta orain bat

egiten duela EAE-ANVrek, Arrasateko Udalak diligentziatan ager dadin.

**LAMARAINEN ERANTZUNA**  
Bada, gogor erantzun die Lamaraineak kritikei, "gezurra" direla esanez: "Itziar Lamaraineak *mozio etikoak* emandako botoa ez zen izan hura aurrera ez ate-razteko arrazoia", dio. Talde Mistoaren sorreraren harira, berriz, Lamaraineak gogora ekarri die puntu horri kontrako botoa eman ziola, sozialistak egon ez ziren osoko batean, maiatzean. Gaineratu du diligentziariak baldin badago, Udalak agertzearen aldekoa dela, gai hori epaitegieta argitu beharko delako.

**> NEKAZARITZA  
Nekazaritza  
bioidinamikoaren  
gaineke ikastaroa**

Datozen hiru zapatutan (urriaren 4, 11 eta 25) nekazaritza bioidinamikoa lantzeko eskolak izango dira Udalauko auzoan, 09:00etik 13:00ak bitartean. Ikastaroan izena emateko: 943 69 21 66.

**> GAZTEAK  
Larunblairekin  
taillerrak izango dira,  
Musakola auzoan**


Txatxilipurdiko Larunblairekin egitasmoak lagunak Musakola San Antolin eskola aurrean izango dira bihar, zapatua, 11:30etik 13:30ak bitartean. Muralak egingo dituzte neska-mutikoekin.



Aste bukaeretan logelak 50 €-tan, gosaria barne.



Terraza • Barra • Menu bereziak • Karta  
Errazioak • Bokatak  
Ezkontza, despedida eta kintoen  
bazkariantzat leku aproposa.



Uribarri 37 (Udal bidean) • Tel.: 943 79 49 39 • Arrasate

**APARKALEKU ETA PASEALEKUAK**  
Azpiegiturei dagokienez, berriz, pabiloi berriak eraikitzen doaz neurrian, aparkaleku berriak ere eraiki beharko dituztela aurreikusi dute Intxaustiko plan berezian, legeak zehazten duen moduan, 100 metro koadroko bi plaza. Gunean izango diren beharrak asetzeko beste aparkaleku eraiki beharko dituzte. Horietako batzuk pabiloi berrien barruan egongo lirateke eta beste batzuk kanpoan.

**ERREPIDE BERRI BI**

Aparkalekuez gainera, gune hartarako sarbideak egokitutu beharra ere aurreikusi dute. Adibidez, barruko aldean bi noranzko izango dituen errepide berria eraiki dute, Intxausti kalearen luze-pen modura; eta bigarren errepide bat ere bai, kasu horretan, noranzko bakarreko, pabiloietara ailegatzeko.

Oinezkoendako, berriz, pasealeku bat eraikiko dute, errekanren albotik joango dena; pasealeku berri hori lotuko dute Zerrajeratik datorrenarekin, Eskatu aurreko aldetik pasatuko da eta trenbide zaharraren Zubia zeharkatu eta gero, errekanren albotik segituko du. Hain justu ere, pasealeku hori bidegorri moduan erabiltzeko ere egokituko dute, bizikletan ibiltzeko aukera bermatzeko asmoarekin.



Musika eskaintza ezberdina dakin Secret Chiefs 3 taldeak. GOIENKARIA

KONTZERTUA &gt; SECRET CHIEFS 3

## Ezohiko kontzertu baten lekuko izango da Amaia bihar

Goi mailako musika instrumentalaz gozatu ahalko da AEBetako Secret Chiefs 3-rekin

J.B. &gt; ARRASATE

Nazioartean musika instrumentalaz barruan talderik elektrikoen eta abangoardistena da zapatuan (20:00) Amaia antzokiko taulara igoko den taldea.

Secret Chiefs 3 talde estatubatuarras ari gara, eta goi mailako musikariak direla ezin uka tu, egingo duten biran Estatuan lau emanaldi bakarrik eskainiko dituzte eta. Arrasaten egote az gain, Bartzelona, Madril eta Porton ere izango dira.

TREY SPRUANCE ZUZENDARI

Secret Chiefs 3 –edo SC3– proiektua Trey Spruance musikari famatuak zuzentzen du. Mr Bungle eta Faith No More talde entzutetsuetan izan zen urtean zehar, gitarra jole. Egun hainbat instrumentu jotzeko gai da.

Spruancek 1990eko hamarkadaren erdialdean abiatu zuen SC3 proiektua, Mr Bungle taldeko kide batzuen eta Trevor Dunn baxu jolearen eta Danny Heifetz bateria jolearen laguntzaz. Bira honetan, baina, azken biak ez dira izango.

Hamaika estilo jorratzen ditu SC3k: batetik, surf-rocka, death metala, elektronikoa eta zinemako musika; eta, bestetik, musika persiarra, arabiarra eta indiarra uztartzen dituzte.

TXATXILIPURDI &gt; NATURARTEA

## Natura eta sorkuntza uztartuko dituen aisialdi espazio bat sortu gura dute

Txatxilipurdik 2010ean jarriko du martxan Garaion Naturartea ekimena; ikasturte honetan, zerbitzua eskaintzeko lantaldea sortuko du

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Txatxilipurdik elkarrean bultzatuta, Garaion Naturartea proiektu berriak laster emango du lehen urratsa. Natura eta sorkuntza uztartuko dituen aisialdi espazio bat sortzea da helburua, 2010ean martxan jartzea espero dutena.

Proiektua Garaio (Araba) inguruak kokatuko dute, eta han, natura eta artea eskutik helduta joango liratekeen aisialdi zerbitzu bat eskaini gura dute. Hortik dator izena, hain zuzen: Garaion Naturartea.

LANTALDEA SORTZEN

Zerbitzu hori eskaini ahal izateko, baina, lantalde bat sortu beharra dago. Eta hutsetik eratu nahi den lantaldea kualifikatua izan dadin, *Natur eta sorkuntza dinamizatzale tailer eskola* deritzon ikastaroa antolatu dute.

Ikastaroak urtebete iraungo du, 2008ko azorotik 2009ko azarra, eta guztira 12 pertsonak izango dute ikastaroan parte hartzeko aukera. Hau da, lantalde horretan sartzeko interesa dutenen artean hautaketa prozesu bat egongo da.

IKASTAROAREN EZAU GARRIAK

Garaion Naturartea proiektua ez da Arrasatera bakarrik mugatuko, Debagoieneko edozein aurkezta daiteke.

Edukiari dagokionez, tailer eskolak kultura, aisialdi eta turismo jardueretan natura eta sorkuntza ekintzak lantzeko heziketa teoriko eta praktikoa eskainiko du. Egutegi zehatza, beste alde batetik, honako hau da: 2008ko azaroaren 1etik 2009ko urriaren 31ra, eta astelehenetik egubakoitzera, egunero zortzi orduko lanaldia eginda.


Ikastaroa Ozetako (Araba, Agurainetik gertu) Otazako etxearen emango da eta INEMen laguntzari esker, 12 parte hartzaileek lan kontratua izango dute. Lansaria 900 euro izango da hilero, 12 hilabetetan zehar. Proiektu horretan parte hartzea nahi duenak, edo ikastaroaren inguruak informazio gehiago nahi duenak hona egin beharrekoak: 627 119 096 (Amaia) edota 637 050 146 (Elena) telefonoetara deitu edo *garaion-naturartea@gmail.com* helbidera bidali curriculuma, urriaren 2a baino lehen.

'CELESTINO URIARTE'

## Liburuaren erdarazko edizioa ater du Garaik

J.B. > ARRASATE  
*Celestino Uriarte, Klandestinitatea eta Erresistentzia Komunista liburuaren erdarazko edizioa ater du Juan Ramon Garaik, eta urriaren 2an aurkeztuko du Kulturaten, 19:00etan.*

**100 ORRIALDE GEHIAGO**  
Erdarazko liburuak hainbat berritasun ditu: borroka klandestinoan buru izan ziren lau gipuzkoarren azken egunak hizpide duen kapitulu berri bat, Uriarteren torturatzalea zein izan zen azaltzen duten 15 orrialde, protagonistaren hil aurreko pentsaera politiko... Erdarazko liburuak 400 orrialde inguru ditu, euskarazkoak baino 100 gehiago.



Erdarazko edizioaren azala.

**AGR**  
LEHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK  
Garcia Rípa  
ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA  
Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 beheha (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**KONTRATAK IRVROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK  
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**kapikua**  
OPARIAK ETA OSAGARRIAK  
Bañez doktorea 4  
(San Andres auzoan)  
Arrasate  
Tel.: 943 79 19 94

**UGARTE**  
AROZTEGIA-ALTZARIAK  
K21  
Arotz lanak orokorrean  
• Horma armairuak  
• Altzariak • Leihoa • Ateak  
ALTZARI DENDA  
Ikerlek zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30  
ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

**MEHER**  
Maritxutarako  
eskaintza zabala  
arropa eta  
osagarietan.  
Bañez doktorea 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 85

**PUB HAIZEA**  
OLMO  
arrasate

Zure ametsetako  
taritxrajea dugu...  
der galant hori.  
turri  
ahi bade  
turri  
rdotxo txu  
dango a  
degun guz  
Maritxu Kajoi 2008  
31 urte

Casa Ceciaga

Aurten ere  
festarako ehunka soineko eta traje  
eta milaka osagarri ditugu  
zure gaurik gogokoenerako

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3  
ARRASATE  
Tel/Faxa: 943 79 12 62

HUMANITY AT WORK MONDRAGON

ikasi egingo duzu

INGELESA, EUSKERA,  
FRANTSESA, ALEMANA, TXINERA.

palabrahitza word

eskolak:  
**ESKORIATZA-ARAMAIO  
ARETXABAleta-ARRASATE-OÑATI**

MONDRAGON LINGUA

ARRASATE-MONDRAGON  
Avda. Alava, 4  
943 71 20 55

OÑATI-OÑATE  
Olakua, 14  
943 71 60 00

BILBO-BILBAO  
Buenos Aires, 7  
946 61 34 67

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN  
Zubieta, 26  
943 43 31 02

VITORIA-GASTEIZ  
Florida, 8-A  
945 15 01 55

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikasle bazaar  
% 25 deskontua  
AURREZ AURREKO ESKOLETAN

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan.

ESKOLA ERAGINKORRAK, NAHIERAKO ESKOLAK

MAILA GUZTIAK, ADIN GUZTIETARAKO

# San Migelak 2008

## Garagartzako jaiak Arrasate

### Irailaren 26an, Barikue edo Eguakotza

19:30 Jaixen hasierie, ikurriñe igo e ta e txaflero jaurtiketie .  
 19:30 – 22:00 Trik itilarixe k ib iliko d ie kale jiran  
 22:00 Dantzaldixe IÑIGOREkin.

### Irailaren 27an, Zapatue

11:30 Garagartzako Leze-Txiki e k ipoko gazte txoenen artien partidue  
 12:00 Meza auzo ko h ildako en ald e  
 12:00 – 14:00 KULKI: arrantzale en jo ko e ta jo lasen jaixe  
 16:00 – 18:30 Garagartzako V. Kobate Open futbol partiduek (umiendako)  
 18:30 – 20:30 Go rriti e ta b e re anim aliak  
 22:00 Dantzaldixe KOLDOREkin  
 23:00 Su-artifizialak.

### Irailaren 30ean, DOMEKA

10:00-13:00 Globo aerostatikoa, soka-globo. Garagartzza airetik ikusteko aukera ederra  
 Babeslea: Inmobiliaria Anboto  
 12:00 Meza nagusixe  
 13:00 Tx ik itxu tald iaz euskal dantzak.  
 14:00 – 14:30 Musika apur bat, TXINPARTA taldiaz  
 14:30 Auzo bazkaixe  
 Bazkalostien e rromerixie , TXINPARTA taldiaz

### Irailaren 29an, Astelehena

19:00 Meza samigelen o roimenez  
 Meza ondoren luntxa egongo da auzoe txien

**BARIKUEN ETA ZAPATUEN BUZKENTZAK EGONGO DIE  
ATSALDEKO ZAZPIRETATIK AURRERA, AUZOETXIEI**



*Ondo pasau Garagartzako jaixetan*

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartzza auzoa.



**Belun**  
Garagartzza auzoa Tel.: 943 79 61 14

**UGARAN**

Jatetxea

ARRETA HANDIKO  
SUKALDEA  
GIRO  
ABEGIKORRA

**Garagartzza auzoa**  
**943 79 76 58**  
**ARRASATE**



**Arteaga**  
Landetxea

Arteaga baserria,  
Garagartzza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel. 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82

bote-prontuen

Anuska Valor > Bed's koltxoi dendakoa

## "Gehien saltzen den koltxoia konbinatua da"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Anuska Valor arrasatearrak zazpi urte daramatzatza Bed's koltxoi dendan lanean. Gustuko du lana, eta "jendearekin duen tratua" da gehien gustatzen zaiona; txarrena, berriz, ordutegia, "lotua" delako. Harekin hitz egin dugu, besteak beste, atsedenaz eta koltxoien munduan dagoen modaz.

Koltxoietan eta edredoietaan badaude arropetan eta oinetakoetan moduan moda kontuak?

Bai, hemen ere moda kontuak daude. Orain oso modan dago biskoelastikoa. Baina jendeak ez daki guziak imitazio hutsak direla; benetako tenpurra da. Hori koka-kola bezala da, inork ez daki formula sekretua!

Mota askotako koltxoia daude? Zein da jendeak gehien eskatzen duena?

Mota askotako koltxoia daude, eta denetarik saltzen da, baina jendea erosen sentitzen den koltxoia eta salduena dena konbinatua da, dudarik gabe; konbinatuak bi gauzaren arteko darama: malgukia eta egoki daitekeen materialaren artekoa, hain zuzen ere.

Koltxoi batean noren ondoan hartuko zenuke atseden momentu bat?

Ez daukat inongo famaturen ondoan atseden hartzeko beharrik; senarraren ondoan gustura asko hartuko nuke.



Bada atsedenerako koltxoia baino leku aproposagorik?

Leku aproposak asko daude, baina ez dago koltxoia baino hobea den ezer. Atsedena lasai-lasai hartu nahi duena koltxoi batean beste inon baino hobeto egongo da, ziur!

Atsedena osasuna da. Koltxoi bateko atsedena merkeea ala garestia da?

Gaur egun eta gauden krisialdi garaia kontuan hartuta, inork ez du ezer ematen debalde, nahiz eta leku batuetan halaxe dirudien. Denda espezializatu batean erosten bada koltxoia, prezio-kalitatea ziurtaturik dago, eta badakizu hor ez dizutela iruzurrik egingo.

Krisi garaian gaudela aipatu duzunez, nabaritu duzue egoera hori saltzeko garaian? Noiz saltzen da gehiago?

Krisia dagoela nabaritzen da, baina koltxoi bat erosteko jendeak ez dio horri begiratzen. Ez dago garai konkretu bat koltxoietarako, urte guztian antzera saltzen dira. Lumazko edredoak, adibidez, hotz garaian saltzen dira gehiago. Orain arte edredoi finagoak saldu dira.

Edredoi nordikoak eta estalkiak ere saltzen dituzue. Negu-udazkenerako zeintzuk dira datozen koloreak?

Kolore guztiakoa daude, baina urtero-urtero kolore batzuk besteak baino gehiago daude modan. Aurten, beltzak, grisak eta zilar etaurre koloreak.

Zein izan da bezero batek eskatu dizun gauza arraroena?

Orain arte ez dut izan inongo eskaera arrarorik. Jendeak badaki zer saltzen dugun eta horren bila etortzen da.

JAIAK

## Globoa, Garagartzan jaietan

UBANE MADERA > ARRASATE

San Migel jaien harira, egitarau zabala prestatu dute astelehenera bitartean garagartzarrek. Ohiko ekitaldiekin batera, berriren bat ere antolatu dute, gainera; berria eta deigarria. Izan ere, domekan, 10:00etatik 13:00ak arte, globo aerostatikoa eramanago dute Garagartzara eta haren bitartez "auzoa zerutik ikusteko aukera ederra" izango da.

BUZKANTZAK, GAUR ETA BIHAR

Bestelako ekitaldien artean, bihar, Kulki elkartearen eskutik, arrantzaleen joko eta jolasen jaia egingo dute (12:00-14:00) eta Gorriti eta bere animaliak ere ibiliko dira Garagartzan (18:30-20:30). Zapatuko gaua kolorez janzteko, gainera, su-artifizialak jaurtiko dituzte, 23:00etan.

Domekari dagokionez, 13:00etan Txikitxu taldeak dantza saioa egingo du eta bazkalostean Txinpartarekin erromeria izango da. Eta, jakina, egubakoitz eta zapatuan buzkantzak egongo dira, 19:00etan hasita, auzo-etxeen.

## GURASO ESKOLA

Zuen seme-alaben heziketan sortzen zaizkizuen kezkak eta zaitasunak argitu, bideratu eta elkarbanatzeko.

Ordutegia gehiengoak aukeratzen duena izango da: 14:45 - 16:15 edo 18:30 - 20:00

**0-5 urte**



astelehenetan

**6-11 urte**



astelehenetan

**12-16 urte**



asteazkenetan

Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan gurekin.

Tel.: 943 25 20 07

e-posta: [prebentzio@arrasate-mondragon.org](mailto:prebentzio@arrasate-mondragon.org)

Izena emateko azken eguna: urriak 3



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Astelehenean ekarriko dituzte Zabalotegi aretoko eserlekuak.

OIHANA ELORTZA

KULTURA &gt; ZABALOTEGI ARETOA

# Datorren astean zabalduko dute Zabalotegi aretoa, eraberrituta

Txotxongiloen Mostrarekin zabalduko dute eta inaugurazioa aste batzuk barru izango da

Areto eraberrituak 120 ikuslerendako tokia du, eta artistendako aldagela eta makillatzeko gela

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Zabalotegiko areto eraberritua datorren egunean, urriak 2, estreinatuko dute, Txotxongiloen Mostrarekin batera. Areto berriak 120 lagunendako tokia du eta formatu txikiko antzerkiak, hitzaldiak, ikastaroak, kontzertuak eta ikuskizunak egiteko prestatu dute, baita zinema emanaldietarako ere.

**120 LAGUNENDAKO TOKIA**  
Zabalotegi aretoa berritzeko lanak 2007ko urrian hasi zituzten, eta urtebete geroago, prest dago era askotariko ikuskizunu-

nak egiteko. "Zinema proiektorerik ez dago, baina bai filmak DVD formatuan emateko modua. Argi eta soinu instalazioak ere berriak dira, adibidez", azaldu du Maider Osa Kultura teknikariak.

Guztira 326,30 metro erabilgarri ditu Zabalotegiko areto eraberrituak: agertokiak 73,45 metro koadro ditu eta eserlekuen tokia, 112,55.

Beheko solairuan, 120 lagunendako eserlekuak egongo dira agertokiaren aurrean. "Eserlekuak ez dira finkoak izango eta beharra dagonean kendum egin daitezke, tokia aprobetxatzeko

dantza ikastaro bat edo dena dela-koa egiteko, adibidez", zehaztu du Kultura teknikariak. Iku-sleenda-konunak ere behean daude, takilaren ondoan, eta artistenda-kokagertoki ondoan: aldagela eta makillatzeko tokia ere han-te daude. Goiko solairuan, kontrol gela eta bulego bat daude.

**NOVEDADES ARETOKO GORTINAK**  
Zabalotegi aretoan, baina, dena ez da berria. "Novedades aretoko gortina batzuk, adibidez, aprobetxatu egin ditugu. Garbitu eta moztu egin ditugu, agertoki berri-rra egokitzeo. Horiez gainera, hala ere, beste banbalina bat ere erosio behar izan dugu", dio Mai-der Osak.

Aretoaren obra zibila egitea 337.000 euro kostatu da eta horri gehitu behar zaizkio, besteak bes-te, agertoki trusak, horiek igo-tzeko eta jaisteko motorrak, komunitako altzariak, eserle-

kuak eta argi eta soinu ekipamen-duak. Guztira, 470.000 euro pasa-ko inbertsioa egin du Udalak Zabalotegi aretoan.

Txotxongiloen Mostrako bost ikuskizunek zabalduko dute Zabalotegi areto berritua datorren astean, baina inaugurazioa aste batzuk barru egingo dute. "Aste kultural bat antolatuko dugu aretoa inauguratzeko. Antzerkia, musika eta bestelako ekitaldiak antolatuko ditugu", aurreratu du Maider Osa Kultura teknikariak.

**ERDIBIDEAN**  
Agurne Barruso alkateak adierazi du Udalaren helburua dela Miguel Altuna institutua dagoen tokian egitea benetako kultura aretoa. "Zabalotegik ez du bete-tzen Bergaran kultura mailan dagoen zuloa eta gure helburua lortzeko lanean jarraitzen dugu", dio Barrusok.

## JAIAK

### Danborradak hasiko ditu Angiozarko San Migelak

Astelehenean iluntzean, irailaren 29an, zeruratuko dute San Migel

**O.E. > BERGARA**  
Gaur, egubakoitza, hasiko dira Angiozarren San Migel jaiak. Eta astelehenean, San Migel eguna, bukatuko dituzte auzoko jaiak, San Migelen zeruratzearekin.

**DANBORRADAREKIN HASI**  
Iluntzeo zazpietan emango zaien hasiera Angiozarko San Migel jaiet, etxafuegoekin, kanpai hotsekin eta ikurri-na jartzearekin. Ondoren, danborrada egongo da, Bergarako gazte bandak lagunduta. Danborrada bukatutakoan, patata tortilla txapelketa egingo dute auzotarrek, eta buruhandiak kalera aterako dira. 22:00etan kontzertua hasiko da eta hori bukatzean, 01:00 aldera, galtzontzilo lasterketa egingo dute amatzaren diren guztiek.

Zapatu arratsalderako, plater tiroketa, umeendako jolasak, arku tiroketa, Pago-mendi elkartean egingo duten briska txapelketa, buruhandiak eta triki-poteoa antolatu dituzte. Gauean, 21:30 alde-ra, sardina jana egingo dute pilotalekuau. Kafe ostean dantzaldia egongo da eta bukatze-ko, txokolate-jana. Domekan, meza, zezenak eta II. Angiozarko pilotu torneoia izango dituzte.

Jaiak astelehenean buka-tuko dira, San Migelen zeru-ratzearekin.

> AISIALDIA  
**Xipizaro ludoteka urriaren 1ean zabalduko dute**

Xipizaro ludoteka urriaren 1ean zabalduko dute eta hara joan gura duten umeek izena eman dezakete dagoeneko. Izena ludotekan bertan eman behar da, Agorrosin Ekintza Gunean, 17:00etatik 20:00eta-bitartean.

Urriaren lehen egunean zabalduko dute Xipizaro ludoteka. Hiru urtetik gorako herriko ume guztiendako egongo da zabalik, arratsal-deetan. Ez da talderik sortuko, denek elkarrekin jolastuko dute ludotekako jolasekin. Bi begirale ere egongo dira, eurekin jolas egiteko eta, bide batez, zaintzeko.

Mizpildi 3, 1. ezkerra • BERGARA

**2008-2009 ikasturtea**  
**Ikastaroaren hasiera:**  
**urriaren 1a**

Izenematea: irailaren 30era arte  
Informazio gehiago:  
10:00-12:00 eta 18:00-20:00  
943.76.30.55

**FRANTSES IRAKASKUNTA**

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

> AZOKA

## Artisauen azoka egingo dute San Antonio auzoan domekan, Gure Ametsa elkartea antolatuta

Domekan, artisauen II. azoka egingo dute San Antonio auzoan, Gure Ametsa elkartea antolatuta. Azoka horretan auzotarrek egiten dituzten hainbat artelan egongo dira ikusteko, saltzeko eta trukatzeko. Adibidez: harizko lanak, musika taldeen diskos zaharrak eta egurrean egindako lanak. Azoka hori goizean zehar egingo dute, 10:30ean hasita.

GAZTEAK > GAZTERIA PLANA

## Gazteria Plana aurkeztu die Udalak herriko gazttxoei

Gazteek euren planak zeintzuk diren esan zieten Udaleko ordezkariei

en eskutik. Ondoren, Udalak eurendako duen asmoa azaldu zien. Osoko bilkuren aretoan hitz egin zuten guztiek, eguztenean.

### HELDUEI ERE BAI

Gazteei zuzendutako plana helduei ere azaltzeko asmoa du Udalak. Horrela, gazteekin egin bezala, bilera egingo dute udal ordezkariek helduekin. Urriaren 1ean, eguztenean, izango da hitzordu hori, osoko bilkuren aretoan.



Herriko gazttxoak udal ordezkariekin Gazteria Plana ezagutzen. JASONE ZABALA

>UDALA

## Datorren urteko udal egutegian argitaratzeko argazkiak jasotzeko epea zabaldu dute

Bergarako Udalak 2009an ere egutegia ateratzeko asmoa dauka eta dagoeneko zabalik dago argazkiak eta publizitatea argitaratzeko epea. Egutegia 2008aren antzerakoa izango da, baina aurten herriko auzoetako protagonismo handiagoa eskaini gura zaie. Argazkiak bidaltzeko azken eguna urriaren 20a da. Euskara Zerbitzuan dute informazio gehiago: 943 77 91 79.

**Ion Murgizu Pinturak**  
Pintura orokorrean

Fatxadak  
Pintura Industriala  
Dekorazio Pinturak

Bergara - Soraluze  
Tf: 943 75 13 24 - 652777030



Danobat enpresa Murinondoko industrialdean erakitzenten ari den lantegia.

IRATI AGIRREAZALDEGI

INDUSTRIA > LANTEGI BERRIA

## Danobat taldeak 100 lanpostu sortuko ditu Bergarako lantegian

Trenbidearen arloan lan egiten duten enpresendako makinak egingo dituzte Mekolaldeko pabiloian urtariletiak aurrera

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Danobat taldea lantegi berria ari da eraikitzen Mekolaldeko industrialdean. Trenbidearen arloko makineria egingo dute lantegi horretan. 100 lanpostu inguru sortuko ditu.

### TRENBIDEKO MAKINERIA

Mekolaldeko industrialdean egiten ari diren lantegi horretan, trenbidearen arloan lan egiten duten enpresendako makinak egingo ditu Danobat taldeak. "Makinak bakarrak ez, fabrikazio rako linea automatiko osoak egingo ditugu, ingeniaritza lana barne", azaldu du Antxon Lopezek, Danobateko ordezkarriak. "Lan horretarako eskulan kualifikatua behar dugu. Horregatik, sortuko ditugun 100 lanpostu

horiek goi mailako kualifikazioa duten langileek beteko dituzte; bertako langileek, ingurukoek, gainera", jarraitu du Lopezek.

**CAF ETA RENFE, BEZEROEN ARTEAN**  
Lantegi horretan egingo dituzte, adibidez, trenen gurpilak eta

DATUA

**12**  
MILIOI EURO

Mondragon Taldearen barruan dagoen Danobat taldeak 12 milioi euro inbertituko ditu Mekolalden eraikitzen ari diren lantegia egiteko. 8.000 metro koadro ditu.

ardatzak egiteko makinak. "Ingeniaritza lan guztia ere Bergaran egingo dugu, proiektu guztia. Baita funtzionamenduan jartzeako prozesua eta langilearen formazioa ere", zehaztu du Danobat taldeko ordezkarriak, Antxon Lopezek. "Horrela, CAF izan daitete bezero potentzial bat. Eta Renfe ere bai, trenen mantentzelanak egiteko hornikuntza ere egingo dugu-eta", jarraitu du. Mundu guztian saltzea da enpresaren helburua; Bergaran egingo dutenaren %90, hain zuzen, esportatu egingo dute. Indian eta Errusian, adibidez, laguntza teknikoa ere eskainiko dute.

### URTARRILERAKO

Danobaten Mekolaldeko lantegi horrek 8.000 metro karratu ditu. Urte honen bukaeran edo datorenaren hasieran zabaldu gura dute. Danobat Mondragon Taldearen barruan dago eta 13 enpresek osatzen dute: horietatik 11 Gipuzkoan daude, bi Bergaran.

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**SANTOS**  
=TIEN 21=

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**((112))**  
**SOS DEIAK**

ANTZERKIA &gt; UDAL EUSKALTEGIA

# Euskara ikasleen 'sufrimendua' taula gainera eramango dute

Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien artean izango da; antzezlana 22:00etan izango da, udaletxeko osoko bilkuran

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
*Euskara sencilloaren manifiestoa* antzezlana eskainiko dute gaur Maskaradako Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak. Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzeko Udal Euskaltegiak antolatutako hitzordua izango da. Antzezlana 22:00etan hasiko da, eta udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da. Sarrera doakoa izango da.

#### EUSKALDUN BERRIAK

Euskararen inguruan umorea egitea da Martinez eta Telleriaren helburua. Horretarako, euskara ikasleen larruan sartuko da bikotea; eta euskara ikasten



Mikel Martinez eta Patxo Telleria dira antzezlaneko bi aktoreak.

iruditu zaigu Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenen ospakizunetarako".

Martinezek eta Telleriak diote hirietako jendea gehiago identifikatzen dela antzezlaneko pertsonaiekin, euskaltegitik pasa den jende gehiago dagoelako.

#### 'KOMERIKA'-N OINARRITUA

Tentazioak konpaina AEKren Korrika Kulturalerako ekoitzi zuen *Komerika-n* lanean oinarrituta dago gaurko antzezlana. Baino, oraingoan, hasiera eta amaiera duen istorioa aurkeztuko dute. Formatu txikiko ikuski-zuna da, azpiegitura txikiarekin edozein lekutan samur taulara daitekeena.

#### BESTE EKITALDI BATZUK

Urtea amaitu baino lehen beste bi ekitaldi egingo dituzte Udal Euskaltegikoek. Urriaren 17an, Antxon Artzaren *Bizimoduak* proiekzioa eskainiko dute, Aroztegin, 19:30ean. Azaroaren 13an, ostera, Iñaki Kaperotxipiren *Zetaren ibilbidea* proiekzioa, Aroztegin baita ere, 19:00etan.

TXAPA IRRATIA &gt; IKASTURTE HASIERA

## Domekan egingo dute bigarren batzarra Txapa Irratikoek

Bergaran ekoitztutako zazpi irratsaiorekin jarraituko dute Txapa Irratikoek lanean

**A.E. > BERGARA**  
 Ikasturte hasierari forma emateko batu ziren joan den domekan Txapa Irratiko lagunak. "Hasiera baten, ez dugu irratsaio berririk izango ikasturte berri-rako", azaldu du Lander Juaris-

ti Txapa Irratiko kideak. Orain arteko parrillarekin jarraituko dute: "Zazpi irratsaio propio ditugu, Bergaran ekoitztutakoak", dio Juaristik. Gainera, bileran lantduko duten beste gai bat izango da Bergarako 27 musika talde-rekin egin zuten *Txaparrada musikala*.

Arrosa irratia sareak ematen dituen aukerak aprobatxatuko dituzte aurten ere Txapa Irratikoek. Hala, beste irratia libre batzuk jarraitu ahalko dira Bergaran. Bi bide daude: FM 97.25 edo [www.txapairratia.org](http://www.txapairratia.org).

propioa egin gura duenak ateak zabalik dituela irratian", dio Juaristik. Gainera, bileran lantduko duten beste gai bat izango da Bergarako 27 musika talde-rekin egin zuten *Txaparrada musikala*.

Arrosa irratia sareak ematen dituen aukerak aprobatxatuko dituzte aurten ere Txapa Irratikoek. Hala, beste irratia libre batzuk jarraitu ahalko dira Bergaran. Bi bide daude: FM 97.25 edo [www.txapairratia.org](http://www.txapairratia.org).

#### > MUSIKA

### Urriaren 7ra arte egongo da musikoterapia ikastaroan izena emateko epea zabalik

Bergarako Musika eskolak antolatuta, urritik abendua bitartean musikoterapia ikastaroa egingo da. Ikastaroan izena eman gura duenak urriaren 7ra arte izango du aukera. Ikastaroaren prezioa 50 euro da eta plaza mugatuak dira.

Ikastaroaren helburua da Hellen Bonnyk 1960ko hamarkadan sortu zuen *Irudi gidatua eta Musika metodoaren esperientzia* ezagutzea. Ikastaroaren teknika musika klasikoak pertsonari gogora ekartzen dizkion irudietan oinarritzen da.

#### > IKASTAROA

### Zabalik dago Bergarako Emakume Kultur Elkarteak antolatutako ikastarorako izenematea

BEKEK, beste urte batez, eskulan eta zaharberritze ikastaroa antolatu du. Herritar guztiei zuzenduta dago eta izena eman gura duenak 625 70 78 92 edo 688 65 43 75 telefonora deitu behar du. Ikastaroa Irizar jauregian emango dute, martitzen eta eguen goiztan. Aurtengoa emakume elkarrekin antolatzen duen laugarren ikastaroa izango da. Horren harira, Koro Iraegi ikastaroko irakasleak esan du urtarrilean ikastaroan egindako lanekin era-kusketa egiten dutela Aroztegi aretoan.

#### > ERAKUSKETAK

### Maddi Muxika gaztearen dozena bat olio-lan daude ikusgai Nahikari tabernan egunotan

Nahikari tabernan daude ikusgai Maddi Muxika Arrizabalaga (Bergara, 1994) gaztetxoaren margolanak. Edurne Erañaren gida-ritzapean, azken hiru urteotan egindako dozena bat olio-lan daude ikusgai Masterreka kaleko tabernan. Urriaren 15a arte egongo dira lanok Nahikarin. Bestalde, bihar da azken eguna kultura etxearen dauden San Martinetako ageriko pintura lehiaketako lanak ikusteko; eta domeka, hilaren 28a, izango da Aroztegin dagoen kirol argazki lehiaketako lanak ikusteko azkena.

## Makillaje ikastaroa

**Urriak 7-8-9**  
 Talde murriztuak

Apunta zaitez Igaron!

Yves Saint Laurent-en

udazken-neguko koloreen aurkezpena



Barrenkale 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Estetika zentroa  
**Igaro**

# BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa

Aurrekontua  
konpromiso barik.


Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02  
[bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) • [www.euskalnet.net/bolusukaldeak](http://www.euskalnet.net/bolusukaldeak)

# ELKAR

ELEKTRAGINTZA

ZURE  
ZERBITZURA!!

## Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
BERGARA

## ARETO FUTBOLA

## Txapelketan 50 gorrek hartuko dute parte

Gipuzkoako herri ezberdinak kideek txapelketa azkarra jokatuko dute

J.Z. > BERGARA  
Aransgi gorren elkartea, hainbat ekitaldi antolatu ditu biharko, pertsona gorren nazioarteko eguna dela-eta. Horien artean areto futbol txapelketa, Udal Pilotaleku (16:30etik 19:30).

**GIPUZKOA OSOKO JOKALARIK**  
Txapelketa horretan Gipuzkoako beste herri batzueta ko elkarteeetatik etorritako 50 gorrek hartuko dute parte. Antolatzaleek talde ezberdinan banatuko dituzte jokalariak eta elkarren artean jokatuko dute.

Iñaki Madinabeitia Bergarako Aransgiko zuzendariak zera adierazi digu: "Urtean egun baten ospatzen da egun hau, eta aurten Bergaran egitea tokatu da. Normalean, urtean zehar areto futbol txapelketak jokatzen dituzte beste autonomia batzueta ko taldeen aurka. Bihar, Bergaran aukera izango dute txapelketa azkar baten bitartez hiru orduan futbolaz disfrutatzeko eta futbolean dituzten abileziak erakusteko".

FUTBOLA > LEHEN ERREGIONALEKO DERBIA: BTLS KE-BERGARA KE

# Herriko bi taldeen derbia Ipintzaren inaugurazioan

Talde biek goiko aldean hasi dute denboraldia, lehen bi partidua irabazita

Partidua hasi aurretik ohorezko sakea Agurne Barruso alkateak egingo du

JASONE ZABALA > BERGARA  
Lehen erregionaleko derbia hirugarren jardunaldian iritsiko da. BTLS KE eta Bergara KE aurrez aurre izango dira domekan, 17:00etan, Ipintzan, udal futbol zelaiaren inaugurazioan.

**LEHIA ESTUA**  
Bi taldeen arteko lehiakortasuna sanoa da, eta domekako partidua borrokatua izango dela adierazi diote GOIENKARIAri Jose Luis Beitia (BTLS) eta Manu Diaz (Bergara) entrenatzaleek. Beitiaren ustez, ez da joko handirik egongo, baina borrokatu egingo dute bukaera arte: "Bergara taldea atzeko lerroan sendo aritzen da. Gainera, pasa den urteko taldea mantendu eta Altzola eta Muxikarekin asko irabazi du talde-



Manu Diaz Bergara taldeko entrenatzaleak adierazi duenez, BTLS taldea aurkari "zaila" izango da domekan.

GOIENKARIA

ak". Diazek, berriz, partidu "zaila" ikusten du: "BTLS talde ona da, sendoa, eta Ipintzako zelaia-ri neurria hartua diote. Hain izan daitezke multzoko aurten- go ezustekoa". Helburuei dago-kienez, "ezin da aurreikusi den- boraldi amaieran zer gertatuko den. Taldea ondo hasi da joka- tzen. Hala eta guztiz ere, gure

lehen helburua mantentzea da, baina emaitzek jarriko dute talde bakoitzak bere lekuak", adie- razi du Beitiak. Diazek, bestalde, uste du goiz dela oraindik hel- buruak finkatzeko eta partiduz partidu joan beharra dagoela: "Lehen itzuliaren amaieran iku- siko dugu zein izango den amaie- rako gure helburua", esan du.

**IPINTZAKO ZELIA INAGURATU**  
Derbiarekin batera, belar arti- fizialeko Ipintzako udal futbol zelai berriaren inaugurazio ekitaldia egingo dute. Ohorezko sakea Agurne Barrusok egingo du, eta partidua amaitzen denean lurcha egongo da Aldundi, Futbol federazio, Udal, kirol elkartea eta jokalariendako.



**GAZTELU, s. a.**  
BURDINDEGIA

**HORNIDURA INDUSTRIALAK**

Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48  
Faxa: 943 76 32 52  
E-mail: [gaztelu.s.a@euskalnet.net](mailto:gaztelu.s.a@euskalnet.net)  
Web: [www.ferreteriagaztelu.com](http://www.ferreteriagaztelu.com)

Mintegi kalea 1  
20570 BERGARA

**BERGARA**  
*Margoak*




Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. [bergara@bergaramargoak.com](mailto:bergara@bergaramargoak.com)

- └ Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- └ Ziklomotorreko lizenzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- └ Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

**Gainditu motorraren azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta autoarena 18 urte bete aurretik!**

**943 76 16 63 BERGARA**



**ARRAÑAGA**  
AUTOESKOLA

# Goienkaria

Egubakotza / 2008ko irailaren 26a / GOIENKARIaren GEHIGARRIA / Arduraduna: Iker Barandiaran / Maketazioa: Oxel Arrieta / Publizitatea: Itsaso Berezibar

# SAN MIGELAK 2008

Aretxabaletako jaiak

ARGAZKIA: GOIENKARIA

## ARETXA AUTOAK

Debagoieneko espezialista onena marka hauetan:



*San Migel jai zoriontsuak  
opa dizkizue!*

Basabe poligonoa A-2-4 20.550 Aretxabaleta • Tel.: 943 71 00 68  
[www.autosaretxa.com](http://www.autosaretxa.com)

# BASABE *jatetxea*

Basabe poligonoa Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 07 94

- *Eguneko menua • Karta*
- *Plater konbinatuak eta ogitartekoak*

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)

**SAN MIGEL ZORIONTSUAK IGARO!**



- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinene eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua



KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIAK, S.L.  
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baseria • p.k. 160  
20550 ARETXABALETA

tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08  
e-posta: hurbil@hurbil.es

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza 26

- 18:00** ERRETIRATUENDAKO LUNCHA eta DANTZALDIA Basotxon.  
**19:00** BURUHANDIAK Aretxabaletako trikitilariekin batera.  
**19:30** ALAIKI. Musika taldea Mitarten.  
**22:30** ALAIKI. Musika taldea Mitarten.

## Zapatua 27

- 10:00** Arrasateko Dragoialde txarangarekin DIANA.  
**10:00** Goiz guztian zehar Tril emakume taldeak antolatuta, TALO TXOSNA Pagadaldaixenian.

**10:00-14:00** ARTISAU FERIA eta XIV. AZOKA BIOLOGIKOA Durana kalean eta Herriko Plazan. Eta gainera, TALOAK, SAGARDOA...

**11:30** Leizarra Musika Eskolako trikitilarien KALEJIRA. kaleetan zehar.

**12:45** TXALAPARTA Durana kalean.

**13:00** ZANPANTZARRAK kaleetan zehar.

**14:30** Presoen lagunek antolatuta HERRI BAZKARIA Iturrigorri frontoian.

**17:00** BENTA-BERRIKO MUTIKO ALAIAK taldearekin kale animazioa.

**19:00** LARRIN DANTZA Durana kalean.

**22:30** Mikel Deunaren KONTZERTUA: Aretxabaleta ABESBATZAK eta TIRRI TARRA taldeak eskainita. Copreciko aparkalekuan.



AURTEN ERE HERRI BAZKARIA ANTOLATU DUTE HERRIKO PRESOEN LAGUNEK. ZAPTUAN EGINGO DUTE ITURRIGORRI FRONTOIAN, 14:30EAN.

## Artisau feria eta azoka

Urtero moduan, zapatuan, 10:00etik 14:00etara bitartean, artisau feria eta azoka biologikoa egingo dute Durana kalean eta Herriko plazan. Hogeitik gora artisau tailer eta saltoki jarriko dituzte kalean herritarrek zelan lan egiten duten ikusi eta gura dutena eros dezaten. Horrez gain, baserritarrek euren produktuak eramango dituzte kalera. Eta Tril emakume taldekoek talo txosna jarriko dute Pagaldaixenien.



Azoka eguna oso garrantzitsua da.

GOIENKARIA

**00:00-03:00** Borondatzeko alkoholemia kontrola Mitarte kalean.

## Domeka 28

**11:00** DIANA Basauriko Haizedoinu gitariekin.

**13:00** HERRI KIROLEN erakustaldia, Herriko plazan.

### Aizkolariek:

Ernesto Ezpeleta 'Biurri'

Jose Inazio Flores

Odei Ezpeleta

### Harri jasotzaileak:

Landabide

Uriarte

### Iparraldeko jokoak:

Ana Berasategi

Ane Arrospide

### Aurkezlea:

Maider Osa

**16:00** XXVI. SAN MIGEL TXIRRINDULARI

LASTERKETA.

**16:00** XVI. San Migel MUS TXAPELKETA Herriko plazan. Garaikurrak eta txapela emango zaizkie lehenengo sailkatuei.

**16:00** II. San Migel Haur XAKE TXAPELKETA. Herriko plazan jokatuko da.

**17:30** TRIALSIN ERAKUSTALDIA Arlutzeko kantxan.

**19:00** BERTSO JAIALDIA Arkupe kultura etxearen.


Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Xabier Paya. Gai jartzailea Beñat Zamalloa izango da. Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai Arkupen, bost eurotan.

**ondo pasa!**

# San Migelak

## EGUZKIGRAF

inprimategia



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

KONTZERTUA

# Tirri Tarraren emanaldiak txundituta utziko du ikuslea

Aretxabaletako abesbatza ere izango da kontzertuan: 'Luz negra/Arqi beltza' diskoa interpretatuko du talde sinfonikoak



Iruñean ikuspegiak denez, ikusgarria da Tirri Tarra musika talde sinfonikoaren *Luz negra/Argi beltza* lana; soinuaz gain, argiztapenak ere berebiziko garrantzia du.

TIRPL TARRA

LOKIN BEREZIARTUA

**Tirri Tarraren emanaldia gal ezin daitekeen ikuskizuna da; *Luz negra/Argi beltza* proiektu berezia aurkeztuko dute: ia bi orduko musika jario etengabea.**

**F**anfarre izatetik musika talde sinfonikoa izatera pasa da Tirri Tarra. Aldaketa handia da, "sekulako jauzia", Joxerra Isasa taldeko kideak dioenez. *Luz Negra/Argi Beltza* proiektuarekin datoz Aretxabale-tara eta ja bi erduko ikus- kizunarekin aretxabaleta-rrak aho bete hortz utzikodituzte.

Proiektu berezi horren emaitza 2006an ezagutu bazen ere –orduan kalera-tu zuten diskoa–, 2000. urtean erein zen hazia. Tirri Tarra 20 musikari inguru osatzen zuten orduna-

kizunarekin aretxabaleta-rrak aho bete hortz utzikodituzte.

Proiektu berezi horren emaitza 2006an ezagutu bazeñ ere –orduan kalera-tu zuten diskoa–, 2000. urtean erein zen hazia. Tirri Tarra 20 musikari inguruak osatzen zuten orduan

gehienak haizezko instrumentuekin. Hala ere, diskoaren grabaziorako abesbatza baten eta harizko instrumentuen laguntza behar zutela konturatu ziren. Hala, Donostia Orfeoiak eta Et Incarnatus harizko orkestraren kolaborazioa izan zuten.

TOKIKOABESBATZEN I AGUNTZA

**TOKIKUABESBATZEN LAGUNTA**  
*Luz negra/Argi beltza ikus-kizunean tokian tokiko abesbatzek hartzen dute parte. Isasak hauxe dio: "Arrasaten probatu genuen lehenengoz bertako abesbatzarekin jotzea. Oso idea polita, interesgarria eta arrokeastatsua izan zen"*

Ikuskizunaren hasierako kontzertuak Donostiako Orfeoarekin batera eskaini zituzten, eta Arrasateko esperientziaren ostean egin zuten aldaketa

Aretxabaletako kontzertuaren ostean, Galizia, Aragoi, Burgos, Katalunia eta Madrilren izango dira zutentzakoak.

- Mari Carmen Oinetakoak
- Irudi Ileapaindegia
- Errekabarren Frutadenda
- Leintz-Rossi Mertzeria

**689 73 39 17**

**943 79 80 90**

943 79 96 43

**943 79 78 63**

Errekabarren kalean gaude!!

Ondo ibili jaietan!!!



# GUREA

## Gora San Migelak! TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITU

• UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABAleta

Ondo ibili jaietan!

**HERRI AZOKA**

# Artisauak eta nekazaritza ekologikoa Durana kalean

Hilaren 27an egingo dute herri azoka goiz osoan

MIREIA BIKUÑA

**Berrikuntza barik egingo dute herri azoka hilaren 27an. Durana kalean hainbat postu jarriko dituzte eta herri bazkaria egingo dute plazan.**

Urtero eguna ospatuko dute aretxabaletarrek hilaren 27an; hain zuzen ere, herri azoka egingo dute. Loramendi elkarretek eta Udalak antolatutako egunean, artisauak,

musika, dantzak eta herri bazkaria izango dira nagusi, besteak beste.

#### 35 ARTISAU POSTU

Produktuak salgai jarriko dituzte 35 artisauak; besteak beste, euskal pastela, eztia, eskumuturrekoak,

zilarra, kristala, larruzko pilotak eta lore sikuak jarriko dituzte ikusgai eta salgai Durana kalean zehar.

Bestalde, nekazaritza ekologikoaren gaineko beste 17 postu jarriko dituzte, 14:00ak arte.

#### MUSIKA ETA HERRI BAZKARIA

Herri azoka girotzeko, Draigoialde txaranga, Lizarraiko trikitilariek, Larraintantza eta zapantzarrok izango dira. Herri bazkaria plazan egingo dute. Gainera, Tril emakume elkartekoak taloak egiten egingo dira.

**Tril emakume elkartekoek taloak egingo dituzte herri azokan**



Askotariko postuak jarriko dituzte Durana kalean hilaren 27an.

ARTXIBOA



## très Bonn.

Trés Bonn hitz gutxitan Citroën C5-ak zer adierazi nahi duen esateko era da. Azken xehetasun txikieneraino kalkulatutako elegantzia eta teknologiaren nahasketak da.  
Benetako luxua zein den adierazten duen espresio adimentsua : Beste ezer baino lehen kalitatea. Egundoko kotxea, ondo pentsatua, ondo eginikoa.... aleman izaeraudun azken berrikuntzei benetako frantses izpiritua gaineratua. Bi hitzetan "Trés Bonn".

Citroën C5 berria. Izaera alemana. Izpiritua frantsesa.

- Motorizazioak: Gasolina DIN 215 zp rainokoak eta diesela DIN 208 zp rainokoak • Bi suspensio mota aukera: Suspensio hidraktiko III + esku-freno automatiko eta elektronikoa eta maldetan irtezen lagunza edo suspensio metalikoa • Bi-xenon faro autodirekzionalak • Alboetako ijetzitako kristal intsonorizatuak • Gidariaren eserleku abegigarri eta masaje funtzioduna • Aurreko eserlekuek 6 doikuntza elektriko dituzte (bizkarraldeko goikaldearen inklinazioa barne) • Nahi gabeko bide aldaketa alerta • ESP • 9 aire-poltsa • Bi lekutako aire-girogailu automatikoa • 7" ko pantaila duen NAVIDRIVE telematika sistema, GSM telefonoa, europear kartografia , 30 Gb dun disko gogorra eta CITROËN larrialdi zerbitzua.

**CITROËN C5 BERRIA**

Talleres Chapime, S.C.L.  
Debagoineneko Citroën Kontzesionario ofiziala.  
San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22  
Tailerreko ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00  
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

**ONDO PASA JAIETAN!**



# Fino

Gizonezkoen  
ile apaindegia

*Ondo pasau  
jaixak!*

Durana 19 • Aretxabaleta  
Tel.: 666 264 886



*Dantza*      *Umorea*      *Anaitasuna*  
*Atsedena*      *Jolasa*  
*Kantua*      *Parranda*  
*Alaitasuna*      *Kalejira*  
*Ospakizuna*  
**JAIXA**  
**Gora San Migelak  
eta aupa Atxabalta!**

aretxabaletako  
**aralar**

**HERRI KIROLAK**

# Euskal Herriko aizkolari gazteena arituko da

Hainbat kirolen erakustaldia eta bi talderen arteko lehiaketa egongo da

JASONE ZABALA

**San Migel domekan herri kirolek ere tartea izango dute, Kurtzebarri eskolako patioan, 13:00etan.**

**S**an Migel jaietako domekan, irailak 28, herri proba erakustaldia egongo da. Ernesto Ezpeleta eibarta-

rra arduratuko da erakustaldiaz, eta hauxe esan digu hark: "Hainbat proba ezberdin egingo ditugu, tartean harri-jasotzaile eta aizkolarien. Ordubeteko ikuszkizuna izango da".

**SEMEA AIZKOLARIA**  
Sei edo zapti kirolari arituko dira lan horietan. Bi harri-jasotzaile, lasto jasotza, txinga eramatea eta ingude jasotza ere egon-




Iruñan, Ernesto Ezpeleta joan den urteko jaietan egindako erakustaldian.

GOIENKARIA

go dira. Harri-jasotzaileak harri zilindriko, karratu eta biribilekin arituko dira, 100 eta 200 kilo arteko harriekin. Aizkoran, berriz, hainbat proba egingo dituzte: abiadura probak, zutikakoak, kolpetakoak eta aitzurrarekin esku bakarraz enborra moztea. Ezpeletaren seme Hodeik ere egingo du era-kustaldia aizkoran. Hura da 9 urterekin Euskal Herriko aizkolarien gazteena, eta Ernestok adierazi

digunez, "semeari asko gus-tatzen zaio aizkoran aritzea eta baita jendeari hain gaz-tea izanda egurra nola moztzen duen ikustea ere". Era-kustaldiaren ostean, bi talde egingo dituzte eta bien arteko lehiaketa antzeko

bat egingo dute. Aizkora, harri-jasotza, trontza, txinga eta korrika. Bost proba horietan lehen amaitzen duen taldeak irabaziko du. Ezpeletak amaitze-ko enbor batekin irudi bat egingo du.



*Zure Osasuna gure ardura da*

- Masaje terapeúticoa eta kirol Masajea
- Acupuntura
- Presoterapia
- Hidroterapia SPA
- Osteopatía
- Errehabilitazioa
- Pancafit Metodoa















Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Gipuzkoa  
Tel.: 943 79 95 64

# ARETXABALETAKO UDALAK **SAN MIGEL** **JAI ZORIONTSUAK**

**OPA DIZKIZUE ARETXABALETAR GUZTIOI!**

2008ko  
**SAN MIGELAK**

Aretxabaletako  
Udala  
KULTURA SAILA



**Milesman Diodo laserra**  
Presta zaitez datorren udaberri-udarako.

Gizonak ere animatu zaitezte!

**Presta zaitez laser depilaziorako**

- Besapeak
- Iztaik
- Aurpegia (bibotea, patillak)
- Sorbalda
- Hankak
- Besoak

**4-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du**  
**Etorri eta informa zaitez konpromiso barik.**



*Gemes*  
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18  
ARETXABAleta







**M**obiliario  
**A**RENAZA  
ALTZARIAK • DISEINUA

Bizkai 1 ARETXABAleta Tel.: 943 79 08 07

Jai zoriontsuak aretxabaletar guztioi!



**XAKE TXAPELKETA**

# Fitxak mugituz jo eta ke, aurkariari xake-mate

Gaztetxoek xake txapelketan neurituko dute jokorako abilezia

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Herrian gaztetxoen artean xake jokorako zaletasuna bultzatze-ko asmoz, xake txapelketa antolatu du Arlutz elkartea.** Plazan jokatuko dute domeka arratsaldean.

**X**ake jokalari abilak daude Aretxabaletan, eta gaztetxoak ere bide beretik abiatzeko asmoz, xake eskolak ematen ditu egunetan Arlutz xake elkartea Iralabarri plazan.

Ikasitakoa jendaurrean azaltzeko aukera izango dute 16 urtetik beherako xake jokalarietako domenak, irailaren 28an, arratsaldez, herriko plazan. 16:00etan hasita ligaxka eran jokatuko dute xake txapelketa.

**Txapelketa aurretik plazan eman behar dute izena partaideek**

**PARTAIDE GEHIAGO NAHİ**

Parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena plazan, eta antolatzaleek nahi dute ahalik eta jende gehien elkartzea xake taulen bueltan. Izan ere, ikasleak hamarretik gora izanik, iazko parte hartzaile kopurua gainditzea da asmoa.

Estrategia erabiliz, aurkariari xake-mate zeinek egin ibiliko dira nor baino nor gehiago jokalari gaztetxoak. Txapeldunak eta bigarrenak garaikurra izango dute sari, eta gai-nontzeko partaideek oparia jasoko dute.



Piezak modurik abilenean mugitzen dituenak izango du partida irabazteko aukera.

GOIENKARIA

**Gure adiskide maiteak  
Dibertituko geranak  
Aprobetxatu ditzagun gogotik  
San Miguel jaiak.**



**euskadiko  
alkartasuna**  
**euskal sozialdemokrazia**

Herriko Plaza, 7 – behe  
20550 Aretxabaleta  
Tel. 943 79 84 85  
[www.ea-arretxabaleta.blogspot.com](http://www.ea-arretxabaleta.blogspot.com)



The advertisement features a green header with the brand name "Kilima" in large white letters, followed by the slogan "ume eta haurdunendako arropak". Below the header is a white line drawing of a child holding a teddy bear. To the left, there is a photo of a baby looking directly at the camera. To the right, there is a photo of a young girl wearing a green sweater and a hat, holding a book titled "FERMIER". The main text in the center reads "Ondo pasau San Migeletan!".

Kilima  
ume eta haurdunendako arropak

Ilargi plaza 6 Aretxabaleta  
Tel.: 943 53 34 96

Ondo pasau San Migeletan!

The advertisement features a black and white background with several framed photographs of different subjects, including a couple, a woman in a white dress, a baby, and a woman with long hair. To the right, there is a circular graphic with the text "MOTA GUZTIETAKO ERREPORTAIAK: EZKONTZAK; ESTUDIOAK; INDUSTRIALAK; ..." and "50mm f/1.4". At the bottom right, there is a red box containing the studio's logo "Begira" with a stylized eye icon, the address "Ilargi Plaza 1, Aretxabaleta", and the phone number "tlf: 943 53 49 45 - 637 26 26 86".

MOTA GUZTIETAKO ERREPORTAIAK:  
EZKONTZAK; ESTUDIOAK; INDUSTRIALAK; ...

50mm f/1.4

Begira  
argazkilaritza

Ilargi Plaza 1, Aretxabaleta  
tlf: 943 53 49 45 - 637 26 26 86

**BERTSO SAIOA**

# Ordubete inguru bertsotan


NEREA MENOR

**S**an Migel jaietako berritasunen artean domekako bertsotso jaialdia dago; izan ere, Aretxabaletako bertsozaleek saio bikainaz gozatzeko aukera izango dute. Arratsaldeko zazpietan izango da, ireki berri duten Arkupe kultura etxeen. Kultura Sailak aretoa betetzeko esperantza dauka.

Datorren domekarako bertsosaioa antolatu dute Aretxabaleko kultura etxeen. Aurretik ez dute inoiz antolatu halakorik; "Ekainean zabaldu genuen Arkupe kultura etxea eta horrelako ikuskizun bat ospatzeko leku aproposa dela uste dugu. Orain arte ez dugu horrelako saiorik antolatzeko aukerarik eduki, antzeko aretorik eduki ez dugulako", adierazi digute Kultura Saitetik.

**LAU BERTSOLARI**

Behin aretoa edukita, Jai batzordeak bertsosaioa antolatzeko proposamena egin zuen eta bertsolariak aukeratu zituen. Lau



Unai Iturriaga durangarra bertsosaioa baten.

GOIENKARIA

**Iturriagak,  
Lujanbiok, Payak  
eta Sarriegik  
hartuko dute parte  
bertso saioan**

bertsolari ordubete inguruko saioa egingo dute: Unai Iturriagak, Maialen Lujanbiok, Xabi Payak eta Aitor Sarriegik. Beñat Zamalloa izango da gai jartzailea.

Unai Iturriaga Durangon jaio zen 1974. urtean. Bertsolari, idazle eta abeslari euskalduna da. Ber-

**Sarrerak egunean  
bertan jarriko dira  
salgai, 5 eurotan,  
Arkupe Kultur  
Etxean**

tsolaritzan, hiru aldiz izan da Bizkaiko txapeldun. Bertsolari Txapelketa Nagusian, lau aldiz izan da finalista eta 2005ean, txapeldunorde geratu zen Andoni Egañaren atzetik.

Maialen Lujanbio Hernan jaio zen 1976. urtean. 1997an, 2001ean eta 2005ean Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera heldu zen emakume bakarra izan zen eta 2001ean Egañarekin lehia bizian izan zen.

Xabi Paya Algortan jaio zen 1983. urtean. 2004an Bizkaiko Txapelketako finalera heldu zen eta 2005eko Txapelketa Nagusian finalaurrekoetan kantatu zuen.

Aitor Sarriegi Beasainen jaio zen 1976. urtean. 1997ko, 2001eko eta 2005eko txapelketa nagusietan finalaurreko saioan kantatu zuen.

**ARRAKASTAREN ESPERANTZA**

Aretoa betetzeko esperantza du Kultura Sailak. "Zabaldu genuenetik programazio zabala izan arren, oraindik ez dugu inoiz bete. Bertsosaioa ordu onean izango da, eta, San Migelak izanda, agian txiki geratuko zaigu 100 pertsonarentzako areto hau".



**Aretxabaletako EAJ/PNV-k  
jai zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!**

# Jai zoriontsuak izan!

"la Caixa"

Errekabarren 3 Aretxabaleta  
Tel.: 943 71 09 50  
Faxa: 943 79 36 18



Jatetxeak, Tabernak, Kafetegiak, Parkeak,  
Dendak, Banketxeak, Sukaldeak, Bainuak,  
Barrualde zein kanpoaldean  
**BERRIKUNTZAK**

Zuzendaria: Carlos Rodrigues (629 533 499)  
Soraya Arquero (679 455 764)



Ondo  
pasau  
jaietan!

Basabe poligonoa 4, EO-11 20 550 ARETXABAleta Tel.: 943 79 01 51 / 608 772 867 Faxa: 943 77 15 03  
e-mail: construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

# URRIAK 11

# IKASTOLA EGUNA



jokoak



haur parkea

Aranzadizalea  
bazara...



## ARANZADI

*ikastola*

Kalitatezko  
Euskal Heziketa



txorizo  
eta salda

bazkaria



ibilaldia

erromeria

...zatoz gurekin  
ondo pasatzera!!!

**URRIA  
IKASTOLEN  
HILABETEA**

Urriak 5: Kilometroak Iruran

Urriak 11: IKASTOLA EGUNA Aranzadin

Urriak 19: Nafarroa Oinez Iruñean

Bazkarirako izen ematea: Aranzadi Ikastolan irailaren 29tik urriaren 7ra

San Martin Plaza 4 • 20570 BERGARA

Tel. 943 76 90 71 • bergara@ikastola.net • [www.aranzadiikastola.org](http://www.aranzadiikastola.org)



# Zenbaki Ahokulariak



**EMPRESA  
CERTIFICADA  
ISO 9001:2000**



**Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

**Laborala:**

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

**Fiskala:**

- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

**Kontabilidadea:**

- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

## SAN MIGEL JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABAleta

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

## Aurpegi-gaztetzea kirurjia barik

Emaitzia natural eta osasungarriak lortzen ditugu aurpegi-espresioa aldatu barik.

R.P.S. 297 / 05.

**Maite Agirre**  
Amagara Estetika  
Zentroko zuzendaria



Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

**Cristina Arruabarrena doktorea.**  
Medikuntza estetikoan eta homeopatian espezialista  
Dietetika eta nutrizioan diplomaduna  
Kolg. Zbkia. 6073

### Teknika mediko-estetikoak pertsonalizatzen ditugu

Vistabel (botoxa)

•

Azido hialuronikoa

•

Hidronutrizioa

Peeling kimikoak

•

IPL laserra eta beste

Elektroporazioa

•

Bitaminak eta antioxidatzaleak

•

Azala indarberritzea



Herritarrak kalean dantzan iazko San Migel jaietan.

MIRARI ALTUBE

## GIZARTE ZERBITZUAK > BERDINTASUNA

# Berdintasun zerbitzua abian da abuztua ezkero

Murgibe aholkularitza enpresa hartu dute zerbitzua emateko, eta eguenetan egoten da teknikaria udaletxean

M.A. > ARETXABAleta

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko jarri du abian Udalak Berdintasun Zerbitzua. Horretarako, Bilbon egoitza duen Murgibe aholkularitza enpresa hartu du, eta Jaione Fraile da zerbitzuko teknikaria abuztua ezkero. Eguznetan (09:00-14:00) egoten da teknikaria Aretxabaletako udaletxeen (Gizarte Zerbitzuen bulegoan) eta harremanetan jarri gura izanez gero, hona hemen helbide elektronikoa: [berdintasuna@aretxabaleta.net](mailto:berdintasuna@aretxabaleta.net).

## DIAGNOSTIKOA ETA PLANA

Abian jarri berri duten zerbitzuko teknikariak esku artean duen zeregin garrantzitsuenetako Aretxabaletako emakume eta gizonen arteko berdintasun diagnostikoa egin eta ondoren plana garatzea da. Bai diagnostikoa egiteko, bai plana aurrera eroateko herritar guztien partaidetza eta implikazioa eskatzen du teknikariak: "Proiektua irekia izatea gura dugu, eta horretarako guztion partaidetza ezinbestekoa da", dio Frailek. Hala, partaidea samurtzeko eta herritarren ekarpenak jasotzeko asmoarekin, komunikatzeko hainbat bide zabalduko dituzte.

Horrekin batera, berdintasunaren arloan dauden jardueren eta zerbitzuen gaineko informazioa herritarrei helaraztea izango da teknikariaren beste ardetako bat.

## EMAKUMEEN TOPAKETA

Berdintasun teknikariak, gainera, herriko hainbat elkartea eta eragilerengana joko du emakumearen egoeraren gainean jarduteko. Eta herriko emakumeen topaketa jarri gura du abian emakume horien beharrak hobeto ezagutzeko asmoarekin. Horregatik, interesaturik egon daitekeen edozein emakumek har dezake parte topaketan: "Herriar guztiek animatuko nituzke prozesu ireki horretan parte hartzera. Gure herrian emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrerapausoak emateko balioko du. Hala, elkarritzetarako esparruak zabalduko ditugu, eta, zalantza barik, arazoak eta beharrak identifikatzeko balioko du", argitu du Frailek. Laster zabalduko dute guztien berri, eta parte hartzeko deialdiak egindo dituzte.



MIRARI ALTUBE

## Txintxaun berritzaleak jolasguneetarako

Kurtzebarri eskola alboan eta Bedarretako San Migel auzunean dauden jolasguneak berritu dituzte oraintsu. 2008ko aurrekontuan aurreikusi zuten gastua ~120.000 euro-, eta dagoeneko bukatuta daude bi parkeak. Araudiak eskatzen duen moduko zorua jarri diente biei eta txintxaun berritzale eta seguruk ere bai: tirolina, hodi gaineko txirrista... Gaztetxoak gustura baino gusturago dabilta egunotan parke berriean.

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAleta

**BENGOA  
URDAITEGIA**

**Bertako okelak eta odolosteak**

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: **943 79 19 79**

EUSKARA > LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

## Lau ikastaro urrian Loramendirekin

Eskulanak egingo dituzte, bonsaiak zaintzen ikasi eta dantzan eta bertsoak egiten trebatu

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Hainbat ikastaro antolatu ditu Loramendi Euskara Elkarteak udazkenerako. Azken urteotan legez, eskulanak izango dira izarrak, baina horiekin batera bonsaiak zelan zaindu erakusteko aditu bat ekarriko dute eta euskal dantzen oinarritzko ikastaroa egingo dute Loramendi Dantza Taldeko kideen eskutik.

### ESKULANAK ETA DANTZAK

Loramendi EE barruan dagoen Tril emakume elkartea antolatu ditu eskulan ikastaro biak. Aurreko ikasturteetan legez, Rosa del Aguila irakasleak martitzenetan (18:00-20:00) irakatsiko du eskulanak egiten: pampinak margotu, ispluak egin, altzari txikiak berritu... Eguaztenetan (18:00-20:00), ostera, Blanca Pereak kakorratza eta puntuak egiten, bordatzan eta patchword teknikarekin lan egiten irakatsiko du. Bietarako izenematea epea zabalik dago, eta azken eguna urriaren 6a da. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute ikastaro bakotza eta bazkide ez direnek, 30 euro.

Bestalde, euskal dantzariak ez dakitenendako oinarritzko ikastaroa antolatu du Loramendi Dantza Taldearekin. Urriaren 13an hasi eta azaroaren 3a

bitartean egingo dute, astelehenero (18:30-20:00) udaletxe zaharrean. Ikastaroa debalde da, eta izena emateko azken eguna urriaren 3a.

Samuel Cuevas adituak, ostera, bonsaiak zelan zaindu erakutsiko du eguznetan (18:00-20:00) urriaren 16tik azaroaren 27ra bitartean -hamabostean behin. Izena emateko azken eguna urriaren 10a da eta debalde izango da ikastaro hori ere.

### BERTSOLARITZA

Aurreko urteetan legez, ikasturte berriarekin bertsolaritza eskolak ematen hasiko dira. 9 eta 12 urte arteko neska-mutikoek bertsoak egiten ikasiko dute Nerea Urra arrasatearra-rekin egubakoitzetan (17:45-18:45), urriaren 10ean hasita. Izena Loramendin eman behar dute interesatuek eta azken eguna urriaren 3a da.

Helduek ere badute bertsolaritzan murgiltzeko aukera. Iaz sortu zuten taldea hainbat herritarrek eskatuta, eta hamar bat lagun elkartzen dira eguznetan (19:00) Loramendin. Giro onean eta bertsoak lagun, euskararekin jolas egitea eta ondo pasatzea beste helbururik ez dute taldekiek. Bi ikastaroak debalde dira.

KULTURA &gt; LIBURUA

# Jose Mari Horcajadaren gerrako kontuak jaso dituzte liburu baten

36ko gerra sasoian Aretxabaletan biziakoa jaso dute Tresponde (Araba) herrian bizi den 'Joxetxiki'-ren ahotik

**A. ANTXIA/M. ALTUBE > ARETXABAleta**  
1924 eta 1936 urte artean Aretxabaletan bizi izan zen Jose Mari Horcajada Martinez (Huelves, 1920) Joxetxiki-ren biziakoa jaso dituzte liburu baten: *La Mancha nos dio un gudari*. Aretxabaletako kontuak eta gerra sasoiko biziakoa dituen liburua urriaren 4an aurkeztuko dute Arkupe kultura etxearen.

## CUENCAKO ARETXABALETARRA

Huelves herrian (Cuenca) jaioa, 1924an ailegatu zen familiarekin batera Aretxabaletara. Lagun asko egin zituen orduan, eta euskaraz ikasi zuen -oraindik ez zaio ahaztu. 1936ko irailaren 24an faxistak gurean sartu zireneko lekukoa izan zen, eta Durangora alde egin behar izan zuen. 16 urterekin gudarien Zapadore konpainian eman zuen izena, Loiolako 4. Ingeniari Errejimendu barruan. Porrota irentsi behar izan zuen eta askatasunik gabeko bidaia luzeari ekin zion: lehenengo Aretxabaletako Zarraoa etxeen, gero Añorgako Zapatari kartzelan, ondoren Miranda de Ebro (Burgos), Madril eta Reusko kontzentrazio-esparruean (Tarragona). Azkenean, Langile Batailoietatik pasatu behar



Joxetxiki-ren alaba Maria Santos Horcajadak marratzu du liburuaren azaleko irudia.

'JOXETXIKI'

izan zuen Jubera (Soria) eta Garrapinilloen (Zaragoza). Sufrimendu, gaixotasun, tratu txar, gose eta miseria garaiak

jasan behar izan zituen. Hori gutxi ez, eta soldadu bidali zuten: Lizarrako Indartze Errejimen-uko Zapadore konpainian sar-

tu zuten, eta pala eta pikatxoia esku artean zuela Agiña mendian ibili zen lanean. Handik Menorca irlara eroan zuten.

Bizimodu zibilera 1945ean itzuli zen, eta senideak Gasteizen elkartu ziren. Une gogorrak ziren gerra ostekoak, baina Malkorre baserriko Juan Arregi eta haren anaiek tril egin zuenean zeharo aldatu zitzzion etorkizuna. Pertsona geldiezina, laster sartu zen administrazioarekin harremanetan eta politikan. Arabako udal elkartea baten idazkari izan zen -Iruña Oka, Mendoza, Los Huetos-, ondoren Zalduondorria joan zen eta azkenik Iruña Okako alkate eta zinegotzia izan zen.

## AURKEZPENA

### 'La Mancha nos dio un gudari' liburua urriaren 4an aurkeztuko dute, Arkupen

Joxetxiki-k berak jaso ditu oroitzapenok liburuan, eta Arantza Berezibarrek, Jose Ramon Intxausketa eta Aitor Antxiak zuzenketa lanak egin dizkiote. 36ko gerraren gaineko kontuak batzen hasi eta Joxetxiki-ren berri izan zuten hiru lagunek. 2006ko apirilean egin zioten bisita, eta oroimen liluragarriko gizona aurkitu zuten. 1935eko errolda datuekin joan ziren gero, eta kale eta etxeen zenbakia aipatzea nahiko zuten bertan bizitako familien berri emateko. Joxetxiki-ren istorioak entzunda sasoi bateko Aretxabaletako bizimodua ezagutu dute, eta orain herritar guztiengana iritsiko da.

## EUSKARA > BARRIKETAN

# Hasi du ikasturtea Barriketanek

Talde batzuk osatu barik dituzte eta lekua dago astean ordubetez euskaraz berba egin gura duten euskaldun berriendako eta zaharrendako

**M.A. > ARETXABAleta**  
Hirugarren ikasturtea hasi du Barriketan egitasmoak gurean. Talde batzuk dagoeneko hasi dira elkartzen eta beste batzuk osatu zain daude, baina irail bukaera-rako guztiak izango dira lanean.

**INTERESATUAK, EUSKALTEGIRA**  
Leintz udal euskaltegiak, Loramendi EEk eta Udalak abian jarritako egitasmoak euskaraz berba egiteko tartea eskaintza

du helburu. Hala, hiru edo lau laguneko taldeetakoak osatzen dituzte euskaldun berri eta zaharren artean eta astean ordubete elkartzen dira euskaraz jarduteko. Iaz 14 bat talde osatu ziren, eta aurten oraindik osatzen dabil-tza. Baten batek interesa izanez gero -eusklaldun berriak zein zaharrak- euskaltegira dei dezela 943 79 21 68 edo ondorengo helbide elektronikora idatzi: [guru@leintz.euskalnet.net](mailto:guru@leintz.euskalnet.net).



Barriketan egitasmoko talde bat lanean aurreko ikasturteetan.

BARRIKETAN

## DENDARIEI DEIA

Egitasmoak arduradunek dendariei ere egin zieten iaz egitasmoan parte hartzeko gonbita, baina ez zen talderik sortu. Beste deial-

di bat egingo dute orain eta parte hartzera animatzen dituzte. Interesaturik agertuz gero, dendarien ordutegira moldatutako taldeak osatuko dituzte.

## ETXEBIZITZAK

### Azaroaren 20an, babes ofizialekoen zozketa

Behin betiko zerrenda onartu, eta urriaren erdian jakinaraziko dute

**M.A. > ARETXABAleta**  
Deba ibaieren beste aldean egitekoak diren babes ofizialeko 100 etxebizitzek badute zozketa eguna: azaroak 20, eguna. Zozketarako onartutakozerrenda ikusgai egon da uztail eta abuztuan, eta alegazioak aurkezteko epea izan dute zerrendatik kanpo geratu direnek. Epe hori bukatuta dago, eta urriaren erdialdera behin betiko zerrenda bidaliko du Etxebidek udaletxera. Behin-behineko zerrendan 130 bat izen zeuden, horiaz, zozketa egiteko ez dira askoz gehiago izango.

Aipatutako etxebizitzok Bruesa eraikuntza enpresak egingo ditu, Deba ibaieren beste aldean egiten dabilen gainerako etxe guztiak bezalaxe -tasatuak eta libreak.

**> KIROLAK**  
**Multifitness egin gura dutenek beste aukera bat dute 08:15ean**

Orain dela 15 egun eman zion hasiera Kirol Zerbitzuak ikasturteari eta hainbat jarduera jarri zituen abian Ilargi plazako Zainduz gimnasioan. Orain, multifitness jarduera egin gura dutenek beste aukera bat dute: martitzen, eguazten eta eguenetan (08:15). Goiena Sporteko arduradunak jakinarazi digu batez ere merkatariengana pentsatuta sortu dutela beste talde bat goizetan. Izenemate epea zabalik dago.

**> KIROLAK**  
**Iturrigorriren erabiltzaileen artean batzarra urriaren 1ean**

Kirol Zerbitzuak jakinarazi du Iturrigorri pilotalekua erabiltzeko interesa dutenek erreserba egin beharko dute-la aurretek. Jakinik interesatu asko egon daitezkeela -kirol etxea itxita dagoelako-, batzarra egingo dute urriaren 1ean, eguaztena (18:00), hori guztia argitu eta erreserba orduak hartzeko. Kirol Zerbitzuak irailaz geroztik Iralabarri plaza duen bulegoan izango da batzarra -lehen, Kulturako bulegoak zeuden lekuaren

ELIZA > KARGU-HARTZE EKITALDIA

# Joxan Larrañagak parroko kargua hartuko du gotzainaren eskutik

Domekan, 11:00etan egingo duten elizkizunean dantzariak, txistulariak eta parrokiako bi abesbatzek parte hartuko dute, besteak beste

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Mikel Goiaingeruaren parrokiak erretore berria izango du domekatik aurrera. Hain zuzen ere, Joxan Larrañagak (Deba, 1956) hartuko du kargua Juan Mari Uriarte gotzainaren eskutik, domekan, 11:00etan egingo duten meza nagusian. Besteak beste, Sabino Zuazabeitia, azken 14 urteotan Oñatiko parroko izan denak; Joxan Larrañaga, erretore berriak; eta Juan Mari Uriarte gotzainak hartuko dute parte. Kontsagrazioaren ondoren, Oñatz Dantza taldeak *Banakoa* dantzatuko du aldare nagusian.

Erretore kargua hartu ondoren, Joxan Larrañagak lehen hitzak esango dizkie parrokiara hurbiltzen diren eliztarrei. Elizkizuna bukatu ondoren lurcha egingo dute parrokian bertan.

'JESUSEN EBANJELIOA ZABALDU'

Astelehenean egon zen Joxan Larrañaga Oñatin lekualdaketa egiten. Besteak beste, apaiz-etxea margotu egin dute.

Domekako kargu-hartze ekitaldiaren aurretik esan zigun zeintzuk diren etorkizunera begira dituen asmoak: "Nahiko lan izango dut aurrerantzean. Lehenengo parrokiaren inguruau dauden taldeak ezagutu nahi ditut, eta bakoitzak ze lan egiten duen zehaztu. Hori guztia egiteko urtete beharko dut. Bainak, aldaketa askorik egin gabe, egiten dihar-dutena suspertu nahiko nuke. Bestalde, nire helburu nagusia Jesusen ebanjelioa herritarrei zabaltzea da".

Urduri dagoela ere esan digu: "Oñati ezagutzen nuen, Arantzazuko martxan parte hartu dudalako eta Beneditarren monasterioan egon naizelaok. Turista moduan ere egon naiz lagunekin. Bainak, ez dut jendartea ezagutzen. Herri berri batera nator eta horrek urduritasuna sorrarazten dit. Bestalde, gogotsu nator".

Ekainaren 13an izendatu zuen Juan Mari Uriarte gotzainak Oñatiko parroko berria. Hasiera batean sei urterako kargua izango da: "Billabonako parrokiara heldu nintzenean sei urterako zen, baina 16 urte egon naiz han; eta ez dakit Oñatik zenbat egongo naiZen. Kontua da, apaiz gutxi gaudela, eta geroz eta zaharragoak garela. Hortaz, aldaketa asko egiteko aukerarik ez dute Donostia-ko Elizbarrutian".

TRINTXEROPEN APAIZTU ZEN


Irakasle ikasketak egiten ziharduela Seminario ikasketetik hasi zen. Apaizgai zela aisiaaldiko begirale eta zuzendari tituluak atera zituen; eta Elizbarrutiko Hezkide Eskolan ibili zen.

1982ko ekainaren 13an apaiztu zen Trintxerpen. Hango parrokiak bi urte egin zituen, eta Usurbilgo parrokiara bidali zuten beste bi urtez. Ondoren, Tolosako Santa Maria parrokiak egon zen apaiz laguntzaile moduan. Azken

16 urteak Billabonako parrokiak eman ditu erretore lanak egiten. Billabonan egon den urteotan Asteasuko eta Alkizako parrokiak ardura izan du, eta tartean Amasakoarena ere bai.

GURASOENGANDIK URRUN

Oñatiko parrokoa izango dela jakin zuenean, Billabonako lagunek agur-afaria egin zioten. "16 urtetan lagun asko egin ditut Billabonan. Horregatik guztigatik, pena handia ematen dit parrokiak aldatzea. Era berean, gurasoengatik urrutia egingo naiz. Nagusiak dira, eta haienkin egotea zailagoa izango da hemen-dik aurrera", esan digu Joxan Larrañagak.



Joxan Larrañaga, Oñatiko parrokiako sakristan.

MIREIA BIKUÑA

## Sabino Zuazabeitia 14 urte egon da parroko

Sabino Zuazabeitiak 1994. urtean hartu zuen erretore kargua Mikel Goiaingeruaren parrokiak. Iaz ospatu zituen apaizgintzako urrezko ezteiak. Bere apaiz bizitza ia osoa Oñatin eman du: lehen urtea Beasain-Garin auzoan egin zuen apaiz, eta gainerako 50 urteak Oñatin.

Erretiroa hartuko duen arren, Oñatin geldituko dela esan digu, eta kargu edo erantzukizun barik, ahal duen guztian laguntzeko prest dagoela esan digu. "Astelehenean elkarrekin bazkaldu genuen, eta esan nion behar duen guztirako laguntzeko prest nagoela". Apaiz-etxea utzi du baina, aurrerantzean, parrokiak Errekalden duen etxeen biziko da.



Show Business taldeak kontzertua egingo du bihar txosna gunean. GOIENKARIA

JAIAK > SAN MIGELAK

## Askotariko ekitaldiak San Migel jaiei hasiera emateko

Musika, haurrendako ekitaldiak eta auto klasikoak erakusketa, gaurtik aurrera

Txosna batzordeak antolatuta rock kontzertua egingo dute, bihar 21:30ean, Plan B, Etsaiak, Show Business eta Norman taldeek.

MIKEL AOZARAZAREN EGUNA

Txistulari Bandaren goizere-siarekin hasiko dituzte domekako ekitaldiak. 11:00etan hasita 49. Nazioarteko Artzain Txakur txapelketa jokatuko dute Santa Lutziako zelaietan. Bestalde, 12:00etan txosna gunean auto klasikoak erakusketa egingo dute. Umeendako *Betizu eta oilarraren kukurrukua* ekitaldia egingo dute plazan, 18:30ean.

Parrokiako kanpandorrekit jaitsiko da txantxikua 20:00etan, eta danborrada nagusia 23:00etan hasiko dute. Domekako musika doinuak Joselu Anaiai taldeak argazki erakusketa egingo du plazako arkupetan. Foruen Enparantzan.

> OHARRA

## Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude herriko sei tabernatan eta kultura etxeen

Urriaren 4an ospatuko den Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko. Hain zuzen ere, sei tabernetan jarri dituzte: Izarraitz, Arrano, Guria, Anton, Umerez eta Olakua tabernetan. Era berean, kultura etxeen eros daitezke 16:30etik 20:30era arte, egunero. Txartelak 17 eurotan jarri dituzte salgai. Menua izango da: patatak errioxar erara, arkumea txilindron erara, hostopil tarta ananarekin, kafea eta kopa. Herri bazkaria kiroldegi kantxa berdean egingo dute 14:30ean hasita.

> DEIALDIA

## Ikastolen oinarrizko curriculum komunaren ardatzak aztertai eguztenean, Txantxiku Ikastolan

Ikastolen III. Batzarrean Euskal Curriculum propioa garatzeko hartutako konpromisoarekin jarraituz, bilera antolatu dute Txantxiku Ikastolan. Hain zuzen ere, eguztenean egingo dute plaza-ko eraikinean, 18:30ean. Bileran, besteak beste, ikastolen oinarrizko curriculum komunaren ardatzak baloratu eta hobetzeko proposamenak aztertuko dituzte. Bereziki ikastolako guraso, laguntzaile eta ikasle ohindako deialdia egin dute. Bilera egiten duen bitartean, haurretzaindegia zerbitzua egongo da.

OSOKO BILKURA &gt; HIRIGINTZA

# Industrialdea kudeatzeko asmo berriak onartu ditu Udalak

Debagoineneko Industrialdearen eskuetan utzi gura dute

Ibarraundi ingurua urbanizatzeko lehen fasea hasiko dute

IKER BARANDIARAN &gt; ESKORIATZA

Herenegun, eguztena, ohiko osoko bilkura egin zuten udaletxeen. Hainbat gai izan zituzten berbagai eta eztabaidegai, baina ez zen tirabira handirik izan. Gai gehienetan adostasuna lortu zuten batutako zinegotziek.

Aztergai izan zituzten gaien artean nabarmenetako bat honako hau izan zen: Ibarraundi ingurua urbanizatzeko aurreikusita dituzten lanen barruan, lehenengo fasea esleitzeko erabakia hartu zuten. Lau enpresa aurkeztu

ziren lan horiek egiteko, baina bik bete zituzten gutxiengoak. Hala, azkenean Orsa SLk egin beharko ditu lanok. Horren arabera, 15 asteko epean San Pedro auzoari autoendako irteera egin beharko diote Ibarraundi atzetik. Eta horrekin batera, urbanizazio guztia egin beharko dute.

Esan beharra dago, baina, lan horien kostua ~300.000 euro inguruoa- Eskoriatza Sustapenek ordainduko dutela, Udalarekin aurretik zeukan zorra kitatzeko. Hain zuen ere, Intxaurtxuetako

etxebizitzak egin zituenean, azkenean Udalak hartu zuen urbanizazio lana; eta horren ordainketarekin estaliko dute Ibarraundi urbanizazio berria.

Fase horri beste batzuek jarraituko diote, gerora egiten joango direnak. Asmoa da Ibarraundi museoaren ingurua era datzea eta oinezkoendako pasealekua egitea, bestea bestea.

**INDUSTRIALDEAREN KUDEAKETA**  
Berbagai izan zuten beste gai bat Eskoriatzako Industrialdea izan

zen. Joan den ikasturtean egindako hausnarketari jarraituta, Udalaren asmoa da industrialde horren kudeaketa Debagoieneko Industrialdea erakundearen eskuetan uztea. Horretarako, baina, Debagoieneko Industrialdearen baziak diren Mankomunitatearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Jauriartzako Spirlurren baimena behar dute.

Herenegun onartu zutena da alkateak horren gaineko eskaera egitea Mankomunitateari. Gerora joko dute beste erakundeetara.

Pedro Lasagabaster alkatearen esanetan, egindako hausnarketaren ostean ondorioztatu dute Debagoieneko Industrialdeak Eskoriatzako Udalak baino hobeto kudeatuko duela udalerriko industrialdea. "Aspaldi egin zioten Udalari eskaintza hori, baina orduko udal agintariekin ez zuten gura izan".



Huhezik gero eta ikasle gehiago dauka eta gero eta ekimen gehiago egiten ditu. Udal eta Huhezi elkarlan lantzen dabilta.

IKER BARANDIARAN

HUHEZI

## Udalak eta Huhezik elkarlan hitzarmena sinatuko dute

Osoko bilkurako beste gaietako bat Udalaren eta Huheziren arteko hitzarmena izan zen. Lehendik ere bi erakundeek hartu-emakan izan dituzte, baina aspaldian askotan batzartu dira, eta oso harreman onak dituzte.

Horren arabera, Huhezik, udalerrrian areto berria egin artean, kapera uzten dio Udalari kultura ekitaldiak egiteko. Horrez gain, unibertsitateak dituen bi aparkalekuak (Dorleta goikoa eta San Vitorreko) erabilera publikorako dira. Horren ordez, baina, Udalak kirol ekipamenduak erabiltzeko aukera ematen dio unibertsitateari.

Bestalde, bi erakundeen asmoa da Huheziren ekintzetako batzuk unibertsitatetik herrira ateratzea; eta, bestea beste, Udalak hainbat ikasleri praktikak egiteko aukera eta beste laguntasun batzuk ematea.

ETXEBIZITZA &gt; LURZORUAREN LEGEA

# EBk salatu egin du etxebizitzen gaineko prozedura

Aranburuzabalan egin beharreko etxebizitzen planaren aldaketa Lurzoruaren Legearen barruan onartu ez izana salatu dute EB-Berdeek

I.B. &gt; ESKORIATZA

Eskoriatzako EB-Berdeak taldeak salatu du ez dagoela konforme Udal Gobernuak Aranburuzabala kalean etxebizitzak egiteko plan partziala aldatzeko erabili duen prozedurarekin.

Lehenik eta behin, EB-Berdeek uste dute plan horren lehenengo onarpena uztailaren 27an egitea ez zela egokia izan: "Halako erabakien aurrean hilabeteko

alegazio epea egoten da, baina abuztua horretarako ez da aproposa, eta ez zitzagun idea ona iruditu", azaldu zuen EB-Berdeak taldeko zinegotzi Juan Luis Merinok.

Horrez gain, talde horrek salatu gura du planaren behin betiko onarpena "ezohiko osoko bilkura baten egin zela, Lurzoruaren Legearen barruan sartu baino bi egun lehenago, hain zuzen

ere". Hala, Merinok azaldu zuen plana aldatzeko onarpen hori bi egun geroago egin izan balitz, hau da, irailaren 20an, "gasolindegia inguruan eraikiko diren 40 etxebizitza berriatik legez ehu-neko berrogei, 16 etxebizitza, babestutakoak izan beharko luke-tela. Horren aurretik onartu zenez, baina, etxeak eraikiko dituen enpresa ez dago babestutako etxe kopuru jakin bat egitea behartuta".

**ETXEBIZITZAK EGITEAREN ALDE**  
EB-Berdeak taldeko ordezkaria argitu gura izan zuen bere taldea ez dagoela plan horren aldaketa-

ren kontra; hau da, bai Aranburuzabalan eta baita Kuatruenan ere etxebizitzak egitearen aldekoak direla, baina erabilitako prozedura eta datekin ez daudela konforme. "Arrazoi horregatik", azaldu zuen, "ezohiko osoko bilkuran hartutako erabaki guztiei baiezko botoa eman genien, Aranburuzabalo plana-ren aldaketari izan ezik".

### PROMOTOREEI MESEDE

Horren aurrean, Eskoriatzako Ezker Batua-Berdeak taldeak hainbat zalantza dituela jakinarazi zuen. Hala, Merinok salatu zuen onarpen horrek eskoria-

tzarrei ez diela mesederik egiten. "Norbaiti mesede egiteko tan, promotoreei izango da. Halako ekintzen aurrean, badi-rudi Udalak promotoreei lagun-dura gura diela. Ez diogu beste zen-tzurik hartzen".

### ALKATEARI ERANTZUNA

Bukatzeko, Merinok aintzat har-tu ditu ezohiko osoko bilkuran alkateak esandako hitzak. Hain zuen ere, aldaketa horrek hiri-gintza eta gizarte hobekuntzak ekarriko dituela. EBren ustetan, hirigintza hobekuntza izango bada ere, gizarteari ez dio berez-ko mesederik egingo".

JENDARTEA > AMUSKA EMAKUME ELKARTEA

# "Laguntza eskatzen diguten herriko ekitaldi guztietan esku hartzen dugu Amuskakook"

21 urte pasa dira Amuskakoek elkarte legala eratu zutenetik, aurretik lan egin arren

Astelehen eta martitzenean eman beharko dute izena ikastaroetarako

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZAKO**  
Amuska emakumeen elkartea, urtero moduan, batzarkideak aldatu ditu. Uda aurretek egindako zuzenbatzarrar, baina irailean eman dituzte izenak aditzera. Honako hauek dira gaur egungo karguak: presidentea, Dorleta Urrutia; idazkaria, Gurutze Idigoras; diruzaina, Filo Martinez; eta gainontzeko batzordekideak: Nerea Egiguren, Maria Angeles Sanz, Izaskun Zubizarreta, Maria Jesus Uribe eta Mari Jose Gilgado, hain zuzen ere.

Amuska orain dela 21 urte era- tu zen elkartea moduan, baina aurretik herriko hainbat emakume antolatuta zeuden izen horrekin. Gaur egun, Amuska elkar- teak 145 bazkide dauzka; gaztee- nak 33 urte ditu, eta nagusienak, 80 inguru.

**EMAKUMEEN AISIALDIA ANTOLATU**  
Elkarteko arduradunek hasiera- ko asmo berberekin jarraitzen dute: emakumeek aisialdia lan- tzeo eta antolatzeko baliabide- ak eta aukerak ematea.

Dena dela, elkartekoek beti argitu dute eurek antolatutako ekintzetan gizonezkoek ere esku har dezaketela. "Lehentasuna bazkideek daukate, baina gizonak ere ongietorriak dira, jakina", azaldu zuten.

**HERRIKO ERAGILE ESANGURATSUA**  
Bestalde, nabarmendu beharra dago Amuskak esku-hartze han- dia izaten duela udalerrian egi- ten diren ospakizun eta ekitaldi berezietan: danborradan, Olen- tzero egunean, erretiratuen jaian, Urde lardero Egunean, Aste Zap- tistean eta abar... "Udalarekin elkarlanerako hitzarmen bat adostuta dauagu, eta, horrez gain, laguntza eskatzen diguten guztietan esku hartzen dugu".

Are gehiago, udalerrian egi- ten diren ikastaro gehienak anto- latzen ibiltzen dira.



Argazkian, gaur egungo batzordekideetako batzuk.

IKER BARANDIARAN

Hala, ikastaroei dagokienez, Amuskak prest dauka ikasturte honetarako ikastaro eskaintza. Asteleheneta eta martitzena izango dira izena emateko egunak. Interesatuek kultura etxera jo beharko dute 18:00etatik 19:30era bitartean.

Aurten honako ikastaroak antolatu dituzte: ehoziriak eta bainika, olio-pintura, eskulanak, antzerkia eta patchwork. Azken

hori, gainera, aurtengo berri- kuntza da. Iaz, berriz, antzerkia lehenengo aldiz egin zuten eta aurten errepikatu egingo dute.

Horrez gain, berbalidetara- ko ideia ugari dituzte eta horren finantzazioaren zain daude. Txan- goei dagokienez, urriaren 25ean Santanderko El Soplao kobak ikustera joango dira eta martxo-aren 8an ere beste ibilaldi bat egingo dute.

ESANAK

**"Gure ekintzetan bazkideek lehentasuna duten arren, gizonezkoek ere esku har dezakete"**

Dorleta Urrutia > Presidentea

**"Urtean zehar egiten ditugun ekitaldi arrakastatsuenak, jendetsuenak, ikastaroak eta bidaia- txangoak izaten dira"**

Dorleta Urrutia > Presidentea

INGURUMENA > FORMAZIOA

## Basoan lan egiteko ikastaro eskaintza

Urrian hasita, basogintzarekin lotutako hiru ikastaro egingo ditu herrian Itsasmendikoi elkarreka

dia modu errealean ikusteko aukera izango dute, makinako kabinatik ikusten den modu berberean.

Ikastaroak urriaren 13an hasiko dira eta izenemate epea dagoeneko zabalik dago. Hor- taz, interesa dutenek honako bideak erabil ditzakete: 943 69 21 66 edo 675 70 18 01 telefono zenbakiak edo [fraisoro@itsasmendikoi.net](mailto:fraisoro@itsasmendikoi.net).

**HIRU IKASTARO**

Ikastaroetan hainbat gai landu- ko dituzte, hala nola basogin- tzan biltzeo makinekin ibil- tzea, oinarrizko trebakuntza, alor horretan erabiltzen den teknologia berrien erabilera eta beste. Guztietan plazak oso mugatuak dira.

KIROLA > UDAL ESKAITZA

## Kirol eskaintzarako izenematea zabalik dago

Astelehenetik egubakoitzera 3 eta 12 urte bitarteko zerbitzua jendaurrera zabaldu dute

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako kiroldegiko ikas- taroez arduratzen den Goienas- port empresak aditzera eman du ikasturte honetarako antolatu duten eskaintza. Are gehiago, izenematea zabalik dago joan den astea ezkerro.

Izenematea kiroldegian egin behar da, baina izena eman aurretik erabiltzeek matriku- la egiteko argibideak irakurtzea komen da. Bertan adierazten da kobratzeak zelan egingo diren, baja emateko baldintzak zeintzuk diren eta baita izena ematean bete behar diren orriak zeintzuk diren ere. Esko-

riatzako Udalak izenemate orriak udal webgunean eskura- garri jarri ditu, gura duenak handik har ditzan.

**ESKAINTZA ZABALA**

2008-2009 ikasturterako presta- tu duten eskaintzan honako kirolak praktikatzeko aukera dago: tonifikazioa; hirugarren adineko gimnasia; sasoian ego- teko gimnasia; batuka; multi- fitnessa; spinninga; Atzegikoei zuzendutako gimnasia; gluteo- ak, abdominalak eta hankak lantzeko gimnasia; eta defentsa pertsonala, besteak beste. Hala, aukerak asko dira.



SPINNINGA Joan den ikasturteko eskola bat.

I.B.

Hitzaldia udaletxean  
egingo dute eta  
antzerki saioa Olaran  
Etxean izango da

Bilboko txangorako eta  
meriendarako irailaren  
29an edo 30ean eman  
behar da izena

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Erretiratuen elkartekoak antolatu,  
Kultura Astea izango da  
urriaren 6tik 10era bitartean.

Hitzaldi batekin hasiko dituzte  
erretiratuek ekintzak. Urriaren  
6an, 17:00etan, udaletxean  
Adindu elkarteko hizlari batek

**GIZARTEA > ERRETIRATUAK**

## Urriaren hasierarako, Kultura Astea antolatu dute erretiratuek

adinekoen lokomozio-aparatuan  
gaixotasunen gainean jar-  
dungo du. Urriaren 7rako, berriz,  
merienda antolatu dute. 17:30ean  
izango da, Zurrategiko erretiratu-  
tuen lokalean, eta merienda-  
nosten kina jokoa izango da.

### BILBORA TXANGOA

Bestalde, txangoa egingo dute  
Bilbora urriaren 9an. Diputazioa  
eta katedrala bisitatu-  
tu eta baziaria, dantzaldia eta zoz-  
keta ere izango dituzte.

Txangorako eta merienda-  
ko izena eman behar da aurrez  
irailaren 29an edo 30ean erreti-  
ratuen lokalean, 18:00etatik  
19:00etara bitartean. Txangorako  
NA zenbakia eman beharko da.

Kultura Astea amaitzeko,  
antzerki saioa izango da urriaren  
10ean Olaranen, 17:30ean. Urre-  
txu eta Zumarragako erretiratu-  
tuen Iria-Makia antzerki taldearen  
eskutik *El Cuadro de la Baro-  
nesa* antzezlanan ikusteko aukera  
izango da.

Migel Montori erretiratuen  
elkarteko idazkariak esan digu iaz  
Kultura Asteko ekitaldian 390  
lagunek hartu zutela parte eta  
aurten beste horrenbeste elkartzea  
nahi luke-tela. Haren esanetan:  
"Gure helburua da adineko jendea  
etxetik ateratzea, ekintzak egite-  
ko aukera eskaintza".

Bestalde, esan digu euren  
asmoa dela inaugurazio Torreso-  
roako gizarte etxeko erretiratu-  
tuen lokal berrira, Landatxope-  
ra aldatzea, inauguraziorako.

**OSASUNA**

## Bost odol emaile sarituko dituzte

Azken odol ateratze  
saioan 88 lagunek  
eman zuten odola  
Olaranen

**I.A. > ANTZUOLA**  
Odol ateratzea izan zen irai-  
laren 18an Olaran etxearen.  
Odol emaileen elkartekoek  
eskerrak eman nahi dizkiete  
egun hartan odola ematera  
joan zirenei. Guztira 88 ate-  
ratze egin zituzten.

### JAIA ARRATEN

Bestalde, Antzuolako bost  
odol-emailek intsignia eta  
diploma bana jasoko dute  
urriaren 26an, Arraten, Deba-  
roko odol-emaileen jaian.  
Pablo Hernandok 75 odol ema-  
te kopurua gainditu duten  
diploma jasoko du; Basilio  
Ormazabalek 50etik gorakoen-  
ta; eta 25 aldiz odola eman  
dutenen intsignia eta diploma  
Juan Jose Aranburuk,  
Nicomedes Velardek eta Mari  
Tere Zumelagak.



Finalista eguna ospatu zuten irailaren 20an Trekutzen Arrola elkartekoek eta mendizaleek.

NEREA ZUBIETE

**KIROLA > MENDIA**

## Arrolakoek bizikleta irteera antolatu dute

Trekutzen finalista eguna ospatu ostean, bertan  
behera geratu zen Leratero kanpaldia

**I.A. > ANTZUOLA**  
Irailean ohikoa du Arrola men-  
dizale elkartekoak finalista eguna  
ospatzea Trekutzen, eta hala egin  
dute aurten ere mendizaleek hilare-  
n erdialdean.

dako, gainera, Gipuzkoako  
Kutxak eta Euskadi Kutxak  
emandako opariak izan ziren.

### HURRENGO HITZORDUA

Arrolako elkartekoak irailaren  
20an Leratero kanpaldi irteera  
ere egitekoak ziren, baina bertan  
behera geratu da, jendea ez dela-  
ko animatu.

Hala ere, badihardute irtee-  
ra gehiago antolatzen. Hurrengo  
bizikletaz egingo dute urriaren  
4an. 35 kilometroko buelta izan-  
go da, Bizkaiko itsas ertzetik Kas-  
trorainoko.

Bizikleta ibilaldirako izena  
emateko martitzenean, irailaren  
30ean, joan behar da Arrolaren  
lokalera 19:00etatik 20:00etara.

### MUJIK HARATEGIA



**Berezitasunak:**  
*Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak*

**Kalebarren, 1.**  
**ANTZUOLA**  
**Tf. 943 76 64 34**

**AISIALDIA > OPORRETAKO ARGAZKIAK**

## Maite Telleriaren Mexikoko argazkiak ikusgai

Batez ere Pazifikoko  
kostaldeko argazkiak  
erakutsiko ditu

**I.A. > ANTZUOLA**  
Antzuolarrak munduan egitas-  
moaren barruan, hainbat  
herritarrek oporretako argaz-  
kiak erakutsiko dituzte jen-

daurrean. Lehenengo emanal-  
dia Maite Telleriaren eskutik  
etorriko da.

Mexikon izan da Maite Telle-  
ria, koinatuaren familiakoak bisi-  
tatzent lehenengo eta turismoa  
egiten gero. Bidaiaren bigarren  
zati horretako argazkiak eraku-  
tsiko ditu batik bat, Pazifikoko  
kostaldean ateratakoak.

Irudiekin muntaia egingo du  
eta musikaz lagundutako ikus-  
entzunezkoa eskainiko du. Ema-  
naldiaren amaieran, bidaiaaren  
gaineko galderak egiteko auke-  
ra izango da. Olaranen da hitzor-  
dua urriaren 2an, 18:30ean.

Aurrerantzean, beste antzu-  
olar batzuen oporretako argaz-  
kiak ikusteko aukera izango da.

**> HEZKUNTZA**  
**Izenemate epea  
luzatu dute helduen  
euskarra eskoletarako**

Helduen Heziketa eskoletan  
izena emateko epea luzatu  
egin dute irailaren amaiera-  
ra arte. Ingeles eskolak ema-  
tekoak baziren ere, bertan  
behera utzi dituzte, jende  
gutxik eman duelako izena.  
Euskara escolek, ordea, aurre-  
ra egingo dute eta hasiera mai-  
lako eskolak 14:30etik 16:30era  
bitartean izango dira. Euskar-  
ra ikasi nahi duenak hilaren  
amaierara bitartean izena  
eman dezake udaletxean.

HEZKUNTZA > HAURRESKOLA

# Irailean hasi dituzte Torrealdean haurreskola berria egiteko lanak

Martxan diren egokitze lanok ia 300.000 euroko aurrekontua dute

Haurreskola egun eskaintzen dituen 10 plaza izatetik 23 plaza izatera pasako da

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Beharginak lanean dira Torrealdeko babes ofizialeko eraikinean. Haurreskola, ludoteka eta gaztelekua egin behar dituzte bertain. "Eragozpen larririk ez badago, behintzat, urte hasierako lanak amaituta egon beharko lukete", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.

Herri Eskolako eraikinean kokatuta dagoen gaur egungo haurreskolak hamar ume hartze-ko ahalmena du. Haurreskola berriak zerbitzu hori 23 umeri eskaintzeko aukera emango du.

"Proiektua parte-hartze prozesu batean definitu da", adierazi du Erostarbek. "Bilerak haurreskolako irakasleekin, Juanjo Kintela adituarekin eta interesa agertu duten herriarrekin; bisi-ak Bergarako, Antzuolako, Herri-naniko eta Gasteizko Ibaiondo



Torrealdeko hezkuntza gune berriak haurreskola, ludoteka eta gaztelekua hartuko ditu.

SAGARDO EGUNA

## Tortilla lehiaketan, Fly nagusi aurten

L.Z. > ELGETA

Aurten, 31 taldek hartu dute parte Sagardo Egunaren barruan Elgetako gaztetxeak aurreko zapaturako antolatu-tako tortilla lehiaketan.

Epaimahaikoen iritziz, Fly taldekoek egin zuten tortillarik goxoena. Maya taldeak itxura onenaren saria eskuratu zuen eta azkenengo postuan Sargorita taldekoak gelditu ziren.

## Sailkapena

SAILKAPENA	PUNTUAK
1. Fly	23
2. Bost bikainak	22
3. Karramarroak II.	21
4. Aralar	21
5. Bi eta bat	21
6. Txamak	20
7. Argiñana	19
8. Maya	18
9. IPS	18
10. Poteito	17
11. Faka Faka	17
12. Elgeta ezker abert.	16
13. Piperrak	16
14. Mirari eta Elena	15
15. Iñaki	15
16. 90.120	15
17. Arzuma	15
18. Millonariuak	15
19. Ja, ja, ja gaztetxia	14
20. Elgetako kozinerak	14
21. Arzak-ekuak	14
22. Ea, ea, gaztetxia	13
23. Pintxe-e-roak	13
24. Paborrealak	13
25. Pimienticos	13
26. Trumoiak	13
27. Naira	13
28. Karramarroak I.	12
29. Guateke	12
30. Txotxeruak	11
31. Sargorita	8

BIODANTZA

## Biodantza saioak hastear

Urriaren 9ko klase irekian doan parte hartzeko aukera emango dute

L.Z. > ELGETA

Badira urte batzuk Elgetan biodantza saioak egiten dituztela. Aurten ere interesu guztiek aukera izango dute saio horietan izena emateko.

KLASA IREKIA, DOAN

Biodantza ezagutzen ez dute-nendako eta interesa dute-nendako klase irekia egingo dute urriaren 9an, doan. Elgetako herri eskolan izango da, 19:00etik 21:00etara. Elena Subijana eta Ana Sousa dira irakasleak. Argibide gehiago-rako: 606 63 61 99.

KIROLA > IZENEMATEAK

## Gaur da azken eguna Udaleko Kirol Zerbitzuetan izena emateko

Udalak zortzi zerbitzu ipini gura ditu martxan urri hasieran; taldeak osatzeko bederatzi lagun behar dira

L.Z. > ELGETA

Gaur, hilaren 26a, da 2008-2009 ikasturteko udal kirol zerbitzuetan izena emateko azken eguna.

Elgetako Udalak zortzi zerbi-tzu ipini gura ditu martxan urri hasieran eta jakinari du gutxiez bederatzi lagun beharko direla taldeak osatu ahal izateko. Ekintzen inguruko argibide guztiak -ordutegiak, prezioak, maiztasunak...- udaletxeen edo bolatokian aurkituko dituzue, baita ikastaroetan izena emateko bete beharreko orria ere.



Ikasturte amaierako batuka erakustaldia.

> IRTEERA  
**Erretiratua**  
**Landako urtegira doaz urriaren 8an**

Urriaren 8rako, eguztena, Elgetako Erretiratuen Elkar-teak irteera antolatu du. Landako urtegian egingo dute arratsalde pasa.

Jakinarazi dute joan-eto-rrria autoetan egingo dutela. Hitzordua 14:45ean egin dute Ozkarbi elkartean. "Bakoit-zak ahal duen neurriko ibilaldia egingo du", adierazi dute elkartekoek.

Interesatuek Pedro Mari Uberarekin jarri behar dute harremanetan. Komeni da urriaren 5a baino lehen ize-na ematea.

ZORTZI IKASTARO AUKERAN

60 urtetik gorakoendako kirol saioak, helduendako sasoian ego-teko gimnasia, batuka, yoga, tai

txia, haur zein gazteendako psikomotrizitatea, oinarrizko soin hezkuntza eta zerbitzu konbina-tua dituzue aukeran.

KULTURA &gt; LEHIAKETAK

# Aramaioko argazki lehiaketako izenemate epea zabalik dago

Urriaren 31 izango da argazkiak aurkezteko azkeneko eguna; Zuaiko Koadrilak, bestetik, euskara bultatzeko lelo lehiaketa antolatu du

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Argazki kamerak eskuetan haritzeko garaia iritsi da, Aramaioko Udalak aurten ere argazki lehiaketa antolatu du-eta. Arrakasta handia izan ohi du lehiaketa horrek Aramaion, eta Udalak oraingoan ere parte-hartze handia espero du.

Lehiakide bakoitzak nahi beste argazki aurkeztu ahal izango ditu, bakoitzari izenburua eta atera zeneko data jarrita. Argazkiak koloreetan zein zuri-beltzean aurkez daitezke, eta neurriak 18x24 izan behar du. Urriaren 31n amaitzen da lanak aurkezteko epea.

**SARIAK**

Aurten ere argazkiak urtaroka sailkatuko dituzte. Hau da, negua islatzen duen argazki onena, udaberria islatzen duen argazki onena, etab. Horietako



2007ko lehiaketako argazki irabazlea.

A. AGINAGALDE

bakoitzak 100 euroko saria jaso du. Horrez gain, lehiaketak irabazole nagusia izango du; irabazoleak 200 euro jasoko ditu.

**LELO LEHIAKETA**

Argazki lehiaketa, baina, ez da abian den lehiaketa bararra. Zuaiko Koadrilak euskara bultatzeko lelo lehiaketa antolatu du. Kasu horretan, urriaren 17an amaituko da lanak aurkezteko epea.

Lau kategoria bereiziko dituzte: 10 urtera arteko umearria, 11 eta 17 urte bitartekoena, helduena (18 urtetik aurrera) eta 55 urte baino gehiago dituztenena.

Leloak, gehienez, zortzi hitz izan behar ditu eta parte-hartziale bakoitzak bost esaldi entregatu ahal izango ditu. Lanok Zuaiko Koadrilak osatzen duten udalerrietako liburutegietan, udal bulegoetan edo Zuaiko Koadrilako bulegoetan aurkezta beharko dira; edo bestela, ziurtatutako posta bidez.

Orijinaltasuna, sormena eta erabilitako euskararen aberastasuna izango dira kontuan lanak baloratzeko orduan. Esaldi onenak 350 euroko saria jaso du. Kategoriaka, gero, irabazole bakoitzak 75 euroko txeke bat irabaziko du liburu denda batean erabiltzeko.

UDALA &gt; ZERBITZUAK

## Lorezaintza zerbitzua eta kaleak garbitzekoa adjudikatu ditu Udalak

Makai enpresak egingo ditu lorenzaintza lanak, baina herriko gazteek kontratatuko ditu horretarako

A.B. &gt; ARAMAIO

Lorenzaintza zerbitzua eta kaleak garbitzeko zerbitzua lehiaketara atera zituen Aramaioko Udalak eta dagoeneko adjudikatu ditu bi zerbitzu horiek.

Lorenzaintza lanak Makai enpresak egingo ditu hemen-dik aurrera. Orain arte Gasteizko Indoor Gardens enpre-sa arduratzen zen lan horietaz, baina abuztu amaieran amaitu zitzzion Udalarekin sinatu-tako kontratua.

Aretxabaletako da Makai enpre-sa, baina Aramaioko lanak egiteko herriko gazteek kontratatuko ditu. Hori izan da-eta Udalaren baldintza-ko bat. Kirodegia kudeatzeaz arduratzen diren bi gazteek jardungo dute lorazain. Asier Agirre alkateak azaldu duenez, Makai moduko enpre-sa baten esperientziaz baliatu nahi dute, baina herritarra-k gura dituzte lan horiek egiten.

**KALE GARBIKETA**

Kale garbiketa zerbitzua ere lehiaketara atera zuen Udalak. Zerbitzu hori ere adjudikatu dute, eta kasu horretan ere kirodegiaz arduratzen diren bi gazteek egingo dituzte lanok. Zerbitzu horiek guztiak bateratzea izan da Udalaren asmoa. Hau da, pertsona berak aritzea lan horietan guztietan.

&gt; IKASTAROA

## Konposta egiteko tekniken ikastaroan izena emateko epea zabalik dago urriaren 3ra arte

Ikastaro hori etxeetan hondakin organikoak ustiatzea erabakitzenten duten herritarrei dago zuzenduta: lorenzaintzan, nekazaritzan, abeltzaintzan edo basogintzan diharduten profesionalei. Ikastaroa urriaren 11n hasiko da eta hiru jardunaldi izango ditu, zapatu-tetan. Bi ordu eta erdikoak izango dira eta atal teorikoa eta praktikoa izango dute.

Izenematea doan da eta eskuliburu praktikoa, CDa eta konpostagailua jasoko dituzte ikastaroan parte hartzen duten guzti-ek. Gehienez 20 pertsona onartuko dira eta izena emateko azken eguna urriaren 3a da. Ikastaroaren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero udaletxera deitu besterik ez dago.



## Lourdesen izan ziren asteburuan boluntario gisa

Joan den irailaren 18an ateratako argazkia duzue hori. Aramaioko emakume talde bat Lourdesera joan zen asteburuan, bertako gaixoei laguntzen. Lourdesera eramango zituen autobusaren zain zeuden bitartean ateratako argazkia da.

Guztira zortzi emakume joan ziren, boluntario, eta baita bi gaixoe ere. Urtero-urtero egiten duten irteera solidarioa da hori. Gasteizko Hospitalarias de Lourdes ekarteko kideak dira guztiak. Lourdesen dauden bitartean gaixoak zaindu eta ekitaldi erlijiosoetara eramatzen dituztela azaldu digute.

R. MONDRAGON


URTEURRENA > DORLETAKO AMA BIRJINA

## Dorletako Amaren 50. urteurreneneko ekitaldiak antolatzen dabilta

Txirrindularitz  
batzordeak eta Udalak  
elkarrekin antolatuko  
dute ospakizuna, eta  
batzarra daukate gaur,  
egubakoitza, ekitaldiak  
lotzen hasteko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA  
Martitzenean elkartu ziren Txirrindularitz batzordeko kideak eta Eusebio Villar alkatea Dorletako Amaren urteurrena zelan ospatu erabakitzeko. Badakite Bizkaiko txirrindulari talde batek ekitaldiren bat egiteko interesa duela, eta ekitaldi horiek eta herrikoek antolatutakoak zelan bateratu pentsatu behar dute. Gaur bigarren batzarra egingo dute kontuak lotzen joateko.

ZIKLOTURISTEN TOPAKETA  
Urriaren 26an ospatuko dute Dorletako Ama Birjinaren 50. urteurrena; hilabete barru, hain zuzen. Meza esango dute egun horretan Dorletako Amaren santutegian, eta ondoren zikloturisten topaketa egingo dute santutegi aurrean. Oraindik ekitaldiak ez daude lotuta eta gehiago ere izan daitzekeela esan digu Jose Inazio Beloki kideak, baina aipatutako biak izango dira garrantzitsuenak. Hasiera baten zikloturisten martxa antolatzea aipatu zuten Txirrindularitz batzordeko kideek, Arrasatetik Dorletarainoko, hain zuzen, baina azkenean



Arlaban errepide ertzean dagoen Dorletako Ama Birjinaren irudia.

TURISMOA > GAZTAINUZKETA

## Behin-behineko esleipena mendi etxeak kudeatzeko

Amaia Olabe eta Xabier Jausorok egin dute eskaintza bakarra, eta 15 egun dituzte dokumentuak aurkezteko


Jausorok –fidantza...–, eta eguztenean hasita 15 egun dituzte. Epe hori pasatutakoan, udalatzak berriro aztertuko ditu aurkeztutako agiriak, eta behin betiko onartzeko osoko bilkura egingo du. Onartz gero, kontrata sinatuko dute eskatzaileek, eta Gaztainuzketan dauden zazpi mendi etxeen ardura hartuko dute lau urte-rako. Epe hori pasatutakoan berrikusi egingo du kontrata Udalak, eta arazorik egon ezean 20 urte arte luza dezake.

**EGURREZKO ZAZPI ETXETO**  
Gaztainuzketa Arlaban gainean dago, basoaren erdian. Lo egiteko egurrezko zazpi etxetxo ditu erosotasun guztiak hornituta, tartean sukaldea. Jate-txe txiki bat ere badauka. Eta gainera, arduradunak bertan bizitzeko tokia dauka. Turismoa bultzatzeko egin zituen Udalak bere garaian, eta ondo-ren lehiaketara atera. Etxeen ardura Montse Valerio eta Loren Larrañagak izan dute azken 12 urteotan, aurtengo abuztua arte; orain, Soran Etxea hotela zabaldu dute herrian.

**BEHIN-BEHINEKO ONARPENA**  
Eskaintza zabaldzu zuen udalbatzak martitzenean, eta aurkeztutako dokumentuak aztertu. Egindako eskaintza onartzea erabaki du Udalak, baina oraindik behin-behineko onarpena da. Dokumentu gehiago aurkeztu behar dituzte Olabek eta

> ERRETIRATUA  
**Nafarroa aldera joango dira erretiratuak egun pasa urriaren 9an, eta izenematea zabalik dago**

Udaberrian eta udakenean egiten dituzte irteerak Gatzagako erretiratuek, eta urriaren 9an Nafarroa erdialdera joango dira. Goiz partean Lizarran egingo dute bueltatxoa, eta bertan dauden santutegiak ikusi. Bazkaltzera Aiegi herrira joango dira; Iratxe hote-lera, hain zuzen. Interesatuek aurrez eman behar diote izena Erretiratuen batzordeko kideren bat. Elkartea ordainduko du bidaia eta baziideek bazkaria bakarrik ordaindu beharko dute.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

PILOTA &gt; TXAPELKETA

# Mendizabal eta Muguruza San Migel txapelketan izango dira

Finalaurreko norgehiagokak jokatuko dituzte bihar Zubikoan

Amateur mailan ibarreko Mendizabalek eta Muguruzak hartuko dute esku

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
Aloña Mendi pilotak sailak antolatuta San Migel txapelketako finalaurrekoak jokatuko dituzte bihar, 16:00etan hasita, Zubikoa pilotalekuaren. Txapelketan gazte mailako eta amateur mailako pilotariekin hartuko dute esku.

**PUNTAKO TXAPELKETA**  
Antolatzailak amateur mailan puntan dabiltsan pilotariak ekartzen ahalegindu dira, eta Debagoinenak bi ordezkari izango baditu ere, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako pilotariekin jokatuko dute txapelketan. Hala, Antzuolako Mendizabal eta Bergarako Muguruzak lanak izango dituzte bihar finalera sailkatzeko.

Hasteko gazte mailako pilotariekin jokatuko dute. 16:00etan Iriondo eta Arzelus bikote gipuzkoarrak Bizkaiko Arrieta eta



2006ko San Migel txapelketako erretretua; tartean da aurten ere lehiatuko den Aitor Mendizabal.

GOIENKARIA

Aretxabaleta izango dituzte aurrean. Eta ondoren jokatuko dute Arrietak eta Lanak Nafarroako Alustizaren eta Iturriagaren kontra.

Amateur mailako pilotarien txanda etorriko da segidan. Eta pilotak zaleek orduan ikusi ahal izango dituzte ibarreko pilot-

riak. Lehenengo partiduan Nafarroako bikote Urtasun eta Arraztoak Mendizabalen eta Linzoainen kontra jokatuko dute, eta ondoren etorriko da Bergarako Muguruzaren txanda; Bengoetxearekin bikote, mahoneroak Amantegi eta Lopez bizkaitarrak izango ditu aurrean.

## FINALA HERRI EGUNEA

Aurreratu moduan, zapatuak jokatuko dituzten partiduak finalaurrekoak izango dira. Kanporaketako irabazleak urriaren 4ean, Herri Egunean, jokatuko duten finalerako sailkatuko dira. Egun horretan 22:30ean hasiko da pilotak jaialdia.

ERRUGBIA

# Entrenatzaile izateko formakuntza kurtsoa

ARTk errugbioko entrenatzaileendako formakuntza kurtsoa egingo du

**X.U. > ARRASATE**  
Formazio ikastaro hori bi egunetan egingo dute, eta bihar izango da lehenengo saioa. Kurtso horretan errugbiak dituen arlo ezberdinaren gainean egingo dute berba: jokalariak dituen joko-erre-kurtsoak, jokaldiak, egoerak, mugimenduak, joko arauak, lehen sorospenak... Eta, urriaren 18an egingo dute bigarren kurtsoa.

**LAGUNARTEKO PARTIDUAK**  
Arrasateko taldeei dagokiez, senior mailako gizonezko eta emakumezkoek lagunarteko partiduekin jarraituko dute asteburuan, ligarako prestakuntza modura –gizonenekoek datorren astean hasiko dute liga, eta emakumezkoek urriko lehen asteburuan.

Hala, gizonezkoek Ordiziaren kontra jokatuko dute zapatu eguerdian Mojategin (12:00). Eta, emakumezkoek hiruko torneo batean lehiatuko dira Igorren (Bizkaia); Mungia eta Maule taldeen kontra jokatuko dute.

MENDIA &gt; EUSKADIKO BETERANOEN MARTXA

# Udalatx inguruan egingo dute urriaren 12ko mendi martxa

Gaur, egubakoitza, da Euskadiko Beteranoen Martxan izena emateko azken eguna

**X.U. > ARRASATE**  
Besaide Mendi Elkarteko ordezkariak azken egunetan ibili dira zehazten urriaren 12an egingo duten Beteranoen Martxarako ibilbidea. Hala, basabideak erre-kuperatzeko helburuarekin, sasoi batean Udalatxeko meategietan lan egiten zuten langileek erabiltzen zitzuten mendi bideak erabiliko dituzte zeharkaldia egiteko.

Ibilaldiak 14 kilometro izango ditu, Monterronen hasi eta amaituko dute, eta 08:30erako egin dute hitzordua. Besaidekoek aurreikusten dute lau ordu

inguru beharko dituztela beteranoen martxa hori egiteko.

## AZKEN EGUNA

Gaur, egubakoitza, da mendi zeharkaldi horretarako izena emateko azken eguna (5 euro). Horrekin batera, mendi bueltaren ondoren bazkaria egingo dute Uarkapen, eta bazkaltzera joan gura duenak 20 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Diru hori Euskadiko Kutxan (3035 0001 51 001 00001 93), edota Gipuzkoako Kutxan (2101 0055 67 0002 853141) sartu behar da, eta aurreratu moduan, gaur da azken eguna.



Urriaren 11n egingo dute mendiko bizikleta irteera.

ARTXIBOA

## MENDI HAMABOSTALDIA

Hain zuzen ere, beteranoen martxa Besaideren Mendi Hamabostaldiaren barruan dago. Urriaren 6an hasiko dira hamabostaldi horren barruan antolatu dituzten ekintzak. Aste barruan egingo dituzten proiekzioekin batera,

urriaren 18an eta 19an Gredoseko irteera egingo dute, eta urriak 7 eta 8 dira izena emateko egunak (19:30etik 20:30era, Besaideko egoitzan). Eta, urriaren 11n, berriz, Arrasateko mendiko bizikleta martxa egingo dute. 30 kilometroko ibilbidea izango da.

ESKUBALOIA

# Ford Mugarrik liga hasiko du bihar

**X.U. > ARRASATE**  
Denboraldi-aurrean lana gogotik egin eta gero, Euskadiko Txapelketan lehiatuko den Ford Mugarri Arrasatek bihar hasiko du liga txapelketa. Hala, Edu Orgazaren mutilek etxetik kanpora egingo dute estreinaldia, Portugaleteren kantxan (18:30).

## HASIERA GOGORRA

Arrasatek ez du zorte handik izan egutegiarekin, kontrario gogorrak izango ditu eta lehenengo jardunaldietan. Izan ere, Egia talde indartsua etorriko da bigarren jardunaldian Iturripera, eta Arrasatekoak Barakaldora joango dira hirugaren jardunaldian.



## Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINTZA  
PAREGABEA

### Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izen ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez ditzakun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).



**KREDIGAS**  
finantziaziō berezia,  
instalazioa hileko kuota erosotan  
finantzatzeko.



**570€**  
ere emango dizugu

Promozi honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziaziō berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozi estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozi honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
[www.naturgasenergia.com](http://www.naturgasenergia.com)



**naturgas  
energia**

FUTBOLA &gt; REALAREN HITZARMENA

# Gipuzkoako taldeei zor diena argitzeko eskatu dio Galdosek Badiolari

Diputazioak 820.000 euro eman zizkion Realari otsailean, Gipuzkoako taldeen artean banatzeko

GOIENKARIAK irailaren 5ean argitaratu zuen Realak 49.000 euro pasatxo zor zizkiola ibarreko futbolari

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Kirol diputatu Iñaki Galdosek Realari emandako 820.000 euroen gaineko azalpenak eman behar izan zituen astelehenean, Bazaar Nagusietan. Aralar taldeko Rebeca Uberak horrela eskatuta eman behar izan zituen Galdosek azalpenok, eta ordezkarri guztiak onartu zituztuen diputatuak esandako-

ak. Ez hori bakarrik, Realak jasotako diru hori errekuperatzeko neurriak hartu behar dituztela erabaki zuten, aho batez.

## BADIOLAREN ETORRERA

Galdosen esanetan, Realak 2007ko abendua arte bete zuen Gipuzkoako taldeekin zuen hitzarmena. Urtarrilean hartu zuen Badiolak Realaren gidaritza, eta presidente berriak Realak harrobiko taldeekin zuen hitzarmena onartu zuen. Hori horrela, Galdosen esanetan otsailean Diputazioak 820.000 euro eman zizkion Realari, taldeen eta Gipuzkoako Futbol Federazioen artean banatzeko.

Realak uztailaren 31 zuen diru hori banatzeko azken eguna, eta klubek ez zuten dirurik jaso. Hala, GOIENKARIAK irailaren 5ean argitaratu zuen Realak 49.000 euro pasatxo zor zizkiola Debagoieneko futbolari, eta diru hori barik taldeek denboraldiai aurre egiteko zelako zailtasunak izango zituzten azaldu zuen.

## DIRUA BUELTAZKO ESKARIA

Badiolak datorren martitzena baino lehen azaldu behar du zer egin duen diru horrekin. Hala eginen ez badu Diputazioak apurtu egingo du talde txuri-urdinarekin duen hitzarmena, eta horrek bi ondorio izango lituzke. Batez, Realari dirua itzultzeko eskatuko liokete (820.000 euro), eta bestetik, Gipuzkoako klubek Diputazioaren eskutik jasoko lukete hitzarmeneko diru-laguntza.

Hain zuzen ere, Diputazioko Kirol zuzendari Iñaki Ugarteberruk klubetara bidalitako gutunean zehazten da Realarekin hitzarmena apurtuz gero Diputazioa bera arduratuko dela diru kopuru hori ordaintzeaz.

## ZUHURTZIA

Galdosek berak datorren martitzenera arte zuhurtziaz jokatzeko eskatu zuen batzarrean, eta Realak zer egiten duen ikusi. Baina, diputatuak berak onartu zuen ez duela talde txuri-urdinaren partetik gauza handirik espero.



ALEX MOLANO/WWW.LAINO.INFO

## Skate festan Eder Antia lehenengo

Truku Zikin Skate Festak antolatuta, joan den asteburuan egin zuten Bergaran skate jaia, eta erretretuak erakusten du ez zirela aspertu. Nagusien kategorian Arrasateko Eder Antiarendako izan zen leneneko saria, eta hamabost urtetik beherakoan Eskoriatzako Beñat nabarmendu zen. Baranda onenaren saria, berriz, Bergarako Trik-ek poltsikoratu zuen, eta nagusietan Arrasateko Dani Rosadok.

## > FUTBOLA

### Joan den astean Mondrari horrenbesteko min egin zion Tolosa izango da domekan Azkoagainen

Ligako bigarren jardunaldian Mondrak 5-1 galdu zuen Tolosaren zelaian, eta hain zuzen, talde horren bisita izango dute oñatiarrek domekan Azkoagainen (16:30). Mondrak eta Aretxabaletak, berriz, etxetik kanpora jokatuko dute. Arrasateko taldeak emaitza hobeak ekarri gura du bihar Azkoitik (16:00), eta Aretxabaleta lehenengo garaipenaren bila joango da EHU Vasconiarren zelaia, bihar (15:30).

**EUSKAL HERRIA Basatia NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA**

**IRAILAK 27 LEHENA DOAN!**

**6 liburuki**

Itsasertza, Basoak eta ibarrak, Labarrak eta haitzartea, Tontor nagusiak, Ibaiak eta ur-jauziak eta Euskal Herriko Atlasa

**Eskura ezazu berria rekin**

**berria**  
luzatu bostekoia

**berria**  
luzatu bostekoia

**kutxa**

**BABESLEAK** **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera. **GIPUZKAO FORU ALDUNDA**



## > DANBAKA

Astelehenean aditzera emango da nortzuk lehiatuko diren > 45



## > GOITB

262.000 euro bideratu ditu hobekuntzak egiteko > 51

## > INHAR AMENABAR

Auto lasterketako gidaria da, 20 urte ditu eta gradu ertaineko automozio modulua ikasten dihardu. 'Taxi 3' filma du gustuko. > 50



# IX. Txotxongilo Mostra: badator antzezpen uholdea

Urriaren 2tik 5era,  
mundu osotik  
etorritako txotxongiloak  
izango dira Bergaran

Aurtengo berritasunen  
artean, aipagarriena  
da mostra Zabalotegi  
areto eraberrituan ere  
izango dela ikusgai

**JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA**  
Datorren asteburuan ospatuko da Bergaran Helduentzako IX. Txotxongilo Mostra. Eguenean hasi eta domekara arte, antzezpen uholde baten lekuo izango da Bergara. Lau egunetan zehar, guztira 13 antzerki eta txotxongilo taldek emanaldia eskainiko dute; guztiek txotxongiloaren arteari lotutako ikuskizunak.

Mostra hori kultura eskaintza ezberdina denik ezin da ukatu, helduei zuzendutako txotxongilo saioak ez dira-eta batere ohi-koak. Ez dira ohi-koak, ez gure ibarrean, eta ezta Estatuaren ere. Horregatik, agian, heldu askori arrotza egingo zaio txotxongilo



De Kleine Scala: La Scala in miniature lana; soinekoan ezkutatzen den antzezlan.

batek dioenari erreparatzea. Hala ere, eta Bergarako mostrak urte hauetan guztietan erakutsi dueñe, arrotza dena ezin dibertigarriagoa suerta daiteke.

## TAUN TAUN TALDEAREN ESKUTIK

Lehen mostra 1991n egin zen. Ordutik hona, eta salbuespenak salbuespen, bi urtean behin antolatu du Taun Taun antzerki tal-

deak Txotxongiloen Mostra, Bergarako Udalaren laguntzaz. Izan ere, mostra Taun Taun taldeko kideen txotxongiloekiko zaletasunaren emaitza da.

Taldea sortu zenean, 1987ko abuztuan, helburu horrek sorrzu zen, euren zaletasun berezia ezagutzera ematea, betiere ikusle helduei bideratuta. Hasierako proiektu hura berezia zen oso, orduan orain baino ezohikoagoa baitzen helduentzako txotxongilo emanaldiak eskaintza. Hasierako urteetako taldea bera ere berezia zen. Antzerkigintzan, musikan eta beste alor artistiko batzuetan ibilitako lagun talde batzok osatzen zuen.

Garai hartaz oso oroitzapen onak gordetzen ditu Itsaso Azkarate Taun Taun taldeko kideak: "Oso talde polita eta aberatsa zen eta garai on batean bildu ginan, oso gazteak ginan-eta". Bergarako Udalaren laguntzarekin abiatuz, hainbat ikuskizun eskaini zituzten han eta hemen.

Ordutik hona 21 urte pasa dira, eta gauzak asko aldatu dira: kideei dagokienez, gorabehera asko izan ditu. Egun, lau kidek osatzen dute Taun Taun taldea: hiru aktorek eta teknikari batek. Lan metodologiari dagokionez, (44. orrialdean jarraitzen du)



Diego Stirman handia bueltan dator.



Hortzmuga taldearen Superplast lana.



Iñaki Matak bizitzako oztopoak gainditzen lagunduko digu Barreras lanarekin.



Chapertons taldearen Goma Gom.



Manologias, Perutik datorren obra.

## Egitarau zabala asteburu osoan

### Urriaren 2a, eguna

20:00, Zabalotegin  
*Entremets*  
Diego Stirman.  
Argentina/Francia.

### Urriaren 3a, egubakoitza

18:00, kalean zehar  
*Barreras*  
Iñaki Mata.  
Euskal Herria.

20:00, Zabalotegin  
*Goma Gom*  
Chapertons.  
Katalunia.

22:30, Pol Pol tabernan  
*La canja y malasombra*  
Canija konpainia.  
Katalunia.

00:00, Gaztetxeen  
*Manologias*  
La Santa Rodilla.  
Peru.

### Urriaren 4a, zapatua

12:00, San Martin plazan  
*Superplast*  
Hortzmuga.  
Euskal Herria.

13:30-18:00, Munibe plazan  
*De Kleine Scala*  
De Blauwe Hond.  
Herbehereak.

20:00, Zabalotegin  
*Teatro de sombras*  
Richard Bradshaw.  
Australia.

22:30, Usondo parkean  
*Malditas*  
Organik.  
Euskal Herria.

### Urriaren 5a, domeka

13:00-18:00, Espoloain  
*Encubando la luna*  
Azulkillas.  
Euskal Herria/Asturias.

20:00, Zabalotegin  
*Te odio*  
Edu Borja.  
Valentzia.

22:30, Gaztetxeen  
*Las cosas de la vida*  
Trastam.  
Katalunia.

### Urriaren 6a, astelehena

9:30-11:30, Zabalotegin  
(eskolarrentzat)  
*Te odio*  
Edu Borja.  
Valentzia.

## IX. Txotxongilo Mostra: badator antzezpen uholdea

(43. orrialdetik dator)

proiektu bakoitzean asko implikatzen dira taldeko kideak. Iku-sleei zerbaiz ezberdina eskaini nahi diete, "gustatuko zaien ezberdina den zerbaiz", hain zuen. Eta horretarako, obra bakoitza egin aurretik euren eskuetan dauden baliabide guztia erabiltzen dituzte ikerketa prozesu bat aurrera eramateko. Hala, buru-belarri sartzen dira obraren inguruko ezaugarri guztia aztertzen; eta hori emaitzan nabaritzen da.

Antzerki taldeak egindako lana eskertu egiten du Bergarako herriak. Horren adierazle da mostra guziek izan duten erantzun ona, nahiz eta eurek parte hartu ez. Bestalde, etorkizunari begira lanean jarraitzeko gogotsu daude Taun Tauneko kideak.

### IX. MOSTRAN ERE, DENETARIK

Badator, beraz, IX. Txotxongilo Mostra. Ekimen arrakastatsua bihurtu da, eta bere leku propioa aurkitu duen ekitaldi sorta da egun. Dagoeneko Debagoieneko jende asko erakartzen du, eta, besteak beste, Bilbo aldetik ere etorri izan da jendea. Ez dago batere gaizki, helduentzako txotxongilo ikuskizun eskaintza gutxitan ikusten ez den zerbaiz dela jakinda.

Aurtengo mostrari dagokionez, Azkaratek estilo eta aukera aniztasuna nabarmendu ditu: "Denetarik izango da ikusgai, txotxongiloen munduan denetarik baitago". Bestalde, kaleko ikuskizunek harridura piztuko dutela aurreratu du. Horrelako mostra bat antolatzea lan gogorra dela



Bradshaw *itzalen erregea* ere badator.



Azulkillas: aktoreak dira txotxongiloak.



Canja y malasombra Pol-Polera dator.

### IKUSKIZUN GOMENDAGARRIENAK

Ikuskizunen artean bere gomendioa egiteko orduan, lau emanaldi nabarmendu ditu Azkaratek, guztia erabat gomendagarriak direla gogoratu ondoren. Batetik, eta kalean harridura sortzeko emanaldie lotuta, Organik taldearen *Malditas* lana goraipatu du. "Ikuskizun itzela da, pertsonak eta panpinak uztartzen dituena". Bestalde, Richard Bradshaw *itzalen erregearen* lana ere nabarmendu du Azkaratek, eta baita De Blauwe Hond eta Azulkillas taldeen obrak ere.

### ZABALOTEGIREN IREKIERA

Azkarate, bestalde, pozik agertu da Zabalotege aretoaren irekiera dela eta. Izan ere, Zabalotege aretoaren inaugurazio ofiziala geroago egingo den arren, Txotxongilo Mostran zabaldu egingo dute.

Azkaratek dio albiste ona dela proiektu ezberdinak ezagutzera eman ahal izateko areto bat iza-tea. Izan ere, Taun Tauneko kideak dioenez, "azkenaldian Bergara kulturalki basamortua zen. Noizbehinka antolatzen ziren ekitaldiak, jaietan, umeei zuenduta... baina hortik kanpo ia ez zegoen ezer". Izan ere, leku pro-priorik gabe proiekturik ez dagoela oso argi dauka Azkaratek. Gainera, dio Taun Tauneko kideak, "jendea leku batera joatera ohi-tzea oso garrantzitsua da eta mos-trak horretarako balioko du".

### "ZER EGINGO DUGU EURAK BARIK?"

Azkenik, Txotxongilo Mostrak ikusleengen emozio berezia pizten duela dio Azkaratek. Iku-sbatek, adibidez, "eta orain zer egin behar dugu txotxongilo barik?", galdezu zion aurreko edizioa amaitu berri zenean. Adierazpen hori mostrak helburua lortu zuen seinale garbia da.



JOKIN BEREZIARTUA

Itsaso Azkarate > Taun Taun taldeko kidea

## "Agertoki batean sentitzen dena oso berezia da, ezin da hitzez azaldu"

J.B. > BERGARA

Txotxongilo Mostraren antolatzaile nagusi Itsaso Azkaratek (Bergara, 1963) sorkuntza maite du. Ez du kultura moduan definitzen, "orokorregia" baita. Haratago doa, guztioak darabilgun kultura terminotik haratago; hau da, bihotztek irteten den eta benetako sorkuntza da Azkaratek miresten duena.

Noiztik eta nondik datorkizu antzerki eta txotxongiloekiko zaletasuna?

Nik uste dut betidanik erakarri nauela antzerkiaren eta interpretazioaren munduak. Institutu garaian antzerki tailer batean eman nuen izena, eta gero, oinarrizko ikasketak amaitu ostean, arte dramatikoa ikasi nuen Donostiaro Antzerki Eskolan.

Eta nola ez, musikan hasten den edozein pertsona moduan, antzezlane-tara joan eta asko gustatzen zaizula konturatzen zara. Adibidez, Els Joglars taldea Bergarara etortzen zenean txunditu egiten ninduen, eta horrek, noski, eragina izan zuen ni mundu honetan sartzeko. Beste hainbat ikuskizun ere ezagutu ditugu, Estatuko eta nazioarteko hainbat txokotan.

Zerk erakarri zintuen gehien mundu honetatik?

Antzerkiak eta bereziki txotxongiloak sortzen duen igorle eta hartzalearen arteko erlazioa berezia da oso. Umeengan azkar asko ikus daiteke hori; erabat txunditura geratzen dira txotxongiloarekin, eta atzean dagoen aktoreaz erabat ahazten dira. Eta, bestalde, agertokiaren magia dago. Lagun batek zioenez, bizitzan egin beharreko betiko "seme-alaba bat, zuhaitz bat eta liburu bat" topiko horiez gain, bizitzan gutxienez behin egin behar den gauzatoko bat agertoki batera igotzea dela esaten zuen. Agertoki batera igotzea oso berezia da, ezin da sentitzen dena hitzkin azaldu. Eta gauza bat argi dago: gero ezin duzu utzi, zure mundua hau dela konturatzen zara.

Zaila al da txotxongilo bat erabiltzen ikastea?

Ez pentsa. Edozer izan daiteke txotxongilo, zuk hala nahi baduzu [betaurrekoak atzamarretan jarri, eta bere lagun berria aurkeztu digu]. Egiten duzu-na sinistea, hor dago gakoa. Eta eskuekin trebatzea, besterik ez. Hori bai, txotxongiloaren atzean dagoena interpretatziale ona izatea beharrezkoa da.

### TAUN TAUN TALDEAREN IBILBIDEA


## Dozena bat obra, nazioartean zehar hiru bira eta hainbat sari, 21 urteko ibilbidean zehar

21 urte pasa dira Taun Taun jaio zenetik. Proiektu horren hazia Bergaran erein bazeen ere, mundu osoak ezagutu izan ditu emandako fruituak.

Honako obra hauek aurkeztu ditu Bergarako antzerki taldeak urte hauetan guztietan zehar: *Terror bajo los hilos/Beldurra haripean* (1987), *Lam eta Lorea* (1989), *Bi kate* (1990) *Taun Taun Show* (1992), *Makinatu* (1994), *Ububabel* (1996), *Txio Txioka* (1999), *Kont Arte* (2001), *Galtzerdia* (2003), *Te-a-u-ene* (2003) eta *Batuta* (2006). Sarien artean aipagarrienak 1991n *Bi kate* lanagatik jasotako Madril Hiria saria eta 1992an *Taun Taun Show* ikuskizunak irabazitako X. Euskadiko Antzerki Topaketako lehen saria dira. Bukatzeko, Estatuan eta mundu osoan zehar hainbat antzerki jaialditan hartu dute parte eta zenbait obra aurkezteko -*Bi kate*, *Makinatu* eta *Ububabel*, hain zuzen- nazioartean zehar hiru bira egin dituzte.



Edu Borjak gorrotoa abiaburu hartuta kritika soziala egingo du *Te odio-n*.



Obra ezberdina da Organik taldearen *Malditas*: gizakia eta panpina protagonista.

Teresa Irastortza > Idazle Eskolako zuzendaria

## "Ahozkotasuna, haur-gazte literatura eta dibulgazioa aurtengo ardatzak dira"

N.M. > BERGARA

Teresa Irastortza Idazle Eskola-k zuzendaria da. Aurten, graduondoko horren 6. edizioa hasiko da eta zapatu mintegi praktikoak Bergaran emango dira, UNEDen egoitzan.

Zein da graduondokoaren helburua?

Helburua idazten erakustea da. Horretarako, hainbat ekintza egiten dira, batzuk ikasleek egiten dituzte eta beste batzuk, hitzaldiak adibidez, idazleek. Idazleak irakasle bihurtzen diren mintegi hauean, hainbat liburu irakurri beharko dira eta zapatueta komentatuko dira.

Zeintzuk izango dira ikasturte honetako berrikuntzak?

Urtero, ikasleen iradokizunekin hurrengo ikasturte osatzen dugu. Aurtengo ardatzak dibulgazioa, haur eta gazte literatura eta ahozkotasuna izango dira, ikaslek horrela eskatu dutelako. Dibulgazioa jorratzeko, narrazio historikoaren ildoan kokatzen diren zazpi euskal narrazio aukeratu ditugu eta hilean behin idazle-irakasle ezberdin bat etorriko da azalpenak ematera.

Edonork har dezake parte idazle-irakurle mintegi hauean?

Matrikula bat ordainduz gero graduondoko egiten ez dabilena ere ager daiteke mintegietara; baina hilero liburu bat irakurtzeko konpromisoa hartu beharko du.

Aberasgarria al da graduondoko?

Aurtengo seigarren edizioa da. Aurreko urteetan 140 ikasleko batez besteko egon da

eta 90 ikaslek amaitu dituzte ikasketak. Amaitu ondoren batzuek liburua idatzi dute eta beste batzuek hainbat lan egin dituzte; baina argi dago graduondoko oso baliagarria dela.

Ikastaroa amaitu eta liburua idatzi nahi ez duenak zer egin dezake?

Ikasketak bukatu ondoren, gauza berriak egiten jarraitzen dute ikasleek. *Luma berrien aleak* aldizkariak 6. zenbakia atera du eta [www.idatzi.com](http://www.idatzi.com)



Teresa Irastortza. GOIENKARIA

webgunea haien kudeatzen dute. *Ilunabar literarioak* ere antolatzen dituzte: duela gutxi bat egon zen Aretxabaletan. Gainera, urte honetan, lehenengo aldiz, ikasle ohiak euren lanak irakurtzeko eta akatsak zuzentzeko elkartuko dira.

Noiz hasiko dira matrikulak?

Urriaren 1etik urriaren 15era egongo da zabalik matrikulazio epea. Idazle-irakasle mintegietara joan nahi duenak azaroaren 1etik 15era egin beharko du matrikula. Ikasturtea urri amaieran hasi eta maiatz amaieran bukatuko da.

ARTZAIN TXAKURRAK > 49. TXAPELKETA

## Artzain txakurren txapelketa Oñatin

Artzain txakurren trebezia neurtzeko 49. nazioarteko txapelketa jokatuko da domekan

N.M. > OÑATI

Oñatiko jaien barnean, artzain txakurren trebezia neurtzeko 49. txapelketa jokatuko da domeka honetan, 11:00etan, Oñatiko Santa Lutzia zelaian.

Antolatzaileen esanetan, "txapelketaren egunean egiaztu ahal izango da artzain lanari esker euskal artzain txakurra

zenbateraino hobetu den. Ikulesenbat hain egokia ez den eguraldiarekin ere, txakurren lana bikaina izan ohi da, ez dadila inor horregatik beldurtu; gonbidatuta zaudete guztiak".

PARTE-HARTZAILEAK

Aurten, Euskal Herritik, Frantziatik eta Kataluniatik etorritako 12 parte-hartzaile egongo dira



Aby-Kem, joan zen edizioko talde irabazlea, kontzertuan Danbakako II. edizioko finalean.

GOIENKARIA

DANBAKA > SAILKAPENA

## Astelehenean ezagutaraziko dira Danbakako taldeen izenak

Aurkeztu diren 39 taldeen artean 24k joko dute zuzenean Danbakan; 23 sailkatuen zerrenda 'Asteleheneko Goienkaria'-n azalduko da

NEREA MENOR > BERGARA

Datorren urriaren 17an hasiko da Danbaka lehiaketa. Bitartean, epaimahaia buru-belarri dabil lanean, azkeneko grabazioak entzuten eta sailkatuen behin betiko zerrenda osatzen.

Musika estilo asko daudela azaldu digute, baita talde berri asko ere: "Danbakako aurreko edizioetan klasifikatutako talde gutxi daude, asko berriak dira, eta hori poztekoa dela uste dugu; Debagoienean, behintzat, talde berriak sortzen direla esan nahi baitu", azaldu digu lehiaketako epaimahaia.

Guztira, 39 talde aurkeztu dira 3. edizio honetan; Debagoieneko 24 eta Debabarrena eta Durangal-

dena aukeratzeko. Astelehenean bertan, sailkatu ez diren talde guztiak fitxa eta abestiak jarriko dira Danbakako webgunean eta egubakoitzar arte egongo dira ikusgai. Bertan sartzen diren guztiak gustuko duten taldearen aldeko bota eman dezakete egubakoitzar arte. Egun horratan, bertan, urriaren 3an, eguerdiko hamabietan amaituko da botatzeko epea eta hurrengo egunetan jakinaraziko da irabazlearen izena.

Hiru aste barru hasiko dira aurreneko kontzertuak Elgetako Espaloian eta aurtengo irabazlea datorren urteko urtarrilaren 16an jokatuko den finalean ezagutuko dugu. Bien bitartean, aurreneko bi edizioetako CD-DVDarekin berotzen has zaitezke eta buruak astindu Sharon Stoner, Aby-kem, Potemkin eta Muted-en doinuekin. Dagoeneko salgai dago-eta.



Iazko txapelketan maila handiako parte-hartzaileak egon ziren. JOSETXO ARANTZABAL

txapelketan. Txakurrei dagokionez, arraza ezberdinak izango dira partaide, "baina betiere txakur onenen presentzia izango dugu", gaineratu dute antolatzaleek.

Parte-hartzaileak ondorengoko dira: Joxemari Jauregi ilargitarra *Bizkor* txakurrarekin; Enrike Mendiguren orozkoarra *Riki*-rekin; Kepa Ardantza abadiñotarra *Izar*-rekin; Juan Jose Arrizabalaga elgoibartarra *Azkar*-rekin; Antonio Alustiza aresoarra *Tiki*-rekin; Jon Zuazo nafarretarra *Azke*-rekin; Pascal Cacheux larcandarra *Scott*-rekin; Pierre Pimmies Aramits-Beranekoa *Uso*-rekin; Marcel Uhalde alduetarra *Txiko*-rekin; Jean Atxeritogarai iholditarra *Umil*-rekin; Jose Mari Pleguezuelos tarragonarra *Nuca*-rekin; eta Jordi Muxach gironarra *Kis*-rekin.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bidekurutzeta kalean. Súkaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trasteleku. Prezio interesgarria. Oso aukera ona. Deitu 618 44 38 44 telefonora.

**Oñati.** 65 metro koadroko apartamento berriasalga erdialdean. Garaje eta guzti. 665 71 42 69

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza erdigunean. Hiru logela eta bi bainugela. Garaje itxia eta garbara. Guztizantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55

**ETXE AGENTZIAK**

**DEBA  
GARAIA**  
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI****BERGARA**

- Artekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Artekale, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubietza 65 m<sup>2</sup>, ondo, horturekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, ondo.
- Aranerreka, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekuak, 132 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Iriar Pasealekuak, 89 m<sup>2</sup>, ia berria.
- Elorregi, 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berritua. Oso ondo.
- Zubietza, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta orturekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Madurain, San Pedron, Masterrekan, Zubiarren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**

- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.

**ANTZUOLA**

- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m<sup>2</sup>, erdi berritua.

**ELGETA**

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Fax: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI****Bergara:**

- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubietza 80 m<sup>2</sup>. Berritua. Garbarekin.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m<sup>2</sup>. Ondo. Garaje aukera.
- Zublaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Lorentzo. Berritua. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkaruneta 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Garbarekin.
- Artekale 62 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubiaurre 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiarren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzen etxe berriak

**Antzuola:**

- Buztintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi. Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m<sup>2</sup>. Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko garbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berritua.

**Oñati:**

- Kale Zaharra. 62 m<sup>2</sup>. Terrazarekin. Ortua.
- Lezesari. 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Erdi berritua.
- Moyua. 75 m<sup>2</sup>. Oso aukera ona.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajera kalean. 950 euro hileko. 646 81 03 35.

**Arrasate.** Ikaileendako etxebizitza ematen da errentan Zerrajera kalean. Deitu 658 70 91 54 edo 605 72 39 51 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Hiru edo lau ikaile-rentzak geratuta dagoen etxebizitza ematen da errentan herrialdean. Koldo. Deitu 629 16 37 76 telefonora.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan universitateondoan. Deitu 659 44 86 79 zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan ikasle edo ikaskleen-dako. Lau logela eta bi bainugela. Deitu 686 40 82 00 telefono zenbakira.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza erdigunean. Hiru logela eta bi bainugela. Garaje itxia eta garbara. Guztizantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55

**IRAGARKI SAILKATUAK**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera utzterik ere.

**943 25 05 05 sailkatau@goiiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebe batzuetan gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA****Esperientziadun zerbitzaria behar da aste-bukaeretarako 659 05 63 82****ELGETA****Ile apaintzaile laguntzailea behar da 943 76 81 97 607 28 25 63****Arrasate edo Debagoiena.** Esperientziadun zerbitzaria sukaldean lan egiteko gertu. Baitek marigoketa, garbiketa edo bestelako lanak egiteko ere. 943 05 79 13.**Arrasate edo Debagoienean zerbitzari, garbiketa edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 610 82 02 17.****Arrasate.** Emakumea nagusiak zaindu edo beste edozelan lan egiteko gertu. Deitu 943 08 20 70 zenbakira.**Bergara.** Gela bat ematen da errentan Bolun, súkaldea era-biltzeko eskubidearekin. 670 85 68.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 670 40 74 53 edo 696 02 68 30.**Arrasate.** Emakumea nagusiak zaindu edo beste edozelan lan egiteko gertu. Deitu 943 08 20 70 zenbakira.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.**Arrasate.** Emakumea euskalduna edozein lan egiteko gertu.**Bergara.** Partsoa bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 659 82 75 18.



**Antonio Amor eta Soledad Lopez** 1958ko irailaren 20an ezkondu ziren Arrasateko San Isidro elizan. Urrezko ezteiak Andaluzian ospatu zituzten abuztuaren 9an. Orain Punta Umbria daude ezkon bidaian. Zorionak seme-alaba eta iloben partetik!



**Victor Gonzalezek eta Nerea Atxak** irailaren 26an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Gaur, egubakoitz, urrezko ezteiak bete dituzten egunean familiako guztien partetik zorionak eta muxu handi bana, bikote!




**Lierni Beldarrain eta Ibai Mendieta** bergararrak, zapatuan, irailaren 27an, ezkonduko dira Loiolako santutegian. Familiakoen eta lagun guztien partetik zorionak, ondo pasa, bikote, eta izan zoriontsu!



**Aitziber Oianguren eta Iñaki Arriaran** joan zen irailaren 6an ezkondu ziren Aretxabalaetako udaltxean. Ezkon-bidaian Tailandiarajoan dira. Laneko lagunen partetik zorionak, bikote, eta muxu handi bana.



**Alberto Ormaetxea eta Edurne Iraeta** ezkondu zirela 50 urte bete ziren joan zen zapatuan, irailaren 20an. Urrezko ezteiak ospatzeko zapatuan, irailaren 27an, bazkaria egingo dute. Zorionak familiakoen partetik.



**Leire Larrea** antzuolarra eta **Ales Sodupe** azpeitiarra irailaren 27an, zapatua, ezkonduko dira Azpeitian, Olatzko ermitan. Zorionak, bikote, lagun guztien partetik eta muxu handi bana. Ondo-ondo zuen pasa ezkontza egunean!



**Ramses Rodriguez eta Estibaliz Rodriguez** arrasatearrak irailaren 20an, zapatuan, ezkondu ziren Arrasateko udaltxean. Ezkonberrien familien partetik zorionak, bikote, muxu handi bana eta izan zoriontsu!

ESKELA

## Rafael Ceciaga Cortazar

Buenos Airesen hil zen 2008ko irailaren 25an, 73 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 28an, 12:30ean  
Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokiian izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

## Pedro Mari Muruamendiaraz Lete

Arrasaten hil zen 2008ko uztailaren 26an, 54 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 28an, 11:00etan  
Elosuko Andres Deunaren elizan izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Rosario Errasti Azurmendi

Arrasaten hil zen 2008ko irailaren 16an, 81 urte zituela.

Eskerrik asko eman diguzun guziagatik: izateko era sentitzeko era komunikatzeko era gozatzeko era maitatzeko era.

Eskerrik asko guztiei seme-alaben izenean.  
Arrasaten, 2008ko irailaren 26an.

ESKER ONA

## Balentin Jauregi Loiti

Arrasaten hil zen 2008ko irailaren 22an, 85 urte zituela.

Oroimeneko meza domekan, irailaren 28an, 11:00etan  
San Joan Bataiatzailea parrokiian izango da.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko irailaren 26an.

ESKER ONA

## Felix Uriarte Galdos

Bergaran hil zen 2008ko irailaren 17an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko irailaren 26an.

1. URTEURRENA

## Carlos Beitia Beltran de Heredia

Arrasaten hil zen 2007ko irailaren 28an, 52 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 28an, 12:30ean Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokiian.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko haren emaztea Amaia Hernandez eta familiako guztiak izenean.

Arrasaten, 2008ko irailaren 26an.

X. URTEURRENA

## Ainhoa Lazkano Ibarguren

Baina gauean entzun diogu zeruko beste izar batirrak batez guri begira izango zarela beti

Zure koadrilra Oñatin, 2008ko irailaren 26an.

Babeslea:

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Beilatekia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

## bila-bila 7




## hitz gezidunak




	Irazi	▼	Bizkaieraz, igo	▼	Zintzoak	▼
Ondorioa izan	►		Merkatua		Ilargi zuri	
Larrau	►					
Noren atzikia						
Ekintza gaitzesgarriak	▼					
Izanak	►	▼				
Egonak	►	▼			Röntgen	►
* Irudiko zuhaitza					Kontuz!	
Iridioa	►		Lubakia	►		lodoa
Landare mota			... egin, gotik ari	▼		
Korrikaren antolatzale	►				Zangoaren atal	
Bizkaiko ibaia	►				Titanioa	
			Bizkaieraz, zati handi	►		
			Kontso-nantea	▼		
			Zinema	►		

GOIENKARIA

## soluzioak



jerogiffikoak: Lau tomatet.



## sudokua

2					6		4
	3	6		8			
1				9			
		8	6				
8	5			1		7	
			2	5			
		5				8	
		4	6	2			
7	9						3

## hieroglifoak

Zer ekarri duzu entsaladarako?

50  
AUTO  
MATE

## hizki salda

Bizkaialko 6 mendilerro

A	R	A	M	O	T	Z	B	E
R	N	L	Z	I	M	T	X	S
A	M	B	G	Z	U	A	P	K
M	A	N	O	N	R	K	I	U
G	A	M	R	T	E	T	A	A
U	E	K	B	O	O	K	X	G
N	O	L	E	I	A	T	Z	A
L	A	D	I	T	D	L	U	T
O	R	D	A	M	B	H	E	X

## bono fotoa

**Antzuolak sei herrirekin egiten du muga. Zeintzurekin?**

Argazkia eta galdera &gt; Migue Angel Elkoroberezibar



Euskal Selekcioen

**Zira**

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOAK .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

## AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA

Bergarako Rosita Uribarrenendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: zaskun Mugia (+elkarre lirikoa).

# OÑATIKO INSTITUTUAN LANBIDE HEZIKETA

LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK 2008-2009

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

## IKASTAROAK

## ORDUAK

## AURREIKUSITAKO DATA

IKASTAROAK	ORDUAK	AURREIKUSITAKO DATA
MEKANIZAZIOA		
TORNU KOMBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	URTARRILA
TORNO CNC PROGRAMAZIOA	50	OTSAILA
TORNO CNC MEKANIZAZIOA	50	MARTXOA
FRESATZEKO MAKINA KOMBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	APIRILA
FRESA CNC PROGRAMAZIOA	50	MAIATZA
FRESA CNC MEKANIZAZIOA	46	EKAINA
MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA		
MANTENTZE MEKANIKOA	60	AZAROA
MANTENTZE ELEKTRIKOA	80	MARTXOA
KROKIZAZIOA	40	AZAROA
CAD 2D - AUTOCAD ( EZ KATALOGATUA )	40	ABENDUA
CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK ( EZ KATALOGATUA )	40	URTARRILA
METROLOGIA - EGIAZTAPEN DIMENTSIONALA	40	OTSAILA
SOLDADURA ELEKTRIKOA	55	AZAROA
SOLDADURA MIG-MAG ( EZ KATALOGATUA )	50	ABENDUA
SOLDADURA TIG ( EZ KATALOGATUA )	50	URTARRILA
SOLDADURA OXIAZETILENIKOA ( EZ KATALOGATUA )	60	OTSAILA
SEGURTASUNA FABRIKAZIO MEKANIKOKO INDUSTRIETAN	40	AZAROA
AUTOMATISMO NEUMÁTIKO ETA ELEKTRONEUMATIKOA	40	OTSAILA
INFORMATIKA		
MS WORD ( EZ KATALOGATUA )	16	AZAROA
MS EXCEL ( EZ KATALOGATUA )	16	AZAROA
INTERNETA ETA KORREOA ( EZ KATALOGATUA )	16	AZAROA
EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOA ( Ez katalogatua)	40	MAIATZA

%100  
DIRUZ  
LAGUNDUTA

Ondo pasau jaixaki!

IZENA  
EMATEKO  
EPEA  
ZABALIK

## IZENA EMATEKO:

Oñatiako institutua  
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan  
San Lorentzo auzoa z/g  
Tel.:943 78 21 50  
09:00-13:00 / 15:00-17:00  
[www.onati.net](http://www.onati.net)

zuazola-larraña  
Oñati b.h. institutua



# LETAMENDI

1923~TIK TXANTXIKUARRAK JAZTEN



Inhar Amenabar > Auto gidaria

# "Kontrakoa dirudien arren, pilotuok badakigu lasai gidatzen errepideetan"

Auto lasterketako gidaria izateko maisutasuna eta pazientzia behar direla diote askok.

MIREIA BIKUÑA > ARAMAIO

Denboraldiko laugarren lasterketa egin zuen Inhar Amenabarrek zapaturan, eta etxean korritu zuen. Gustura bukatu zuen lasterketa, baina "lehen emaitzak" hiru urte barru ikustea espero duela esan digu.

Zer moduz zapatuan Aramaion egindako lasterketa?

Ondo, gustura bukatu nuen, sailkapeneko erdialdean, hain zuen ere.

Nondik datorkizu auto gidari izateko zaletasuna?

Txikia nintzela autoekin, kamioiekin eta hondeamakinakin jolasten nintzen. Hortaz, gasolinarekin zerikusia zuten jostai-luak atsegin nituen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu ondoren, Aretxabaletan gradu ertaineko automobilgintza modulua egin nuen bi urtean. Ondoren, tailer batean hasi nintzen lanean.

Modulua egiten nengoela ezagutu nuen Agurtzane neskala-guna, eta biok zaletasun berbera genuela ikusita, lasterketetan parte hartzeko autoa erostea era-baki genuen.

Agurtzane da kopilotu lanak egiten dituena.

Hala da. Kanpotik arraroa dela dirudien arren, geroz eta emakume gehiago ibiltzen da auto lasterketan. Ni gustura nabil. Gainera, oso importantea da kopilotuak egiten duen lana. Hark esaten dizu ibilbidea nolako den, eta une guztietan egin beharreko. Nik esango nuke kopilotuaren lana gidariarena baino importanteagoa dela.

Halako zaletasuna garestia da?

Bai, oso garestia. Guk Renault Clio GT Turbo autoa erosteko 6.000 euro ordaindu genituen. Era berean, gidatzeko arropak, kaskoa, autoa eramateko atoa (erremolke) eta lizentziak behar ditugu, besteak beste. Hortaz, zaletasun garestia dela esango nuke. Baino nork bere ametsak betetzeko balio badu, gustura gastatzan den dirua da.

Entrenamenduak non egiten dituzue?

Egia esan, ez da erraza entrenatzeko tokia aurkitzea. Euskal Herriko lasterketa gehienak errepideetan egiten dituzte. Entrenatzeko gertuen dagoen zirkuitua Miranda de Ebron (Burgos) dago. Gu, jeneralean, etxe inguruan ibiltzen gara.

Bere buruari buruz galdetu diogunean "lasaia" dela esan digu Inhar Amenabarrek. Autoak

maite ditu, eta haren neskala-gun Agurtzane Zubietak zale-tasun berbera du. Aramaiko

Rallysprintean elkarrekin par-te hartu zuten Renault Clio GT Turbo autoarekin.



GOIENKARIA

**Lasterketetan azkar gidatu arren, errepideetan nolako gidaria zara?**

Oraindik gaztea naiz, eta erre-pidean lasai ibiltzen den horietako. Kontrakoa dirudien arren, lasterketetan ibiltzen garen gida-ri guztiok ez gara abiadura han-dian ibiltzen errepideetan. Seguri-tasuna importantea da lasterketetan eta errepideetan.



**Lau karrera egin dituzu orain-goz, eta ez duzu istripurik izan.**

Ez, oraingo ez. Baina halako kirola egiten dugunok badakigu istripuak izateko arrisku handia dugula. Hortaz, adi-adi ibili beharko dut.

**Auto lasterketan ibiltzen diren gidari gehienek *Futbol gutxiao* eta lasterketa gehiago leloa**



**dutun eranskailuak dituzte autoetan, baina zuk ez. Futbol-zalea zara?**

Ez nuke esango futbola gorro-to dudanik. Nire kasuan ez daramat eranskailua autoan, baina ez zait futbola gustatzen. Txikitau futbolean jokatu nuen, baina ez diot kasurik egiten futbolaren gaineko informazioari. Dena den, bateragarriak izan daitezke.



JOSETXO ARANTZABAL

**Eskiatzera joatea atsegin duzu. Hortaz, zaletasun garestiak dituzu.**

Jendarteak dio eskiatzea ere garestia dela [barre], baina mate-rialia erostea da garestiena. Nes-kalaguna eta biok astebete joaten gara Formigaleria eskiatzera. Horretan ere zaletasun berbera dugu, eta eskerrak!

**Baduzu beste zaletasunik?**

Bidaiatzea asko gustatzen zait. Oraingo, Espainia mailan egin ditugu bidaia. Baina etor-kizunean Kanada aldera joatea gustatuko litzaidake. Gainera, Katalunian jokatzen den rallyra joaten naiz urtero. Rallyak guk egiten ditugun proben antzerakoak dira. 1 Formulako probak, osteria, aspergarriagoak dira; niri ez zaizkit gustatzen.

**Lagunekin parranda egiteko astirik geratzen zaizu?**

Noizean behin ibiltzen naiz lagunekin.

**Gustatuko litzauzuke lasterketatik bizi izatea?**

Gustatuko litzaidake, baina oso zaila da.

## PERTSONALA

**Herria:** Aramaio. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Gradu ertaineko automozio modulua. **Zaletasunak:** Auto lasterketak eta eskiatzera joatea. **Gomendatzeko moduko film bat:** Taxi 3. **Gustuko duzun autoa:** Las-terketetarako Renault Clio Maxi Turbo eta errep-

derako, Ford Escort Cosworth. **Autogidari bat:** Sebastian Loeb. **Musika talde bat:** Kerobia. **Bidaiatzeko toki bat:** Kanada. **Amets bat:** Munduko txapelketa-rako puntuagarrria den lasterketaren batean irteera hartu nahiko nuke.



GOITBko platoan, albistegia grabatzen, aurkezlearekin eta kamera errobotizatuekin.

GOIENKARIA

GOITB > INBERTSIOAK

## GOITBk, 262.000 euro hobekuntzetarako

Aurtengo ikasturtean aurrerapauso handia emango du GOITBk digitaliziorantz; oraingoz, kamera eta errealizazio mahai berriak erosi ditu

GOIENKARIA > ARRASATE  
GOITB inbertsio garrantzitsuak egiten dabil azkenaldian. Hain zuzen, oraingo ikasturtean, 262.000 euro inbertituko ditu material eta azpiegituratan. Inbertsio horiek hiru fasetan egingo dira, eta helburua da dena digitalizatzea eta produktuaren eta profesionalen lanaren kalitatea hobetzea. Horrela, GOITB aro digitalerako gertu egongo da.

**KAMERA ERROBOTIZATUAK**  
Berrikuntzak abuztuan hasi ziren GOITBn, kamera digital automatizatuak eta errealizazio mahai berria erosita. Arduradunen esanetan, orain arte erabiltako ekipamendua zaharkitua zegoen, eta ez zen egokia aro digitalerako. Oihane Agirre GOITBko programen arduradunaren esanetan, "kamera errobotiza-

tuaq ditugu, eta barrutik maneiatsu ditugu, hau da, ez dugu kamera operatzailerik behar; digitalak dira, eta lehengoekin zerikusirik ez dute".

Mahaia aldatu izanak ere eragina du azken emaitzan: "Kamera digitalak direnez, maneiatsu-ko eskatzen duten mahaia ere digitala da. Aukera zabalak emanen ditu, lehengoak ematen ez zituenak, eta horiek ikusleak etxeen ere igarriko ditu", gaineratzen du Agirrek. Azaltzen du, besteak beste, albisteen titulazioa eta euren arteko trantsizioa hobeto egin ahal izango direla.

**ARTXIBOA, DISKO ZURRUNEAN**  
Berrikuntzen hurrengo faseetan, telebistaren artxiboa berrituko dute, eta disko zurrunetan oinarrituko da hura. Iban Arantzailek, Goienako Iku-entzunezko-

en zuzendariak, hauxe dio: "15 urteko historia osoa artxibatuta daukagu; hori pasatuko da artxibo digitala izatera, baina aurrentean disko zurrunetan jarraituko dugu artxiboa egiten".

Tresna berri horiek GOITBko kazetarion lanean eragin handia izango dute: "Lan egiteko modua aldatu egingo da; kazetaria autonomoagoa izango da. Orain kate luze bat hartzen du lanak; aurrerantzean, pertsona bakarrak egingo du", gaineratzen du Arantzailek.

**JENDEA TELEBISTARA GONBIDATU**  
GOITBren helburua da produktuaren kalitatean eragitea. Hain zuzen ere, bestelako eduki eta produktuak egiteko aukera emanago dute aldaketok: platoan lan handiagoa egingo da eta ibarreko lanak gehiago landuko dira. Arantzailean esanetan, "ateak zabaldu eta jendea gonbidatuko dugu gurekin telebista egitera. Asmoa orain jendea platora etorrtzea eta albisteei merezi duten sakontasuna ematea".

## teknologia berriak

> IRUDIA

### EZ300HD: Edozein sakelatan sartzeko moduko bideo kamera txikia, irudi handiak hartzeko

RCA etxeko bideo kamera hain da txikia ze edozein poltsikotan sar daiteke. Badu sentsore bat aukera ematen duena 720p-ko HD bereizmenarekin grabatzeko. 2GB-eko barne memoria du eta SD txartelendako erretrena. Aukera ematen du bereizmen baxuko grabazioa egiteko YouTube edo antzerakoetarako eta lau aldiz handitzeko zoom digitala ere badu. 2,4 hazbeteko LCD pantaila du edo USB 2.0 konexio bidez ordenagailura edo telebistara pasa daiteke. Salneurria: 110 euro.



Bideo kamerak bere baitan 2,4 hazbeteko LCD pantaila du grabatu ostean ikusteko eta lanerako.

> SOINUA

### Wicler: Esku libreko telefono sistema bizikletako eskulekuhan ipintzeko apropoa

Bizikletarako esku libreko telefono moduan ez ezik, MP3-erreproduzigailea, FM irratia hargailu, txirrin edo argi gisa ere erabil daiteke. Bluetooth bidez funtzionatzen duenez, ondo babestuta eraman daiteke. MP3rako GB bateko memoria du. Bateria kargagarriak esku libreko telefono moduan edo musikarekin bost orduko energia ematen dio, 15 orduko aurikularrekin eta hamarreko argi moduan erabiliz gero.

Salneurria: 100 euro.



1,5 hazbeteko kolore bakarreko pantaila txikia du.

> IRUDIA

### Altuera erregulagarria duten BenQ etxeko zilar koloreko pantailak kaleratuko dituzte

BenQ G2200WT eta BenQ G2400WT pantailak aukera ematen dute norbere gustura pantailaren altuera erregulatzeko. Horrela, lepoko minak arintzeaz gain, idazmahaia ere txukunago izango dugu.

BenQ G2200WT 22 hazbeteko pantaila da eta bereizmena 1.680 eta 1.050 pixel artekoa. DVI sarrera du HDCP euskarriarekin eta VGA sarrerarekin.

BenQ G2400WT pantaila handiagoa da, 24 hazbete ditu, 1920 eta 1200 pixel arteko aurrekoez gain HDMI sarrera ere badu honek.



Bi pantailak zilar koloreko markoarekin daude eskuragarri eta atzoko aldetik erregulatzen dira.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko.blog.komertzialak](http://www.goiena.net-eko.blog.komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn  
/aiastui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz  
aseguruak  
/BZ-sistemas  
/bolsukaldeak  
/denetik  
/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/eguzkigraf  
/ekiore  
/ekin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesha  
/garaia  
/garta  
/gertu  
/gorkatxa  
/gorla  
/gurea  
/gutzizeder  
/hamakataberna  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jocracing  
/lamaino-etxeberri  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi  
/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopticash  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/perfipar  
/puerta-ingles  
/richimaior  
/tabernaberri  
/udalatx  
/udalaitz  
/erdeki  
/ugartereotza  
/urbietar  
/urko  
/vitoria  
/zaindusz  
/ziripot

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejatebea.com](http://www.baster-aldejatebea.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurbcoa.com](http://www.haurbcoa.com)  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lillura.com](http://www.lillura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)  
[www.biark.net](http://www.biark.net)



**berriak**

> 'BERBAIRE'  
**Alderdi politikoetako kideak egongo dira 'Berbaire'-n egunean**

Egueneko *Berbaire* saioan ibarreko alderdi politikoetako zinegotzi eta alkateak izango dira. Horien artean egongo dira saioko kolaboratzaleak diren Lourdes Idoaga, Manu Egaña, Iñazio Garro, Juan Karlos Bengoa eta Anjel Bergaretxe.

Gai lokalak tratatuko dituzte saioan, Debagoienean zeresana eman duten gaiak, alegría. Eguenean, 21:45ean izango da programa.

> 'HARMAILATIK'  
**Erregional mailako futbola, errugbia eta pilotxa 'Harmailatik'-en**

Bergara futbol taldearen eta BTLSren arteko erregional mailako futbol derbia ekarriko du *Harmailatik* saioak telebistara astelehenean. Gainera, Arrasateko errugbi taldeak ere hartuko du saioko tarte bat eta, horretaz gain, Oñatiako San Migel jaietako pilotxa txapelketaren finalaurrekoera ere jasoko dute. Hori guztia eta beste hainbat kirol kontu, *Harmailatik* saioan, astelehenean, 22:15ean.

> ARRASATE IRRATIA  
**Maritxu Kajoi eta Danbaka, datorren asteeko gaietako bi**

Badator txikiteroen zaindariaren omenezko jai: Maritxu Kajoi 2008; kartelak eta eskapularioak kalean, saltokiak jantzi dotoreak erakusten, ile-apaindegia beteta eta jate-txeak leku barik. Jai horren termometro izango da irratia. Horrek batera, Danbaka lehiaketak abiada hartu du, datorren astean ezagutaraziko dituzte zein taldek jardun-ga duen lehian; bada guztiaren berri izango da irratian ere.

> ARRASATE IRRATIA  
**Antzerkira eta Maritxu jairako sarrerak, irratian**

Maritxu Kajoi egunaren hari-ra, Maritxu Kajoi jaia izango da 3.60 aretoan, DJen musikarekin. Marc Houle, Ima Txil Out, El Txef A, Balza eta Elektit ibiliko dira musika ipintzen. Bada jairako sarrerak zozkatuko dituzte irratian.

Horrez gain, zapatuan, *Zer duzu negarrez Mary* antzez-lana izango da Amaia Antzokian. Bada horrako sarrerak ere zozkatuko dituzte irratian. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo *irratia@goiena.com*.

'ILUNPEAN' &gt; MARTITZENA, 21:45

## Mikel Kazalis izango da martitzenean 'Ilunpean'-en

Anestesia taldeko gitarra jotzaileak musikaz jardungo du Iker Barandiaran kazetariarekin

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Zarauztarra da Mikel Kazalis musikari ezaguna. Batez ere, Anestesia taldeko kide izateagatik ezagutzen badugu ere, 2Kate eta Kuraia taldeen sortzailetariko bat ere bada. Horrez gain, Negu Gorriak taldeko partaide ere izan zen hainbat urtean. Baina Mikel Kazalisek, musika jotzeaz gain, grabazioen munduan murgilduta darioa denboratxo bat; hain justu, Fidelenea izeneko grabazio estudioko arduraduna da.

Martitzenean izango da Mikel Kazalis *Ilunpean* saioan, 21:45ean.



MIKEL KAZALIS Anestesia taldeko gitarra jotzailea da.

GOIENKARIA

'ARETXABALETAKO SAN MIGELAK' &gt; EGUAZTENA, 22:00

## Aretxabaletako San Miguel jaien gainean saio berezia egingo du Goiena Telebistak

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Udazkena iristearekin batera, ibarreko herrietara ere iritsi dira festak. Oraingo asteburuan, San Miguel jaiak ospatuko dituzte Debagoieneko bi herritan: Oñatin eta Aretxabaletan, hain justu. Aretxabaletako jaiak utziko dutenarekin saio berezia prestatuko du Goiena Telebistak. Zapata izango da egun bereziarena; izan ere, artisau feria eta XIV. azoka biologikoa egongo dira. Base-rriko produktuz eta artisauz jantziko da, beraz, Aretxabaleta bihar. Ferian eta biharko egun

osoan gertatzen denaren berri emateko ardura Aitor Agirianok izango du eta domekako kontuak, berriz, Amaia Txintxurrearen eskutik jasoko ditugu.

San Migeletako berrikuntza Aretxabaletako abesbatzak eta Tirri Tarra orkestrak eskainiko duten *Argi beltza* ikuskizun paregabea izango da, eta hori ere jasoko du Goiena Telebistak. Eta domekan herri kirolak izango dira protagonista.

Datorren eguazteneko saio berezia Aretxabaletako jaien gaineak izango da eta hurrengoan Oñatiako jaietan izango da GOITB.

**telebegi**Edorta Arana > [www.goiena.net/blogak/hamaika](http://www.goiena.net/blogak/hamaika)**Kontainera**

**E**TB3 urriaren 10ean hasiko da emititzen. Euskarazko kanal berriak hasieran uhin digitalez emitituko du (EAeko etxeen %8,3ko irismena dauka), baina Euskaltekin ari dira negoziatzen kable bidez (%39,7) ere seinalea zabaldua izan dadin.

Hiru oinarri izango ditu kanal berriaren programazioak, ETBk bultzatu dituen beste horrenbeste marka nagusienen eskutik: Betizu, Gaztea eta EITB Kultura.

Multzo horietariko bakoitzean programa desberdinak sartuko dira, baina guztiak nolabaiteko etiketa, gai batzailea eta xede-taldea edukiko dute identifikagarri. Telebistaren kontsumoa ematen ari diren aldaketak (banaka ikustearena, euskarri teknologiko ugari erabiltzea, kanalarekiko fideltasuna galtzea, auto-programatzea) eta transmisio sistemek ugaritzea direla-eta, telebistak zertan amaituko duen jakitea zaila da.

Baina bien bitartean, pozgarria da ETB1ez eta GOITBz gain, hirugarren bat ere egongo dela jakitea. Euskarazko produkzioari beste leihoa bat irekitzea ondo etorriko zaio.

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Zapata**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
Ternuan antropologoen kongresuan, Iraitz Agirre arrasatearra; Arrasate Errugbi Taldearen denboraldi berria; Celestino Uriarteren gaineko liburua; Garaion Naturarrea egitasmoaren azalpena..

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Igo Autobusera  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarprena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Sexología eta Udal Gazte Bulegoak  
Astearen errepasoa  
Zozketak  
Zorion agurruk (parte hartzeko: 943 25 05 05 ([irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)))  
11:55 Arrasateko albisteak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarraren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Albistegi laburra.

**GOITBko programazioa****Egubakoitzta, 26**

13:15 Emisio hasiera. 13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Eltze beroa. 14:45 Berriak 15:15 Berbaire. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Ilunpean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak 20:15 Marrazkiak. 20:45 Berriak. 21:15 Eltze Beroa. 21:45 Erreportaje. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 23:45 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 27**

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Marrazki bizidunak. 12:45 Erreportajea. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Erreportaje. 14:45 Ilunpean 15:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Erreportajea. 19:15 Berbaire. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Erreportaje. 21:15 Ilunpean. 21:45 Musikantoi. 22:15 Erreportaje. 22:45 Ikuskizuna. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

**Domeka, 28**

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Marrazki bizidunak. 12:45 Erreportajea. 13:15 Berbaire. 14:15 Erreportaje. 15:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Erreportaje. 19:15 Ikuskizuna 20:15 Eltze beroa. 20:45 Erreportaje. 21:15 Ilunpean. 21:45 Musikantoi. 22:15 Erreportaje. 22:45 Ikuskizuna. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

**Astelehena, 29**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ilunpean. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 16:15 Wazemak. 16:45 Berriak. 17:15 Berbaire. 18:15 Marrazkiak: Muka Muka. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazkiak: Muka Muka. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Erreportaje. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 23:45 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 30**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Futbola 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 16:15 Berriak. 17:15 Wazemak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Marrazkiak: Futbola. 18:45 Berriak. 19:15 Eltze beroa. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazkiak: Futbola 20:45 Berriak. 21:15 Eltze beroa. 21:45 Ilunpean. 22:15 Erreportaje. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 1**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ilunpean. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ikuskizuna. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Wazemak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Marrazkiak: Muka Muka. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak: Muka Muka. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 22:00 Jaia: Aretxabaletako San Miguelak. 22:45 Berriak. 23:15 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

**Eguena, 2**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Aretxabaletako San Miguelak. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 16:00 Gaurkoak. 16:00 Ikuskizuna. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 28 Klip. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Marrazkiak: Futbola. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marranzkiak: Futbola. 20:45 Berriak. 21:15 Eltze beroa. 21:45 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Musikantoi. 23:15 Ilunpean. 23:45 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA  
943 71 45 66 [www.hotelazkoagaenea.com](http://www.hotelazkoagaenea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua



## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan
- Domeketan, astelehenetan, martitzetenetan eta eguzzenetan afaririk ez.



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABAleta  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

### Igandeetan itxita



## Dukiene jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

### Astelehenetan itxita




## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56 [www.etxeaudi.com](http://www.etxeaudi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

### Egunero zabalik



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15  
[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

### Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

### Martitzetenetan itxita



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI  
943 71 61 79

### Eskaintza

- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Karta
- Aste bukaerako menu bereziak
- Eguneko menuak
- Bi jangela

### Domeka gauean itxita



## Tartufo jatetxea

San Juan Auzoa 35. Elgetara bidean / BERGARA  
943 76 35 51

### Eskaintza

- Terraza eta parrilla zerbitzua
- Eguneko menua
- Asteburuetan 20€-ko menu berezia, eta gauetan oilasko erreak bertan jan eta eramateko
- Jai pribatuak antolatzen ditugu



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

### Egunero zabalik

# Iraillak 26-Urriak 2

**LEIRE KORTABARRIA**  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 13

## Jaia



ARETXABAleta

### > San Migelen omenezko ospakizunak izango dituzte aste bukaera osoan

Gaur, musika, buruhandiak... izango dira; bihar, zapatua, kale animazioa, herri bazkaria, abesbatzaren eta Tirri Tarra taldearen kontzertua, artisau feria eta azoka biologikoa...; eta etzi, herri kirolak, txirrindulari lasterketa eta beste.

## Kontzertua




ARRASATE

### > AEBetako Secret Chiefs 3 taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua

Trey Spruanceren –Mr. Bungle eta Faith No More– Secret Chiefs 3 abangoardiako taldeak emanaldia egingo du bihar Amaia antzokian, 20:00etan. Surf rocka, persiarra, arabiarrak, hindua, death metalak... denetariko eraginak dituzte.

## Antzerkia



BERGARA

### > 'Euskara sencilloaren manifestoa' umorezko antzezlana egingo dute gaur

Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzeko ekintzen artean, *Euskara sencilloaren manifestoa* delako antzezlana egingo dute gaur, egubakoitz, udaletxean, 22:00etan. Euskara ikasten dabiltzan bi lagunen buruhausteak kontatzen ditu.

## Ospakizunak

ARRASATE

### > Globo aerostatikoan bidaia, Garagartzako jaietan

Garagartzako San Miguel jaien barruan, ekintza berri bat dago aurten: globo aerostatikoa igota, auzoa zerutik ikusteko aukera egongo da, domekan, 10:00-13:00. Bestalde, bihar, zapatua, arrantzaleen joko eta jolasak, Gorriti eta bere animaliak, su artifizialak... egongo dira; eta domekan, Txikitxu taldearen dantza emanaldia eta erromeria.

Horrez gain, egubakoitz eta zapatuak buzkantzak egongo dira auzo-etzean.

Globoa etzi, domeka, ekarriko dute auzora, 10:00etik 13:00etara.

BERGARA

### > San Miguel jaiak ospatuko dituzte Angiozarren

Honako ospakizunak egongo dira, beste batzuen artean: gaur, egubakoitz, jai hasiera (19:00), patata tortilla lehiaketa eta kontzertuak; bihar, zapatua, plater eta arku tiroketa, jolasak, briska txapelketa, buruhandiak, trikipotea eta sardina-jana; eta etzi, domeka, meza, pilota partiduak, nagusiendako herri jolasak, zezenak eta mus txapelketa.

Ospakizunek astelehenean, San Miguel Egunean, jarraituko dute.

ARRASATE

### > 'Trikili-trakala' fanzinearen despedida ekintzak

*Trikili-trakala* fanzinearen ibilbidea bukatu da eta, despedida gisara, hainbat ekintza antolatu dituzte: AHTren inguruko bideoa eta eztabaidea (gaur, 19:00etan); kontzertua: Trullo y sus Zurullos Mekanikos (Arrasate), La Banda del Abuelo (Arrasate)

eta Klinexa ta Kaka Arrastua Komunzuluan (Oñati) (bihar, zapatua, 22:00etan); eta *Etxebizitzta eta gazteak* delako hitzaldia (etzi, domeka, 18:00etan).

Ekintza guztiek gaztetxean egingo dituzte.

## Erakusketak

ELGETA

### > Pilar Muñoz margolanak ikusteko aukera, Espaloian

Pilar Muñoz margolari bilbotarraren 20 bat lan ikusteko aukera dago Espaloia antzokian. Bergarako eta Bilboko hainbat txoko margotu ditu.

Hil osoan egongo da erakusketa antzokian; gogora ezazue astelehen eta martzenetan 16:00etan ixten dutela aretoa. Irailean dago zabalik.

OÑATI

### > Herriko jai nagusiak gozatzen hasiko dira oñatiarrak

Aste bukaeran ospatuko dute San Miguel jaien hasiera Oñatin. Etzi, domeka, ospatuko dute San Mikel Aozaratzaren eguna, Txantxikuaren jaitsierarekin eta beste hainbat ekintzarekin: 49. nazioarteko artzain txakurren txapelketa, musika bandaren emanaldia, helduen danborrada, auto klasikoek erakusketa, presoen aldeko kale agerraldia eta beste batzuk.

Egubakoitzean eta zapatuak, kirol eta kale animazioek izango dira.

OÑATI

### > Corpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituze

Corpusko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek.

Parrokiian daude ikusgai, honako ordutegian: zapaturetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30.

Urriaren 26a bitartean egongo da zabalik erakusketa.


ARRASATE

### > 'Islamoa, guzti ondarea' delako erakusketa, Kulturaten

*Islamoa, guzti ondarea* delako erakusketa didaktikoa ipini du Elkarhezitzen taldeak. Hilaren 28a arte dago berau bisitatzea aukera. Islamaren zibilizazioak egindako ekarpena azaltzen du erakusketak.

Gaurtik domekara, 18:30-20:30.

PROPOSAMENA



ELGETA

### > Pilar Muñoz margolanak ikusteko parada, Espaloian

Pilar Muñoz margolari bilbotarraren 20 bat lan ikusteko aukera dago Espaloia antzokian. Bergarako eta Bilboko hainbat txoko margotu ditu.

Irailean dago zabalik.

BERGARA

### > Mari Carmen Laskurainen margolanen erakusketa

Mari Carmen Laskurain Loiduren margolanak ikusteko aukera dago irail osoan.

Zernahi kafetegian dago erakusketa.

BERGARA

### > Maddi Mujikaren margolanak daude Nahikari tabernan

Maddi Mujika Arrizabalaga (Bergara, 1994) gaztetxoaren margolanak daude Nahikari tabernan urriaren 5a arte.

Edurne Erañaren gidaritzapean, azken hiru urteotan egindako dozena bat olio-lan eder daude ikusgai.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan dago erakusketa.

ARETXABAleta

### > Nafarroaren gaineko argazki erakusketa dago Arkupen

Hil osoan, *Navarra a la carta* delako erakusketa dago zabalik, izen bereko liburuan oinarrituta. Nafarroako historia, kultura, natura eta gastronomia ondarea ezagutaztea da helburua.

Ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

### > Kirol argazki lehiaketako lanak ikusteko aukera dago

Bergarako kirol argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa bisitatzeko parada dago Aroztegi aretoan.

Gaur, egubakoitz, 18:00-20:30; bihar, zapatua, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta etzi, domeka, 12:00-14:00.

BERGARA

### > San Martin jaietako ageriko margo lehiaketako lanak

San Martin jaietako domekan jokatu zen ageriko margo lehiaketako lanen erakusketa ikus daiteke. Kultura etxean dago, eta bihar, zapatua, da bisitatzeko azken eguna.

Gaur, egubakoitz: 18:00-21:00; eta bihar, zapatua: 12:00-14:00.

## Lehiaketak

ARAMAIO

### > VI. Zuiako Koadrilako argazki lehiaketa deitu dute

Zuiako Koadrilari begirada bat izenburuarekin, argazki lehiaketa deitu dute. Koadrilako sei udalerrietan hartutako argazkiak aurkez daitezke. Edozeinek har dezake parte. Honako helbidera bidali lanok: Zuiako Koadrila; Udaletxeko plaza 1, 2. ezk.; 01130 Murgia (Araba). Honako sariak daude: 400, 300 eta 200 euroko sari bana eta euskal buzingintzako pieza bana; horiez gain, herri bakotzko, 75 euroko sari bana.

Argibideak: [www.cuadrilla-zuria.com](http://www.cuadrilla-zuria.com) edo 945 43 01 67.

Mugaeguna urriaren 22a da.

ARRASATE

### > 'Gomendatzen Dizut!' lehiaketa oraindik zabalik da

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Bulegoek antolatuta, *Gomendatzen Dizut!* oporretako eta bidaietako gomendio lehiaketa dago zabalik, baina irailaren 30ean bukatzen da epea. 12tik 30era urte artekoek parte har dezakete.

Argibideak, Gazte Informazio Bulegoetan edo [www.aizue.com](http://www.aizue.com) webgunean.

## Musika

BERGARA

### > Disko-jartzaileen emanaldiak daude Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Papiren emanaldia dago, eta bihar, zapatua, Sinestesiarena. Emanaldiok 23:00etan hasiko dira.

## Bestelakoak

OÑATI

### > Galileo Galileiren inguruko hitzaldia, Javier Armentiak

Javier Armentia Iruñeko Planetarioko zuzendariak *Galileo, mensajero de las estrellas* hitzaldia egingo du, Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta.

Urriak 2, kultura etxearen, 19:00etan.

ARRASATE

### > Larunblain, muralak egingo dituzte bihar, zapatua

Txatxilipurdi elkarteararen eskuak, Larunblai izango dute umeeak bihar, zapatua, Musakola auzoko San Antolin eskola aurrean. Bi hezitzale egongo dira eurekin.

Bihar, zapatua, Musakolan, 11:30-13:30.

ESKORIATZA

### > Ludotekaren ate irekien jardunaldia dago gaur

Gaur, egubakoitza, 3-6 urte artekoendako jolas libre jardunaldia egongo da.

Tortolis ludotekan, 17:00-19:00.

ESKORIATZA

### > Hainbat jardunaldi gaztelekuaren eskuak

Bihar, zapatua, zaldi ibilaldia egingo dute Apotzagan, eta etzi, domeka, sukaldaritzia ikasiko dute. Argibideak, Kultura sailean (943 71 46 88).

Bi ekintzak 18:00etan hasiko dira.

ERGARA

### > Jolasleku ibiltaria Espoloian egongo da gaur

Jardun euskara elkarrekin antolatutako jolasleku ibiltaria Espoloian egongo da.

Gaur, egubakoitza, 17:00etan.

OÑATI

### > Oteiza eta Arantzazurekin zuen harremana ezagutzeko

Jorge Oteizaren mendeurrena dela-eta, eskultore hark Arantzazurekin izan zuen harremana ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Mankomunitateak irailerako, 12:30ean hasita. Aldez aurretek eskaera egitea gomendatzentzu. Telefona: 943 71 89 11.

Bisita gidatu hori irailean egunero egiteko parada dago.

BERGARA

### > Bergarako gune historiko-monumentalean bisita gidatuak

Bergarako gune historiko eta monumentala ezagutzeko aukera dago, turismo bulegoaren eskuak. Ordutegi hau dute: lanegunetan, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era, eta domeka eta jaiegunetan, 11:30etik 14:30era.

Argibideak: 943 77 91 28 / www.turismodebagolena.com webgunean.



## El niño con el pijama de rayas

\*\*\*

Zuzendaria: Mark Herman.

Aktoreak: Asa Butterfield, David Thewlis, Vera Farmiga.

AEB-Erresuma Batua, 2008. 96 min.

Gaur estrenatzen da zinema komertzialean Joan den astean Donostiarra Zinemaldian ikusteko aukera izan zen *El niño con el pijama de rayas*. Filma John Boyne-ek idatzitako izen bereko eleberian oinarritzen da. Istorioak Holokaustoaren gaia ukitzen du, eta kontzentrazio-esparru batean gertatzen da. Familia bat bertara doa aita esparruko buruzagi izendatu dutelako. Familia gurasoek, 12 urteko alabak eta 8 urteko semeak osatzen dute. Istorioa semearen ikuspuntutik ezagutuko dugu. Haurra hasieran Berlinen bere lagunekin jolasten da eta ederki bizi da luxuzko etxe baten; gero kontzentrazio-esparruan, gauzak nabarmen aldatuko dira: bakarrik jolastera eta egotera ohi behar izango du. Eta denok dakigun moduan, haurrek ezin dute geldirik egon eta beti aurkitzen dute zirrikituren bat irudimenarekin mundu pertsonal bat sortzeko. Egiten dituen ihesaldietan kontzentrazio-esparruan dagoen haur judutar bat ezagutuko du eta bien artean adiskidetasun harremanak sendotuz joango dira.

*El niño con el pijama de rayas*-ek ondo isolatzen du haurraren izaera ameslaria, ez du inposatu nahi dioten errealitye kutsatuan sartu nahi eta kuriositateak, fantasiak eta abentura izpírituak ezkutatu nahi dioten errealityea ezagutzen eramango dute; hori bai, umea denez, honen interpretazio nahiko bitxia egingo du. Filmearan prozesu hori ondo azalduta dago: leuntasunez, baina biguntasunean eta milikerian ez eta tremendisimoan erori barik, kontatzen digu ipuin tragiko hau.

Agian, filmak, orokorrean, ez digu Holokaustoaren gainean ezer berririk erakussten, baina fikziozko istorio intimista bezala, *El niño con el pijama de rayas*-ek ondo funtzionatzen du, txukuna eta gustu onez egindako lana da-eta.

Antonio Zabala

# Zinema

### ARRASATE AMAIÀ ANTZOKIA

Sexo en Nueva York

Egubakoitza: 22:00. Domeka: 19:30. Asteleneha: 20:30.

**El patito feo y yo**

Domeka: 17:00.

### ELGETA ESPALOIA

Promesas del Este

Eguaztuna: 21:30.

### OÑATI KULTURA ETXEA

Ez da emanaldirik egongo.

San Miguel jaia direla-eta.

### EIBAR UNZAGA

Wanted (se busca)

Egubakoitza: 19:30, 22:15. Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30. Asteleneha, martxitzen eta eguztuna: 19:30, 22:30.

### GASTEIZ GURIDI

Vicky Cristina Barcelona

17:00, 18:30, 20:40, 22:30.

**Mamma mia!**

17:30, 20:00, 22:30.

**Tropic thunder**

17:30, 20:00, 22:30.

**Passengers**

17:30, 20:00, 22:30.

**Cuatro vidas**

18:50, 20:40, 22:30.

**Carlitos y el campo de los sueños**

17:00.

**Babylon**

17:00, 19:45, 22:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Opera: El baile de las máscaras

Domeka: 18:00.

**Che, el argentino**

12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.

**La conjura de El Escorial**

21:35, 00:25.

**Wanted (se busca)**

12:15, 15:30, 17:45, 20:00,

22:15, 00:30.

**Viaje al centro de la Tierra**

12:15, 16:15, 18:15, 20:15.

**La isla de Nim**

12:15, 16:20.

**Hellboy 2**

17:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Tropic thunder**

16:00, 18:15, 20:30, 22:45,

01:00.

**Wanted (se busca)**

15:50, 18:05, 20:20, 22:35,

01:00.

**El patio de mi cárcel**

16:25, 18:25, 20:25, 22:25,

00:45.

**Viaje al centro de la Tierra**

17:00, 19:10.

**Passengers**

16:10, 18:10, 20:10, 22:10,

00:30.

**Vicky Cristina Barcelona**

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**El tren de las 3:10**

21:50, 00:05.

**Espiritu del bosque**

12:15, 15:45, 17:45.

**Atrapado en un pirado**

12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

**Passengers**

12:15, 16:35, 18:35, 20:35,

22:35, 00:35.

**Babylon A.D.**

12:15, 16:40, 18:40, 20:40,

22:40, 00:40.

**Space chimps**

Domekan izan ezik: 16:25.

**Wanted (se busca)**

16:25, 18:25, 20:25, 22:25,

00:45.

**Viaje al centro de la Tierra**

17:00, 19:10.

**Passengers**

16:10, 18:10, 20:10, 22:10,

00:30.

**Vicky Cristina Barcelona**

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**El tren de las 3:10**

21:50, 00:05.

**Los extraños**

12:15, 15:30, 17:45, 20:00,

22:15, 00:30.

**Viaje al centro de la Tierra**

17:00, 19:10.

**Espiritu del bosque**

12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

**Atrapado en un pirado**

12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

**El patio de mi cárcel**

16:25, 18:25, 20:25, 22:25,

00:45.

# Baserriko turismoan lehenak

**BERGARARRA** Arantxa Gantxegik 20 urte daramatza Urdaibaiko Txopebenta nekazaritza turismoa kudeatzen

**XABIER URTZELAI > BERGARA**  
 Urdaibain (Bizkaia), Gautegiz Arteaga herrian dago Txopebenta nekazal turismoa. Eta Arantxa Gantxegi osintxuarrak kudeatzen du orain dela 20 urte haren senar Juan Angel Bizkarra *Txope-k* eta familia martxan jarri zuten nekazal turismoa: "Txope gizonaren ezizena da; bueno, familia osoaren ezizena da, eta baserriari Benta deitzen ziotenez Txopebenta izena jarri zioten", adierazi du Gantxegik.

Austriara egindako bidaia batetik ekarri zuten nekazal turismoa irekitzeko asmoa, baina hemen ez zen horrelakorik: "Ez hemen eta ezta Spainia ere. Hasieran, Eusko Jaurlaritzak trabak jarri zizkigun nekazal turismoa zabaltzeko. Baina, antza, Bilbon egiten den turismo ferian ikusi zuten kanpoan baziela horrelakoak, eta, azkenean, baserriko lanak amaitzeko presta sartu ziguten!".

Hastapen haietatik gaur egunera arte asko aldatu dira gauzak: "Orduan hainbat lurraldeta-

**LEHENENGOAK** Estatuko lehenengo nekazaritza turismoa da Txopebenta; Austriatik ekarri zuten ideia

**ZAILTASUNAK** Hasieran zaitasunak izan zituzten baimenak lortzeko, baina aurrera egin zuten egitasmoarekin

ko turismo ordezkariak etortzen ziren nekazal turismo bat zer zen ikustera, eta gaur egun ikusi zenbat dauden...".

## ETXEKO GIROA

Gantxegik oso argi dauka nekazal turismo batera joaten denak zer bilatzen duen: "Baserria txukun egotea ezinbestekoa da, eta, horrekin batera, jendea lasaitasun bila etortzen da hona. Irakurri, lekuak bisitatu, eta baita jendea ezagutu ere. Ene!, zenbat lagun egin ditugun hemen. Pentsa, urtero joaten gara oporetan sasoi batean bezero izandakoezin".

Gantxegik nekazal turismo- eta izaten den etxeko giroa nabarmendu du: "Orain dela gutxi Vianako eta Valentziako bi bikote izan ditugu. Hemen ezagutu zuten elkar, eta lagun egin ziren. Hala, esan didatenez, etxeko bidean valentziarrak Vianako en etxeen geratu ziren pare bat egin pasatzen. Batek daki etxeko atarian bezeroek zenbat teruelia egin dituzten..."



BALKOIAN Arantxa Gantxegi Txopebenta landa turismoko balkoian.

OIHANA ELORTZA

## ahobero

"Joan den astean Revilla nazioko urdetzat zeukan, eta orain moralaren erreferente; bistan da Madrilen ez dutela ezer ikasi"

Iñaki Anasagasti > Senatario Santoñako atentatuaren ondoren Kantabriako presidente Miguel Angel Revillak Ibarretxe eta EAJ izan zituen jomuga. ETaren aurrean anbiguo izatea aurpegiratu zien; EAJko senatario Anasagastik ez du erantzuteko astirik galdu.

## iturri onetik

**Espainiako infantil mailako saskibaloikopako aurrefasea, Eskoriatzara**

Abenduaren 6, 7 eta 8an ekarri nahi dute saskibaloiko aurrefasea Eskoriatzara. Espainiako infantil mailako nesken saskibaloikopari begira, Manolo Muñozentzileak txapelketa horretako aurrefasea Eskoriatzara ekarri gura du, baina horretarako dirua behar dute. Bi mila euro pasatxo behar dituzte kirol ekitaldi hori gurera ekartzeko; zehatzak izateko, 2.100 euro.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

### Artista arrasatearra

**E**z da preziso hasi berria Iñigo Arregi arte lanetan. Badira 25 urte lehen erakusketa egin zuela eta gerotzik hainbat zintzilikatu ditu, euskal inguruotan bezala Madril eta Parisen.

Ezin esan, ordea, artista ospetsua denik. Seguru asko, Arrasaten gehien ezagutzen zaizkio Maritxu Kajoi jairako egin ohi dituen kartelak, pertsonai dotorez osatutako margolan ederrak.

Bikaina iruditu zitzaidan Josefe Diaz de Tuestak Atauri bere blogean jarri zuen Iñigori egindako argazki sorta. Eta orain asko gustatu zait Elorriion-Eroskiren bulego zentraletan-jarri dioten eskultura, bost metroko burdin herdoilduzko multzo iradokitzalea. Ederra benetan atzoko horma kristalezkoan hartzen duen isla.

Osperako ordua iritsi ote zaio Iñigori?

## ai, ene!



**Kamuflajezko komuneko papera, badezpada**

Norbaitek esango du diseinuzko objektua dela, baina horren beste tinta gastatzea ere... Alemanian saltzen dute, bost eurotan.

www.tec.nologia.com



Arkauz zure etxea da.

